

SASOIKAKO LANGILEEN EGOERA ARABAKO MAHATS ETA PATATA BILKETAN



ARARTEKOAREN ARGITALPENAK

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTEN BEREZIAK

- *Kalabozaok*. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. 1991.
- *Psikiatrikoak*. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera. 1992.
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993)*. 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994)*. 1994.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995)*. 1996.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzetako egoera*. 1996.
- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak*. 1997.
- *Adin txikiko lege-hausleak*. 1998.
- *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan*. 1999.
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn*. 1999.
- *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo*. 2000.
- *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna*. 2001.
- *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan*. 2002.

Txosten berezien separatak

- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak*. 1998.
- *Adin txikiko lege-hausleak*. 1999.

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTEN ARRUNTAK

Liburukiak: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001.

Txosten arrunten separatak

- *Arartekoaren gomendio eta iradokizunak*. Liburukiak: 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996.

BESTELAKO ARGITALPENAK

- *Idatz arauak / Normas de redacción*. 1992.
- *Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia*. 1993.
- *Esanak eta eginak / Dichos y hechos*. Juan San Martín, Arartekoa. 1994.
- *XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo*. 2000.

Faksimilak

- *Jaquin-bide Iritarautia - 1820*. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- *Gaioren Institutionum*. 1992. (Gaztelerazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- *Aita Frantzisko Vitoriakoaren De indis insularis. De iure belli*. 1993. (Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea).
- *Valentín de Forondaren Cartas sobre la policía*. 1998. (Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea).
- *Miguel de Lardizábal y Uriberen Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias*. 2000. (Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea).
- *Manuel de Lardizábal y Uriberen Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma*. 2000. (Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea).

Padre Francisco de Vitoria Giza Eskubideen Saila

(bekadunen lanak)

- *Eduardo Javier Ruiz Vieytez. El derecho al ambiente como derecho de participación*. 1993.
- *Miguel Angel Encinas Cañón. Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)*. 1994.
- *Gema Varona Martínez. La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos*. 1994.
- *Ander Bergara. Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*. 1996.
- *María José Fernández de Landa Montoya. El control interinstitucional en la Unión Europea*. 1996.
- *Isabel Paula Sánchez García. Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV*. 1998.
- *Jorge Morquecho Ibáñez. Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión*. 1999.
- *G. Azkarate, L. Errasti, M. Mena. Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak*. 2000.
- *Zenbait egile (IPE). Gure eskubideak*. 2001.

«Jornadas sobre derechos humanos» bilduma

- *Ararteko. El derecho a la no discriminación por motivo de raza*. 1997.
- *Ararteko. Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario*. 1998.
- *Ararteko. Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores*. 1999.
- *Ararteko. Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos*. 2000.
- *Ararteko. Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos*. 2001.



SASOIKAKO LANGILEEN EGOERA ARABAKO MAHATS ETA PATATA BILKETAN

Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia

Egileak: Ararteko erakundea.

Mercedes Agúndez, Faustino López de Foronda, Valentín Martínez, Fermín Barceló,
Miren Ortubay, Teresa Llantada, Carlos Barcina, Idoia Llano, Inma Arrizabalaga,
Nieves Oca, Amaia Pagola, Nati Monforte.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: *Vendimia*. José Antonio García Díaz, 1994.

Irudiaren ©: Casa Felipe.

Itzulpena: Hori Hori, S.A.L.

Paper ekologikoa.

L.G: VI-412/02



SASOIKAKO LANGILEEN EGOERA
ARABAKO MAHATS ETA
PATATA BILKETAN

AURKIBIDE OROKORRA

Txostenaren aurkezpena	17
Sarrera	23
1. Sasoikako langileak Araban. Kokalekua, kuantifikazioa eta ezaugarriak	29
1.1. Kokalekua eta kuantifikazioa	32
1.2. Sasoikako langileen ezaugarri batzuk	35
1.3. Sasoikako lana Arabako Errioxan	38
2. Sasoikako langileen kontratazioa eta arazoak	43
2.1. Sasoikako lanaren kuantifikazio ekonomikoa	45
2.2. Azpikontratazioen arazoa	47
2.3. Jatorrizko kontratazioak	50
2.4. Nekazaritza hitzarmen baten beharra	53
2.5. Ikuskapen eta kontrol jarduketak	53
2.6. Informazio bulegoak, enplegua lortzeko bitartekari edo laguntzailatzat	55
3. Bizilekuen baldintzak	59
3.1. Aurretiatzko jarduketak eta informazio iturriak	61
3.2. Azken urteotan izandako aldaketak	62
3.3. Azken kanpainan ikusitako errealitatearen azterketa (2001)	63
a) Aguraingo aterpetxea	63
b) Kanpaldiak	65
c) Arabako Mendian bisitaturiko bizilekuen banaketa eta ezaugarriak	65
d) Arabako Lautadan bisitaturiko bizilekuen banaketa	68
e) Arabako Errioxako bizilekuen beharrianak eta baldintzak	70
3.4. Gainditu beharreko beharrianak eta zailtasunak	77
4. Sasoikako langileen seme-alaben eskolatzea	79
4.1. Adin txikikoak lekutzea eta kuantifikatzea zonan	82
4.2. Adin txikiko horien eskolatze maila	82
4.3. Eskolaturiko adin txikikoen adina eta jatorria	85
4.4. Azken urteotan ikusitako bilakaera	89
4.5. Gizarte-eragileen eta erakundeen zeregina	91
4.6. Eskola erantzuna hobetzeko zailtasunak eta aukerak	92

5. Gizarteratzeko aukerak eta bazterturik gelditzeko arriskuak	95
6. Gizarte-eragileak eta erakundeen inplikazioak	101
6.1. Sasoikako lanaren Mahaia	104
6.2. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak sustaturiko edo diruz lagundutako jarduerak, nekazaritzako sasoikako laneko programaridagokionez	105
6.3. Eraginpeko udalerrien inplikazioa	109
7. Txostena egiteko erabilitako informazio iturriak	117
7.1. Iturri idatziak	119
7.2. Ahozko iturriak. Bilerak	125
7.3. Zonetara kanpainan egindako bisitaldiak	127
8. Gomendioak	129
9. Eranskinak	
I. Gomendio orokorra, 1997koa: “Denboraldiko langileentzako eta horien familientzako bizilekuen baldintzak”	141
II. Gomendio orokorra, 2000koa: “Sasoikako beharginen alojamentuetako baldintzak arautzea”	149
III. Galdeketa, 2001ekoa, Arartekoak Arabako Mendiko, Lautadako eta Errioxako 31 udali bidalitakoa	165
IV. Patata biltzeko zonako udalek Arartekoaren galdeketari emandako erantzunak	169
V. Mahatsa biltzeko zonako udalek Arartekoaren galdeketari emandako erantzunak	173
VI. Bizilekuen baldintzei buruzko datuak biltzeko orria	177

MAPEN, TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. mapa:	Arabako mapa, mahatsa eta patata biltzen diren zonak adierazten dituen	32
1.1 taula:	Eltzieso eta Lantzieso zonetan zentsaturiko sasoiako langileen eta familien jatorria, 2001. urtea	36
1.2 taula:	Eltzieso zonako sasoiako familien presentzian ikusitako bilakaera, azken bost kanpainetan bildutako datuen arabera (1997-2001)	37
1.3 taula:	Lantzieso zonako sasoiako familien presentzian ikusitako bilakaera, azken bi kanpainetan bildutako datuen arabera (2000-2001)	37
1.4 taula:	Arabako Errioxan azterturiko lagineko familien ustiakuntzen neurria (2001)	39
1.5 taula:	Mahatsetarako azalera, Arabako Errioxan azterturiko lagineko ustiakuntzetan (2001)	39
1.6 taula:	Ustiakuntza bakoitzeko enplegu egonkorren kopurua, Arabako Errioxako 457 ustiakuntzako laginean (2001)	40
1. grafikoa:	Kanpainetako aparteko eskulan beharizana eta mota (Arabako Errioxako 457 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)	40
1.7 taula:	Aparteko eskulanaren kontratazioa, Arabako Errioxako kanpainetan (457 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)	41
2.1 taula:	Sasoiako lanaren soldatak, Arabako Errioxako azken kanpainan (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)	46
2.2 taula:	Arabako Errioxako kanpainen iraupena (457 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)	47
2. grafikoa:	Sasoiako langileak Arabako Errioxako ustiakuntzetara iristeko moduak (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)	49
2.3 taula:	Arabako Errioxan sasoiako lanaren soldatak ordaintzeko moduak (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)	50
2.4 taula:	Jatorrian kontratatuzeko programa, UAGA, 2001eko kanpaina	51
2.5 taula:	Sasoiako langileekin harremanetan jartzeko eta langileok kontratatuzeko moduak, Arabako Errioxan (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)	52

3. grafikoa:	Hileko lanaldiak, inoren konturako nekazaritza araubidean kotizatuak, 2000. eta 2001. urteak, Araba	54
2.6 taula:	Laneko Ikuskaritzak mahatsa biltzeko kanpainetan egindako jarduketak, 1995etik 2002ra	55
2.7 taula:	Sasoikako langileen kontratazioen kokalekua, matrikulako liburuetan jasotako datuen ustiakuntzaren arabera (Aguraingo NEB, 2001)	56
2.8 taula:	Sasoikako langileen kontratazioen kokalekua, matrikulako liburuetan jasotako datuen ustiakuntzaren arabera (Kanpezuko NEB, 2001)	57
3.1 taula:	Aguraingo informazio bulegoko lan poltsetan izena emanda duten pertsonen bizilekua hartzeko aukera eta bizileku mota (2001)	64
3.2 taula:	Famili ezarkuntzen banaketa eta sasoikako pertsona nahiz famili kopurua, biztanle gune desberdinetan (Arabako Mendia, 2001. urtea)	66
2. mapa:	Arabako Mendia: sasoikako langileen ezarkuntzak dituzten biztanle guneak (2001)	67
3.3 taula:	Sasoikako langileen ezarkuntzen, pertsona helduen eta hurren banaketa, Aguraingo Taldeko biztanle gune desberdinetan (2001)	69
3. mapa:	Arabako Lautada: sasoikako langileen ezarkuntzak dituzten biztanle guneak (2001)	69
4. grafikoa:	Arabako Errioxako sasoikako langileen bizilekuak (2001eko lagina). Sasoikako langilearen eta nekazariaren konturako bizilekuen proportzioa	70
3.4 taula:	Sasoikako langilearen konturako bizileku motak, Arabako Errioxan (2001eko lagina)	71
3.5 taula:	Nekazariaren konturako bizileku motak, Arabako Errioxan (2001eko lagina)	71
3.6 taula:	Nekazariak eskainitako bizilekuen gutxieneko baldintzak, berak egindako balorazioaren arabera (Arabako Errioxako lagina, 2001. urtea)	71
3.7 taula:	Biasteriko informazio bulegoko lan poltsetan izena emanda duten pertsonen bizilekua hartzeko aukera eta bizileku mota (2001)	72
4. mapa:	Arabako Errioxa: bisitaturiko bizilekuak dituzten biztanle guneak (2001)	73
3.8 taula:	Eltziego udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	73
3.9 taula:	Samaniego udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	74

3.10 taula:	Baños de Ebro udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	74
3.11 taula:	Leza, Villabuena, Navaridas eta Páganos udalerrietan finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	75
3.12 taula:	Lantziego udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	75
3.13 taula:	Yécora udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	76
3.14 taula:	Biasteri udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	76
3.15 taula:	Kripan, Viñaspre eta Lapuebla de Labarca guneeetan finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	76
3.16 taula:	Elvillar udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)	77
4.1 taula:	Arabako Mendiko sasoikako familietako adin txikikoen eskolatze maila (2001)	83
4.2 taula:	Arabako Errioxan zentsaturiko sasoikako familietako adin txikikoen eskolatze maila (2001)	83
4.3 taula:	Sasoikako familietako adin txikikoen eskolatze datuak, Arabako Errioxako ikastetxeetan (2001)	84
5. grafikoa:	Sasoikako familietako adin txikikoak eskolara joatearen bilakaera, Arabako Errioxako ikastetxeetan (2001)	84
6. grafikoa:	Eskolara joandako egun kopuruaren bilakaera, Campezo Yoar LHIn (2001eko iraila-urria)	85
7. grafikoa:	Arabako Mendian eskolaturiko ikasleek adinaren arabera duten banaketa (2001)	86
8. grafikoa:	Arabako Errioxan eskolaturiko sasoikako familien ikasleek adinaren arabera duten banaketa (2001)	86
9. grafikoa:	2001ean eskolaturiko sasoikako ikasleen banaketa, hezkuntza etapen arabera	87
4.4 taula:	Eltziego zonako sasoikako langileen, adin txikikoen eta eskolaturiko adin txikikoen jatorria (2001)	88
4.5 taula:	Lantziego zonako sasoikako langileen, adin txikikoen eta eskolaturiko adin txikikoen jatorria (2001)	88
4.6 taula:	Arabako Errioxako herrietan finkaturiko famili unitateetan zentsaturiko sasoikako langileen eta adin txikikoen banaketa (2001)....	89
4.7 taula:	Sasoikako familietako adin txikikoen eskolatzeak Arabako Errioxako ikastetxeetan izandako bilakaera (1997-2001)	91

- 6.1 taula:** Arabako Mendiko eta Lautadako udalerrien datuak, balorazioak eta proposamenak, Arartekoak egindako galderei dagokienez ... 110
- 6.2 taula:** Arabako Errioxako udalerrien datuak, balorazioak eta proposamenak, Arartekoak egindako galderei dagokienez 112

TXOSTENAREN AURKEZPENA

Sasoikako langileen arazoak oraindik ez dira oso ezagunak gure erkidegoan, zona batzuetan tradizio luzea egon arren. Txosten honetan, Arabako sasoikako biztanleriaren egoera aztertuko dugu, eta, hain zuzen ere, lurralde horretara nekazaritzako lanetan jarduteko doazen pertsonen egoera, batik bat mahatsa eta patata biltzeko aldian.

1995etik, Arartekoak horren jarraipena egin du, eta bere ustez, lau arazo nagusiak honako hauek dira:

- kontratazio sistemak;
- ostatu hartzea;
- sasoikako familietako adin txikikoen eskolatzea;
- gizarteratzea edo gizartean baztertuta gelditzea.

Arazo horien urteroko jarraipena egiteko, informazio iturri desberdinak erabili dira: bisitaldiak, elkarrizketak, bilerak, memorien azterketak, datu eskabideak... **Eta Eusko Jaurlaritzari jarraipen horren berri eman zaio, aldian behin, txosten arruntetan.** Horrela:

- **1995**eko urteroko txostenean, Arabako Errioxan adin txikiko talde baten eskolaratze baldintza batzuk aldatzeko egindako ofizioko jarduketaren berri eman zen (1995eko txostena, 111. orr.).
- **1996**ko txostenean, egoeraren laburpen-diagnostikoa egin eta lau punturik arazotsuenetarikoa bakoitza sakon aztertu zen: 1) kontratazioak; 2) ostatuak; 3) eskolatzea; 4) gizarteratzea. Gainera, Erakunde mailako jarduketa proposamenak planteatu ziren, hiru arlotan: 1) arauen garapenean; 2) erakundeen arteko koordinazioan; 3) pertsona horiei euren eskubideei eta zerbitzuei buruzko informazioa ematean. Azterketa eta proposamenak Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru aldundiko sail eskudunetara helarazi ziren (1996ko txostena, 58-66. orr.).
- **1997**ko txostenean, egindako jarraipenaren emaitzak adierazi (adierazitako lau arloetariko bakoitzean ikusitako aurrerapenak eta gabeziak) eta ondorio batzuk atera ziren, koordinaturiko lanaren garrantziari, egoeraren hauskortasunari, arreta sareak gainezka eginda egoteari eta udal agintarien inplikazio maila desberdinei buruz. Halaber, pertsona horiek ostatu hartzeko baldintzei buruzko gomendio orokorra ere eman zen (1997ko txostena, 42-49. eta 482-487. orr.).
- **1998**ko txostenean, urte horretan egindako jarraipenaren berri eman zen; bederatzi gairi buruzko datu eta elementu adierazgarri batzuk nabarmendu ziren: gizartearen sensibilizazioa; informazio bulegoak; kanpaldi eremuak; aterpetxeak; nekazariak

birgaituriko lokalak; konpromiso mailak; eskolatzea; gizarte edota hezkuntza mailako eskuhartzea; nekazaritza hitzarmenik eza (1998ko txostena, 41-44. orr.).

- **1999**ko txostenean, ezarkuntzen eta ostatuen gaia aztertu zen; informazioa gaurkotu, aurrerapenen nahiz arazoaren balorazio orokorra egin eta hobekuntzarako aukerak planteatu ziren (1999ko txostena, 40-45 orr.).
- **2000**ko txostenean, berriro ere ostatuen gaia aztertu eta beste gomendio orokor bat eman zen, gomendio zehatzagoa, “*Sasoikako beharginen alojamenduetako baldintzen arautzea*” deritzonari buruz (txosten honetan eranskintzat jasotako gomendioa). Era berean, eskola baldintzak ere sakon aztertu ziren (2000ko txostena, 33-37. eta 415-427. orr.).
- Azkenik, **iazko txosten arruntean**, berriro ere ostatuen eta eskolatzearen baldintzak aztertu genituen, azken kanpainari zegokionez, eta “*Sasoikako langileen egoerari buruz txosten monografikoa egiteko aukera*” izenburuko atalarekin amaitu genuen; atal horretan hauxe esaten zen:

“Azken sei urteetan egindako jarraipena dela eta, urtero izan ahal izan dugu informazio gero eta zabalagoa eta errealitatera doituagoa.

Erakundeen hainbat esku-harmen sendotuz joan dira: eskolatzeko programak, gizartearen eta hezkuntzan esku hartzeko programak, informazio-bulegoak, aterpetxeak... Beharizanetarako erantzun hobea emateko eta errealitateari buruzko datu zehatzagoak biltzeko balio izan dute eta, horrela, gure aurreko txostenetan aipaturiko ohiko arazoetako bat gainditu edota arindu da: arlo honen problematikaren ezagupenik ez globala.

Urte hauetako jarraipena eta jasotako informazioaren ondorioz, Arartekotzak Arabako sasoikako langileen problematikari buruzko txosten monografikoa egiteko aukera mahaigaineratu du, sakabanatuta jasotako informazioak biltzen dituen eta haien egoerari buruzko ikusmolde orokorra ematen laguntzen duen txosten monografikoa egiteko aukera alegia”. (2001eko txostena, 47. orr.).

Hemen aurkezten den **txosten monografikoaren helburua horixe da: barreiaturiko informazioak bildu eta sasoikako langileen egoerari buruzko ikuspegi orokorra azalduko da, egoera hori hobetu ahal izateko.**

Horretarako:

1. Aurreko zazpi urteetan **bildutako informazioa** erabili eta informazio hori, gainera, osatu egin da, iturri gehigarrien eta datu eskabideen bitartez, eta eskabide horiek txosten hau egiteko egin dira berariaz. Funtsean:
 - Arabako Errioxako, Arabako Mendiko eta Arabako Lautadako eskualdeetako 31 udalei eskaturiko datuak.
 - Honako hauei eskatu zaizkien datuak: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate eta Nekazaritza Sailari, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, Arabako Gobernu Azpiordezkaritzako Lan eta Gizarte Gaien Zuzendaritzari, UAGA nekazaritza sindikatuari eta Biasteriko Ertzaintzaren Komisariari.
 - Sasoikako langileen arazoak ezagutzen dituzten edo arazo horiei loturiko zerbitzuetan, sailetan nahiz programetan inplikaturik dauden pertsonekin egindako bilerak.

2. Informazio erabilgarria ondo antolatu da, lehen adierazi dugun eta lehendik ere erabilia dagoen **lau puntuko eskemari jarraituz**: kontratazio sistemak; ostatu hartzea; adin txikikoen eskolatzea; gizarteratzeko aukerak.

Horrenbestez, txosten berezi honen helburua (Arartekoak orain arte egindako beste batzuetan ez bezala) ez da elementu berriak eskaintzea, sektoreko arazoen ikuspegi orokorra eskaintzea baizik, orain arte ikuspegi partziala edo barreiatua eskaini baita. Eta, horretarako, gainera, datu kopuru ahalik eta handiena erabili nahi izan dugu, geure esku egon den neurrian, txostena benetan erabilgarria izateko: txostena tresna egokia izan dadin, sektorean erantzukizuna dutela-eta sasoikako langileen bizi baldintzak hobetzen saiatu eta lagundu behar duten pertsonentzat eta erakundeentzat.

Eskerrak eman nahi dizkiegu datuak eta iradokizunak eskaini dituzten pertsona eta erakunde guztiei, emandako laguntzarengatik eta egindako lanarengatik. Horiek gabe, txosten hau ezinezkoa izango zen, edo, bestela, beste mota bateko errealitate bat islatuko zuen.

Gasteiz, 2002ko abuztuaren 2a

JARDUNEKO ARARTEKOA
Mercedes Agúndez Basterra

SARRERA

Urterik urtera, patata eta mahatsa biltzeko sasoia hurbiltzen denean, Arabara pertsona eta familia asko heltzen da, zenbait astetan nekazaritzan lan egiteko prest. Pertsona horietatik gehienak irailan edota urrian agertzen dira Arabako Errioxako, Mendiko eta Lautadako eskualdeetako herrietan, eta bertan gelditzen dira, bilketa lanek dirauten artean; gero, beste zona batzuetara joan edo euren jatorrizko herrietara itzultzen dira. Hori dela eta, **pertsona horiei “sasoikako langile” esaten zaie**, esamolde horren barruan pertsona talde osoa sartu nahian.

Hala eta guztiz ere, sasoikako langileen taldea (beste edozein talderen kasuan gertatzen den bezala) ezaugarri oso desberdineko pertsonak eta taldeek osatzen dute, honako honen arabera: jatorria; bakarrik, antolaturiko taldeetan edo famili taldeetan iristea; jatorrizko herrian kontraturik, lehenagoko urteetan nekazari jakinentzat lan eginda edo gehiagoko barik etortzea; euren administrazio egoera araututa edukitzea ala ez edukitzea (atzerriko pertsonak direnean); bilketa lanetara baino ez etortzea edo nekazaritza lanetan ere parte hartzea, urtean zehar, kasuan kasuko zonan... Ezaugarri horien edo beste batzuen arabera, euren bizi baldintzak, lan aukerak eta, oro har, beharrianak, desberdinak izan daitezke. Horiexek dira, hain zuzen ere, txosten honetarako alderik interesgarrienak.

Urte askotatik hona gure arteko gizarte errealitatea izan arren (zona batzuetan gero eta nabariagoa, eta lan, gizarte nahiz ekonomi mailako inplikazio handikoa), gizarteak oraindik ere ez daki gauza handirik horri buruz, eta pertsona horien beharriaz emandako erantzuna, aurrerapausoak egin badira ere, oraindik ere barreiatua eta ezegokia da. Horren zergatiak honako hauek dira: gaiaren konplexutasuna eta sektorearen antolaketa eza; zonan gelditzeko aldi laburra (kasu askotan); eraginpeko eskualdeen nekazaritza egitura; inplikaturiko administrazioen aniztasuna (udalerriak, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Estatuko Administrazioa); eskuhartzeak koordinatzeko arazoak ...

Azken urteotan, ikusiko dugunez, **erakundeek zenbait ekimen eta programa garatu dituzte**, eta horiek aurrerakuntzak ekarri dituzte arlo batzuetara. Ekimenik gehienak “Sasoikako lanaren Mahaiak” sustatu ditu; Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak sustaturiko partehartze organo horretan, sailetako, administrazioetako, sindikatuetako edo elkarteetako ordezkariak daude.

Arartekoak laguntza eman dio Mahaiari, eta, gai jakin batzuetan, erakundeei zuzendutako proposamenak aurkeztu eta nolabaiteko jarraipena egin du. Funtsean, **ekimena bere ikuspegitik arazotsuenak diren alderdietan oinarritu da:**

kontratazio sistemak, bizilekua hartzeko baldintzak; sasoikako familietako adin txikikoak eskolatzeko baldintzak; gizarteratzeko aukerak edo bazterturik gelditzeko arriskuak.

1995etik hona, urterik urtera, alderdi horien jarraipena egin da, eta, horretarako, era guztietako **informazio iturriak** erabili dira:

- ezarkuntzetarako eta bizilekuetarako bisitaldiak;
- ikastetxeetara egindako bisitaldiak;
- lana duten eta ez duten sasoikako langileei egindako elkarrizketak;
- nekazariei egindako elkarrizketak;
- laguntza programetan inplikazio zuzena duten taldeekin eta pertsonekin egindako bilerak: oinarrizko gizarte langileak, ikastetxeetako irakasle taldeak, gizarte edota hezkuntzako programak bideratzen dituzten taldeak, Ertzaintzako arduradunak...;
- toki eta lurralde mailako erakundeei egindako datu eskabideak;
- egindako programei buruzko urteroko memorien azterketa;
- eraginpeko sailetako arduradunekin egindako bilerak (Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzeta)...

Jarraipen horri dagokionez, aldian behingo txosten arruntak aurkeztu dira Legebiltzarrean; urte bakoitzean, alderdi batzuk nahiz besteak nabarmendu eta gomendioak egin dira.

Orain, **txosten monografiko honen bidez, sasoikako biztanleriaren egoeraren ikuspegi orokorra eskaini nahi da.** Alde batetik, aurreko urteotako informazioa eta datuak erabili dira, orain arte barreiatu egon direnak; bestetik, informazio iturri berriak eta datu osatuagoak sartu dira, zenbait lekutatik lortutakoak: udalak, sailak, zerbitzuak, sindikatuak, elkarteak...

Informazioa erabilgarritasun irizpidearen arabera aukeratu da: errealitatea hobeto ezagutzeko eta bertan hobeto jardun ahal izateko baliozkoa den informazioa. Eta, neurri handi batean, behin eta berriro aipatu ditugun lau interes guneen arabera antolatu da: 1) kontratazioak; 2) bizilekuak; 3) eskolatzeta; 4) gizarteratzea. Izan ere, txostenaren oinarrizko egitura (2-5 kapituluak) eta gomendioen bilketa bera ere, neurri handian, eskema horren arabera dira.

Txosteneko oinarrizko eskema hori honako honekin osatu da: aurretiazko kapitulu bat, ondorengo beste bat, gomendioak, informazio iturri nagusien zerrenda eta erantsitako agiri batzuk.

Aurretiazko kapituluan (1. kap.), nekazaritzako sasoikako arazoa Araban lekutu nahi da, bai dimentsio geografikoa (presentziarik handieneko zonak) eta bai dimentsio kuantitatiboa (pertsona kopurua) aintzat hartuz. Halaber, sasoikako biztanleriaren ezaugarri nagusi batzuk ere aztertzen dira, biztanleria horren beharrianak zein diren jakiteko (adina, generoa edo jatorria bezalako ezaugarriak). Azkenik, Arabako Errioxako sasoikako lanari buruzko atal berezia dago, zona horrexetan baitago fenomeno honen presentziarik handiena.

6. kapituluan, erakundeek gaian dituzten inplikazioak eta gizarte erakunde nahiz eragileek egindako jarduketak aztertzen dira. Arazoak konpontzeko oinarrizko alderdia da, eta txostenaren ikuspegirako ere funtsezko alderdia da. Kontuan hartu behar da Arartekoak administrazioei zuzendu behar dizkiela beti bere proposamenak, Legeak horixe agintzen baitu.

Txostenaren amaieran, **gomendio batzuk egiten zaizkie inplikaturiko erakundeei**, sakon azterturiko gai bakoitzari buruz:

- Erakundeen arteko koordinazioaren mekanismoak hobetzeari buruz.
- Kontratazio sistemak hobetzeari buruz.
- Bizilekua hartzeko baldintzak hobetzeari buruz.
- Sasoikako familietako adin txikikoen eskolatzea hobetzeari buruz.
- Gizarteratzeko aukerak hobetzeari buruz.

Erabilitako informazio iturriei eta txostenean sarturiko datuei dagokienez, honako ohar hauek egitea komeni da:

- Informazio iturri erabilgarri guztiez baliatu gara; hala ere, jakina, datu guztien baliozkotasuna eta fidagarritasuna ez da berdina. Horrenbestez, taula eta grafiko guztietan iturria edo iturriak adierazten dira.
- Alderdi berberari buruzko datu iturri desberdinak egonez gero, desberdintasun horiek adierazteko eta kontrasterako elementutzat erabiltzeko ahalegina egin dugu; horrela, gainera, baliozkotasun handiagoa eman diogu iturriak fidagarrienari, azterturiko alderdi jakinari dagokionez.
- Datu kuantitatiboei gainerakoei baino balio handiagorik eman nahi ez badiegu ere, ahalik eta argien eskaini nahi izan ditugu (taula eta grafiko ugari erabiliz) txosteneko edukietarako eta helburuetarako daturik adierazgarrienak. Izan ere, sarritan datu ezezagunak edo, behintzat, agiri askotan barreiaturiko datuak dira.

Nolanahi ere, testuan datu batzuk eta ez beste zenbait sartzeko jarraitu den irizpidea, betiere, erabilgarritasuna eta txostenaren ezaugarriekiko egokitzapena izan da.

1. SASOIKAKO LANGILEAK ARABAN. KOKALEKUA, KUANTIFIKAZIOA ETA EZAUGARRIAK

Lehen esan dugunez, Arabako sasoikako langileen arazoak aztertzean ikusten den arazoetariko bat **errealitate hori ez ezagutzeari** edo, beste modu batera esateko, egoera neurri batean baino ez ezagutzeari lotutakoa da. Esate baterako, zehaztasun handiz ezagutu ditzakegu aterpetxe batean pare bat egunez gelditzen den pertsona talde txiki baten ezaugarriak (kopurua, generoa, nazionalitatea, jatorria, adina...); baina, adi berean, agian ez ditugu ezagutuko talde askoz ere ugariago batek zenbait astetan erabilitako ezarkuntzaren datu guztiak. Kontuan hartutako edozein zentrori dagokionez ere antzeko adibideak aipa daitezke: kontratazioak, bizilekuak, eskolatzea... Izan ere, agian zehatz ezagutuko ditugu udalerrri jakineko sasoikako familien bizileku baldintzak (elkarte batek bertan eskuhartze programa bat duelako, bizilekuak bisitatu dituelako eta datuak modu sistematikoan jaso dituelako); hala eta guztiz ere, aldi berean, bertatik hurbileko beste udalerrri bateko bizilekuen egoerari buruzko oinarritzko daturik ez dugu izango, agian.

Erraz-erraz esateko: “kontrolaturiko” egoerei buruzko datu asko bildu eta dakizkigu (eskolaturiko umeei buruz; gizarte segurantzaren alta hartu duten langileei buruz; informazio bulegoetara edo aterpetxeetara doazen pertsonen buruz), baina ia ez dugu daturik antzekoak baina ezezagunak edo kontrol txikikoak diren beste egoera askori buruz. Horrenbestez, ikuspegi orokorra eskaintzea zaila da.

Hori guztia kontuan hartu beharrekoa da, txosten honetan eskainitako datuak interpretatzean eta horien baliozkotasuna baloratzean.

Baina horri ñabardura hauxe egin behar zaio berehala: urteak aurrera joan ahala, **gero eta informazio handiagoa, osatuagoa eta fidagarriagoa** dago. Orain arte inoiz ez dugu horrenbeste daturik izan (zona eta arlo askori buruzkoak).

Ona izango litzateke, zalantzarik gabe, oinarritzko zenbait alderdiri erantzun zehatza eman ahal izatea, esate baterako, iaz Arabara sasoikako zenbat langile edo zenbat familia joan ziren, edo azken kanpainan lana zenbat pertsonak aurkitu zuten... Eta, egingeginean ere, zailtasunak eta zehaztu gabeko gauzak asko direla jakin arren, kuantifikatze horietara hurbiltzeko ahalegina egingo dugu, datu eta iturri erabilgarri guztiez baliatuz. Nolanahi ere, lortu dugun informazioa nahiko adierazgarria da, gure ustez, oinarritzko arazoak aztertzeko, beharrianak detektatzeko eta errealitatera egokituriko hobekuntza proposamenak egiteko, horiexek baitira txosten honen oinarritzko helburuak.

1.1 Kokalekua eta kuantifikazioa

Pertsona horiek nahiko pilatuta daude **herri jakinen inguruan**. Horretan zenbait faktorek dute eragina. Horrela, esate baterako:

- nekazaritza ustiakuntzen kopurua, halako laboreetarako erabiltzen den luraren azalera, eta beraz, herri batean edo bestean dagoen sasoirako lan eskaintza (lana duten herrietan);
- baliabide jakinen erabilgarritasuna eta banaketa geografikoa, adibidez, aterpetxeena edo kanpaldietarako zonena (horietan zerbitzu batzuk daude edo ezarri dira);
- aurreko urteetako ohiturak, esperientziak eta inertiak (aurreko kanpainetakoak)...

Jakina, sasoiakako langileen presentzia ez da berdina Eltziegion eta Paganosen, Alaizan eta Gaceon, Bernedon eta Peñacerradan. Hala eta guztiz ere, egokiagoa da zonei buruz hitz egitea, biztanle guneei buruz baino. Egin-eginean ere, familia bat zenbait astetan herri jakinean finkatzeak ez du beti esan nahi denboraaldi horretan kasuan kasuko herriko ustiakuntzetan edo bertako nekazariarentzat lan egingo duenik; sarritan, leku horietatik inguruetako beste herri edo zona batzuetara joaten dira lan egitera, uztaren berezko erritmoari jarraituz (Arabako Errioxan, esate baterako, beheko zonetatik goikoetarantz). Administrazio mugak ere ez dira oztopoak izaten lekualdatzeetarako. Izan ere, ikerturiko zonek berezko jarraitasuna dute Nafarroako, Errioxako edo Burgoseko (Treviño) beste zona batzuetan.

Ikuspegi horretatik, lan honetarako, **ezaugarri bereziak dituzten bi zona** bereiztu behar dira gutxienez (ikusi erantzitako mapa):

- Mahats-bilketaren zona (Arabako Errioxa).
- Patataren zona (Arabako Mendiko eta Lautadako udalerriak, batik bat).

1. mapa: Arabako mapa, mahatsa eta patata biltzeko zonak adierazten dituen



Izan ere, sasoikako nekazaritza lan guztia ez da zona edo jarduera horietan oinarritzen. Beste eskualde batzuetan (adibidez, Aialan, txakolinerako mahatsa biltzen) edo beste lan batzuetan (letxua, eskarola eta brokolia biltzen) ere ibiltzen dira sasoikako langileak. Gainera, Arabako Errioxan sasoikako langileak gero eta sarriago kontratatzen dira, urtaro desberdinetan, mahatsa zaintzeko beste lan batzuetarako (mozketa, espergura edo desnietea). Baina, behintzat orain arte, sasoikako lanaren eta lan horren arazoerik zatirik handiena uzta biltzeko garaian eta bi zona horietan pilatu da, eta horiek ezaugarri bereziak dituzte.

Horrela, sasoikako lanari dagokionez, **Arabako Errioxaren ezaugarriak** honako hauek dira:

- sasoikako lan bolumen gero eta handiagoa eskaintzea, hedatzen ari den nekazaritza sektore batean, azken urteotan inbertsio gaitasun handia eta irabazi garrantzitsuak izan dituen sektore batean;
- desberdintasun handiko enpresa egitura edukitzea; horren barruan, enpresa handiak (batzuek sasoikako langileak jatorrian kontratatzeko bolumen oso handiak eta bizilekurako azpiegiturak) eta familiako ustiakuntzak, eta horiek uzta hiru edo lau egunetan bil dezakete, talde txiki baten laguntzarekin edo halakorik gabe.
- mahats-bilketaren lan osoa aldi laburrean pilatzea (gehienetan hiru edo lau astetan, produkzioaren, urteko egoera klimatologikoaren edo upategietako eskarien arabera); hala eta guztiz ere, lehen esan dugunez, sasoikako langileak gero eta sarriago erabiltzen dira beste lan batzuetarako, beste urtaro batzuetan (desnietea, inausketa, espergura) ...

Konparazioa eginez, **patata biltzeko zonek** (ereiteko edo kontsumorako) gero eta sasoikako lan gutxiago eskaintzen dute (mekanizazioaren eta sektorea egonkortzearen ondorioz), famili ustiakuntzetan, inbertsiorako eta azpiegiturak sortzeko gaitasun txikiarekin...

Horrenbestez, azken urteotan ikusitako bilakaera, sasoikako lanaren bolumena, beharrianak, eta erantzuteko gaitasuna ez dira berdinak zona guztietan. Hori, segurutik, kontuan hartu beharko da erakunde mailako ekimenak egituratzeko orduan.

Ez dira sasoikako biztanleriaren “zentsu” orokorrak egiten. Egin-eginean ere, sasoikako biztanleak direnez, ez dira inguruetakoa udalerrietan erroldatzen. Hala ere, **kuantifikatze partzialak** eta adierazleak daude, eta, horiei esker, herri jakinetan pilatzeko joera dagoela esan daiteke, eta zifrak ere eskaintzeko aukera dago. Hona hemen hurbiltze batzuk, azken kanpainako edo, zenbaitetan, aurreko kanpainako datuekin egindakoak, iturri desberdinak erabiliz:

- Galdeketa jaso duten udalerriek eskaintako datuen arabera (txosten honetako III. eranskinean jasotako galdeketa), azken kanpainan, sasoikako langileen presentziarik handiena honako udalerrri hauetan egon da: Baños de Ebron (700), Elvillarren (250), Lantziegon (200), Navaridasen (250) edo Villabuena de Álavan (200), Arabako Errioxan, eta, neurri txikiagoan, Arrazua-Ubarrundian (50), Bernedon (43), Iruraiz-Gaunan (61) edo San Millánen (50), beste eskualdeetan. (6.1 eta 6.2 taulak edo IV. eta V. eranskinak lortutako erantzunekin).

- Hezilan eta Era Berri elkarteek egindako “zentsuen” arabera (gizarte edota hezkuntza mailako programak egiten dituzte), familien eta adin txikikoen ezarkuntza nagusiak honako udalerrri hauetan egon dira: Eltziego (301 pertsona eta 87 ume) eta Lantziego (213 pertsona eta 51 ume), Arabako Errioxan; beste zona batzuetan, berriz, Bernedon (12 familia eta 32 ume), Alaizan edo Guereñun (3.8, 3.13 eta 3.2. taulak)
- Arartekoaren langileek azken kanpaina hauetan zonara egindako bisitaldietan ikusi dutenez, ezarkuntza edo kanpaldi ugarietak eta “ikusgarrienak” herriotan egin dira: Oion (azken urte honetan) Elvillar (iaz), Eltziego (1998ra arte, kanpaldiko zona birgaitzen zen bitartean) edo Albaina (Treviño). (Ikusi aurreko urteotako txosten arruntak.)
- Adierazletzat sasoikako familietako umeen eskolatzea erabiliz gero, azken urteko daturik adierazgarrienetariko batzuk hauexek dira (2001):
 - Mahats, bilketaren zonan, Eltziegoko (41 ume), Oioneko (41), Lantziegoko (39) eta Biasteriko (38) ikastetxeetan eskolatzen dira; Eltziego-Lantziego zonan “zentsaturiko” umeak 298 izan dira, 1.093 kideko 81 familiatan. (4.3, 4.4. eta 4.5 taulak)
 - Patataren zonan, Kanpezun, Maeztun eta Agurainen eskolatzen dira: guztira, 45 ume eskolatu dira, eta, elkarteek egindako “zentsuetan” ikusten denez (egindako bisitaldien arabera), gutxienez 126 ume daude 55 familiatan. (3.2, 3.3 eta 4.1. tauletan)

Ikusten denez, datu guztiak partzialak dira (ezagutzen denari eta aztertutakoari buruzkoak); horrenbestez, zifrak “gutxienez x pertsona” gisa hartu behar dira. Beste alde batetik, datu partzialak izan arren, baliozkoak dira, beharizanak non pilatzen diren eta, beraz, erantzunak nola antola daitezkeen hobeto jakiteko.

Arabako Errioxako sasoikako langileen presentziari buruzko **kuantifikatze orokorra egiteko**, UAGAk lortutako datuak erabil daitezke, hain zuzen ere, “sasoikako lan beharizanak” deritzonari buruz zonako nekazariei egindako inkestan lortutako datuak; datu horiek “Arabako Errioxako Sasoikako Lanari buruzko Ikerketa” izenekoan bilduta daude. 457 nekazarik emandako erantzunen arabera (inkesta egiteko aukeratu diren famili ustiakuntzen 888 titularren artekoak), Arabako Errioxako mahats-bilketaren azken kanpainen sasoikako 4.153 langile behar dira, denbora aldi aldagarrietarako (egun gutxi batzuetatik 15 egun baino gehiagora arte). Eskulanaren beharizanen zifra 6.377 kontratazioetara iristen da, baldin eta, mahats bilketa ez ezik, beste lan batzuk ere kontuan hartzen badira, esate baterako, desnietea edo espergura.

Hala eta guztiz ere, datu horiek kontuz erabili behar dira: alde batetik, “sasoikako langileei” buruzkoak dira (horiek familiekin etor daitezke, eta beraz, zonan pertsona gehiago egongo da; beste alde batetik, pertsona berberak egun batzuetan ustiakuntza batean eta beste zenbait egunetan beste batean egin dezake lan (horrela, “presentzi kopurua murriztu egiten da). Halaber, ez da ahaztu behar UAGAk bildutako datuetan errealitatearen zati bat baino ez dela jasotzen: nekazari txikiena eta famili ustiakuntzena (888), eta datuetatik kanpo gelditzen dira zonako upategi handiak, eta horiek ere sasoikako langile kopuru handia erabiltzen dute.

Irizpide murriztaile horren arabera, UAGAk kontratazioei dagokienez (Gizarte Segurantzako altak eta baxak) azken urteko mahats-bilketan (2001) egindako datuen

ustiakuntzak 5.596 kontratazioko zifra eskaintzen du; horiek zonako 502 nekazarik egin dizkiete 4.730 pertsonari.

Patata biltzeko zonan ere, azken urtean, Cáritasek datuen ustiakuntza txikia egin du, eta datuok, berriz Aguraingo eta Kanpezuko Nekazaritzako Eskualde Bulegoetan aurkeztutako matrikula liburuetan jasota daude (2.7 eta 2.8 taulak). Hala eta guztiz ere, kasu hauetan, aztertutako datuak egindako kontratazio guztien zati bati buruzkoak baino ez dira (NEBetan eta ez beste leku batzuetan tramitaturiko altak edo baxak).

Ondoriotzat, azken urteotan bildutako datuak aintzat hartuta, esan daiteke Arabako Errioxan mahats-bilketarako kontrataturiko sasoikako langileen kopurua 8.000 pertsona ingurukoa dela. Gainera, azken urteotan patata biltzera etorritako taldea gutxienez 400-500 pertsonak osatzen dute.

1.2 Sasoikako langileen ezaugarri batzuk

Errealitatea “laburbiltzeko” eta sinplifikatzeko kategoriak ezartzeko eta sailkapenak egiteko joera betidanik izan du gizakiak. Eta, behintzat kasu batzuetan, lagungarria da errealitatean eragina izan nahi duten erabakiak eta jarduketak ondo aukeratzeko. Kasu honetan, baliozkoa izan daiteke beharrianak hobeto ezagutzeko eta erantzun egokiagoak emateko. Errealitatea askoz ere aberatsagoa, konplexuagoa eta anitzagoa da, hala eta guztiz ere, edozein sinplifikatze edo laburbiltze baino, nahiz eta hori erabilgarria eta egokia izan.

Hobekuntza beharrianak eta aukerak aztertzeko ikuspegi honetatik begiratura, sasoikako biztanleek nabarmendu beharreko ezaugarri batzuk dituzte. Jakina, talde horren barruan, beste edozein taldetan bezala, era askotako egoerak daude, eta horiek bertan aztertu nahi ditugun alderdiak baldintzatzen dituzte: lan aukerak nahiz baldintzak, pertsonen edo familien bizileku beharrianak, eskolatze beharrianak, gizarteratzeko aukerak edo baztertuta gelditzeko arriskuak...

Agian, horri dagokionez, **lehenengo bereiztea familiarekin edo bakarrik etortzearen araberakoa izan daiteke.**

Sasoikako familiek aztertutako zonetan duten presentziari buruzko datu batzuk eman ditugu. Urte askotan finkaturiko jarduera bat da: urtero Albainan kanpaldia egiten zuten ijitoen familiak, esate baterako, hogeitertan baino gehiagotan etorri dira patata biltzera, eta hori ez da salbuespenezko kasua. Gainera, azken urteotan ez dirudi behera egin duenik; aldiz, zona batzuetan gora egin du. Oro har, familia handiak izaten dira (kide ugariak eta elkarrekiko lotura estukoak); asko ijitoak edo portugaldar jatorrikoak izaten dira; Arabara joan eta, gero, jatorrizko herrietara itzultzen dira, edo Araba euren sasoikako nekazaritza lanen zirkuituan sartzen dute (fruten eta nekazaritzako beste produktu batzuen bilketa, beste zenbait lekutan).

Hurrengo taulan, Eltziego eta Lantziego zonetan asken kanpainan “zentsaturiko” 81 familiei buruzko datuak jaso ditugu. Horrela, adibidez, jatorrizko lekuen aniztasuna, Portugaletik iritsitako familien proportzioa (guztizkoaren % 22) edo kide ugariak izatea (famili unitate bakoitzeko 13 kide batez beste).

1.1 taula: Eltziego eta Lantziego zonetan zentsaturiko sasoikako langileen famili jatorria, 2001. urtea

JATORRIA	FAMILI KOPURUA	PERTSONA KOPURUA	FAMILIETAN ZENTSATURIKO PERTSONA GUZTIEN %
PORTUGAL	18	229	% 22
GAZTELA ETA LEON	18	203	% 19
GALIZIA	6	120	% 11
GAZTELA-MANTXA	7	89	% 8
NAFARROA	5	72	% 7
ASTURIAS	5	69	% 7
MADRIL	6	58	% 6
KATALUNIA	3	46	% 4
ARAGOI	3	24	% 2
VALENTZIAKO ERKID.	2	24	% 2
ANDALUZIA	1	22	% 2
ERRIOXA	1	7	% 1
EUSKAL AUT. ERKID.	5	66	% 6
MAROKO	1	20	% 2
GUZTIRA	81	1049 ⁽¹⁾	% 100

⁽¹⁾ Hezilanek zonan zentsaturiko pertsona kopurua 1.540koa izan da. 1.049 pertsonako datua famili taldeetako pertsonen dagokie.

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001, Rioja alavesa)

Jakina, horien kasuan, txosten honetan jasotako ezarkuntzen eta bizilekuen arazoetariko asko larriagotu egiten dira, eta gainera, sasoikako langileen sektore honetan, seme-alaben eskolatzeari loturiko arazoak ere badaude. Baina, beste alde batetik, familian etorrita, errazago aurkitzen da lana (talde osaketa), eta horrela, familiek diru-sarrera handiagoak dituzte (famili unitateko kide batzuen aldi bereko lana); horrek, halaber, gehiegikerien arriskuak murrizten ditu (antolatutako beste talde batzuei dagokienez), eta, era berean, horrela famili harremanak mantendu eta zamak kideen artean banatzen dira (otorduen prestakuntza, umeen zaintza, arroparen garbiketa)...

Segurutzik, "hobari" horiek eta beste batzuk kontuan hartuta, langileak gero eta gehiago iristen dira familian, eta gainera, dirudienez, etorkizunean ere joera horixe egongo da, hariak eta alderdi batzuk aldatu arte (alderdi kulturalak eta lan merkatuarenak).

Zenbait urtetan leku batzuetan jasotako datuek aditzera ematen dutenez (bilakaera ezagutzeko aukera ematen duten datuak), ohitura hori mantendu egin da kanpaina batetik bestera, eta joera horrek ez du beherakadarik izan. Ikusi, esate baterako, Eltziego eta Lantziego zonako azken urteotako konparazio datuak (1.2 eta 1.3 taulak). Urteen arteko desberdintasun batzuk kanpaina bakoitzaren ezaugarrien arabera dira (lan gehiago edo gutxiago; mahats-bilketaren aldi luzeagoa edo laburragoa); beste batzuk, segurutzik, datuak biltzeko irizpideen eraginezkoak dira (famili unitateetat zer hartzen den); baina, oro har, aztertutako bi zonetan, urte batetik bestera, famili unitateetan sartutako 1.000 pertsona eta 300 ume inguru zenbatzen dira.

1.2 taula: Eltziego zonako sasoikako familien presentzian ikusitako bilakaera⁽¹⁾, azken bost kanpainetan bildutako datuen arabera (1997-2001)

KANP.	ZENTSAT. FAMILIA GUZTIAK	PERTS. GUZTIAK	ZENTSAT. ADIN TXIK.	ESKOLATURIKO ADIN TXIKIKOAK	B. BESTEKO EGONALDIA (EGUNAK)
1997	61	423	171	107	17
1998	55	542	162	74	20
1999	49	320	117	50	11
2000	86	664	239	110	19
2001	39	560	156	67	15
B. BEST.	58	502	169	82	16-17

⁽¹⁾ Zona honetan Eltziego, Villabuena, Samaniego, Baños, Navaridas, Leza eta Párganos herriak sartu dira.

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001, Rioja alavesa. Geuk landuta)

1.3 taula: Lantziego zonako sasoikako familien presentzian ikusitako bilakaera⁽¹⁾, azken bost kanpainetan bildutako datuen arabera (2000-2001)

KANP.	ZENTSAT. FAMILIA GUZTIAK	PERTS. GUZTIAK	ZENTSAT. ADIN TXIK.	ESKOLATURIKO ADIN TXIKIKOAK	B. BESTEKO EGONALDIA (EGUNAK)
2000	69	533	168	66	20
2001	39 eta 5 taldeak	533	142	51	13

⁽¹⁾ Zona honen barruan Lantziego, Kripan, Viñaspre, Yécora, Elvillar, Lapuebla de Labarca eta Biasteri herriak sartu dira.

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001)

Lan bila familiarik gabe iristen direnen artean, azken urteotan, gero eta handiagoa da **atzerriko pertsonen presentzia**, batez ere Magrebeko herrietako pertsonena. Joera hori argi eta garbi ikusten da, esaterako, aterpetxeak erabiltzeari buruzko datuetan edo informazio bulegoetan jasotako kontsultetan (adibidez, txosten honetako 2.6 eta 3.3.a) ataletan eskainitako datuak). Zenbaitetan, hizkuntza ez jakiteari, laguntzarik ez edukitzeari eta antolatzeke zailtasunei, administrazio egoeraren eraginezko arazoak gehitzen zaizkie: “paperik” ez edukitzea (lan egiteko baimena), eta, horren eraginez legezko kontratazioa ezinezkoa da. Jakina, halako kasuetan, babesik ezako egoera berezia dago, kontraesanez eta arriskuz betetako egoera, eta batzuetan, horri ezin izaten zaizkio soluzioak edo erantzun gokiak aurkitu, oraingo lege eremuaren barruan.

Zalantzarik gabe, kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk ere badira, esate baterako, adina edo generoa. **Umeen egoera** berezia zehatz aztertuko dugu, eskolatzeari buruzko 4. kapituluan.

Sasoikako **emakumeen egoera** bereziari dagokionez, ez dago datu askorik, baina informazio adierazgarri batzuk ditugu. Adibidez:

- mahats-bilketara bakarrik edo taldeka iristen diren emakumeak gutxi dira, baina familian asko etortzen dira; emakumeen proportzioa (eta famili taldeena ere bai) oso handia da, patata biltzeko zonetan;

- emakume horietako askok famili unitateko beste kide batzuekin batera egiten dute lan nekazaritza lanetan (ditugun datuekin ez da erraza zenbat emakume dabilizan eta zein baldintzatan jakitea);
- beste emakume batzuk (umeak eta “amonak” ere barne), lanaldian, ezarkuntzetan eta bizilekuetan gelditzen dira umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten eta janaria prestatzen;
- bizilekuen baldintzen ondorioz (ur beroa edukitzea hala ez edukitzea, komunak edo sukaldea edukitzea ala ez edukitzea, aparatu elektronikoa erabiltzeko aukera egotea...), halako lanak errazago edo nekezago egiten dira, eta horrek ondorioak izan ditzake emakumeen osasunean; faktore hori, batez ere, berez ere zailak diren lanok egiteaz gain, mahatsa edo patata biltzeko lanak ere egiten dituzten emakumeei aplikatu behar zaie.

Halako egoerak erraz ikusteko modukoak dira, lan egiteko lekuetara edo ezarkuntzetara joanez gero. Hala eta guztiz ere, datuetan nekez adierazten dira.

Laburbiltzeko, beharrian desberdinen ikuspegitik, esan daiteke Arabara etorritako sasoikako biztanlerian gutxienez honako talde hauek bereizten direla:

- ijitoen edo portugaldarren famili unitateak; presentzia handia dute mahats-bilketako zona jakinetan, eta are handiagoa, proportzioari dagokionez, patata biltzeko zonan; talde honen barruan:
 - eskolatzeko adinean dauden umeen taldea;
 - familiarekin batera iritsitako emakumeen taldea;
- lan bila familiarik gabe iritsitako pertsonak eta taldeak, aurretiazko kontraturik gabeak; eta talde horren barruan:
 - atzerriko inmigranteak;
- jatorriko lekuan kontraturiko taldeak, bai enpresa batek edo bai nekazaritzako talderen baten bitartez kontraturikoak.

Desberdintasun horietariko batzuk argiago ikusiko dira hurrengo kapituluetan, horietan jorraturiko gaietarako bakoitza aztertzen dugunean. Gainera, horietan eskainitako datuek elementu berriak emango dizkigute, hemen planteatu ez diren alderdiei buruz, esate baterako, sasoikako pertsonen jatorriari, horien aurretiazko lanei edo gure lurraldeko lanak egin ondoren aukeratzen dituzten hurrengo lekuei buruz.

1.3 Sasoikako lana Arabako Errioxan

Datu guztiek agerian jartzen dutenez, **Arabako sasoikako nekazaritza lanik gehiena Arabako Errioxan pilatzen da.** Horrenbestez, oso garrantzitsua da eskualde horretako sasoikako lanaren errealitatea ondo ezagutzea eta aztertzea.

2001ean INEMen eta UAGAn arteko hitzarmen baten ondorioz, azken horrek **ikerketa sakona** sustatu zuen, zona horri buruz, “Nekazaritza sektoreko eskulan beharrianak” deritzonari buruzko inkesta eginez. 888 ardo ustiakuntzen lagina aukeratu (zona horretako famili ustiakuntza ia guztiak) eta titularrei inkesta egin zitzaion. Datu-bilketa mahats-bilketaren kanpaina hasi baino apur bat lehenago egin zen, eta 457 pertsonari egin zitzaion, hau da, hasierako laginaren erdiari. Lortutako datuak “Arabako Errioxako

Sasoikako Lanari buruzko Ikerketa” izeneko agirian adierazi dira; 2002ko urtarrileko agiria da eta UAGAk bidali digu, geuk eskabidea egin ondoren.

Hemen (baita beste atal batzuetan ere) ikerketa horretako datu batzuk eskaintzen ditugu, errealitatea hobeto edo sakonago ezagutzeko eta txosten honetako helburuak lortu ahal izateko. Gogoratu behar da datuak 457 ustiakuntzari buruzkoak direla (eta ez aukeraturiko 888 ustiakuntzei buruzkoak) eta iturria, kasu guztietan, ustiakuntzaren nekazari titularra bera dela.

Ustiakuntzen neurriari eta mahatsetarako erabilitako azalera proportzioari dagokionez, jasotako erantzunen arabera, ustiakuntza nahiko txikiak direla esan daiteke (% 60 15ha.tik beherakoak; % 40 10 ha.tik beherakoak), eta azalera erabilgarrienaren zatirik handienean mahatsa laboratzen dutela (15 ha.tik beherakoetan, ustiakuntza guztien % 78ak azalera osoa erabiltzen du labore horretarako). Datu horiek ondoko bi tauletan agertzen dira hobeto azalduta:

1.4 taula: Arabako Errioxan aztertuturiko lagineko familien ustiakuntzen neurria (2001)

	USTIAKUNTZA KOP.	%
10 ha. baino gutxiago	182	% 39,82
10 eta 15 ha. bitartean	91	% 19,91
15 eta 20 ha. bitartean	52	% 11,38
20 ha. baino gehiago	85	% 18,60
Zehaztu barik	47	% 10,28
GUZTIRA	457	% 100,00

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporeroismo en Rioja alavesa)

1.5 taula: Mahatsetarako azalera, Arabako Errioxan aztertuturiko lagineko ustiakuntzetan (2001)

MAHATSETARAKO AZALERAREN PROPORTZIOA	457 USTIAKUNTZEN GUZTIZKOA		15 ha.tik BEHERAKO USTIAKUNTZETAN	
	(ustiakuntza kopurua)	%	(ustiakuntza kopurua)	%
% 50 baino gutxiago	46	% 10,07	9	% 3,30
% 50 eta % 75 bitartean	47	% 10,28	19	% 6,96
% 75 eta % 99,9 bitart.	48	% 10,50	31	% 11,36
% 100	265	% 57,99	214	% 78,38
Zehaztu barik	51	% 11,16	0	% 0
USTIAKUNTZEN GUZTIZKOA	457	% 100	273	% 100

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporeroismo en Rioja alavesa. Geuk landuta)

Lurrik gehienak nekazarienak dira: % 72, inkestako datuen arabera, eta errentaturiko lurren ehuneko % 24 da, eta beste araubide batzuetan dagoen proportzioa % 4 (komunala, partzuergoa...).

Urteko zatirik handienean, ustiakuntzen erdian baino gehiagoan, titularrak soilik egiten du lan, eta ez da kontrataziorik edo beste pertsona batzuen

laguntzarik behar. Inkestaturiko ustiakuntzarik gehienak (% 84) pertsona batek edo bik osatzen dituzte, hurrengo taulan ikusten denez:

1.6 taula: Ustiakuntza bakoitzeko enplegu egonkorren kopurua, Arabako Errioxako 457 ustiakuntzako laginean (2001)


	USTIAKUNTZA K.	%
Titularra soilik lanean	237	% 51,86
Beste pertsona batzuk lanean	220	% 48,14
persona 1	145	% 31,73
2 pertsona	47	% 10,28
3 pertsona	21	% 4,60
4 pertsona	6	% 1,31
6 pertsona	1	% 0,22
Inkestan kontuan harturiko ustiakuntzetan lanean dabilen pertsona kopurua.....	569	
Ustiakuntza bakoitzeko langile kopuruaren batez bestekoa.....	1,25	

(Iturria: UAGA. Estudio sobre Temporeroismo en Rioja alavesa)

Aurten langile bat baino gehiago izan duten kasu guztien % 85ean, langile hori titularraren familiakoa da: seme-alabak (% 33), ezkontidea (% 23), neba-arrebak (% 14), gurasoak (% 8) edo familiako beste kide batzuk (% 7). Horrenbestez, familiako ustiakuntzak dira argi eta garbi.

Hala eta guztiz ere, **ustiakuntza horiek, lan batzuk egiteko garaian, batez ere mahats-bilketaren sasoian, beste langile batzuk edukitzeko beharrizan handia izaten dute.** Inkestako datuen arabera, inkestaturiko 457 ustiakuntzetatik 446k (hau da, ia % 98) familiatik kanpoko eskulana behar izaten dute; halakorik behar ez dutenak 11 ustiakuntza baino ez dira. Eta, gainera, kasurik gehienetan (% 88), beharrizan horiek sasoikako langileak kontratatuz betetzen dira, guztiz edo neurri batean, hurrengo grafikoan ikusten denez.

1. grafikoa: Kanpainetako aparteko eskulan beharrizana eta mota (Arabako Errioxako 457 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)



(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporeroismo en Rioja alavesa. Geuk landuta)

Sasoikako langileen kontrataziorik handiena mahats-bilketak behar izan du beti, baita gaur egun ere; hala eta guztiz ere, datuetan ikusten denez, **pertsona horiek orain beste lan batzuetarako ere kontratatzeko joera dago, esate baterako, inausketarako, espergurarako edo desnietarako** (ikusitako taula).

1.7 taula: Aparteko eskulanaren kontratazioa, Arabako Errioxako kanpainetan (457 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)

KANPAINAK	USTIAKUNTZA KOPURUA	%	KONTRATAT. LANGILERIA	%
Mahats-bilketa	390	% 85,34	4.153	% 65,12
Inausketa	51	% 11,16	174	% 2,72
Espergura	127	% 27,79	813	% 12,74
Desnietea	174	% 38,07	1.151	% 18,04
Beste batzuk	19	% 4,16	86	% 1,34
GUZTIRA	-	-	6.377	% 100

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporeroismo en Rioja alavesa)

Horrenbestez, Arabako Errioxako familiako 457 ustiakuntzen nekazari titularrek emandako datuen arabera, 2001eko kanpainetan, 6.000 pertsonako sasoikako eskulana behar izan da, eta mahats-bilketarako bakarrik, berriz, sasoikako 4.000 langile behar izan dira.

Datu horiek Arabako Errioxako nekazaritza ustiakuntza guztien multzora (900 inguru familiakoak) edo zona horretan ardo-produkzioan diharduten lurren multzora (12.000 ha. inguru) aplikatuta, eskulan beharizanak bikoiztu egingo lirateke, gutxi gorabehera: mahats-bilketarako sasoikako langileen 8.000 kontratazio, eta 12.000 baino gehiago, mahatsa zaintzeari eta biltzeari lotutako lanen multzorako. Konparaziorako datutzat, kontuan hartu behar da Arabako Errioxan erroldaturiko biztanleria osoa ez dela 10.000 biztanletara iristen (9.940 biztanle, 1999-12-31ko datuetan).

2. SASOIKAKO LANGILEEN KONTRATAZIOA ETA ARAZOAK

Arabian sasoikako langileak egotea, argi eta garbi beharizan ekonomiko baten eraginezkoa da: zona horretako nekazariak, uztak aldi laburrean bildu ahal izateko, inguruko baliabideen artean aurkitzea gero eta zailagoa den eskulana behar dute; sasoikako langileak, beste alde batetik, lan egonkorrik ez dutenez, bertara joaten dira, zonako lanarekin diru-sarrera batzuk lortzeko asmoz, bertan nekazaritzako beste zona batzuen aldean soldata handiagoak ordaintzen baitira. Lan kontratua interes horien topalekutat hartzen da.

Horrenbestez, lanari lotutako arloa da, eta beraz, halakotzat aztertu beharko dugu. Hemen, aztertutako errealitateari dagokionez oinarritzotzat har daitezkeen alderdi batzuk baino ez ditugu ikusiko:

- sasoikako lanaren kuantifikatze ekonomikoa;
- azpikontratazioaren arazoa eta bitartekarien eskuhartzea;
- jatorrian kontratatzeke esperientziak;
- nekazaritza hitzarmenik ez egotea eta horren komenigarritasuna;
- ikuskapen eta kontrol jarduketak;
- informazio bulegoen zeregina, bitartekarizat edo enplegua emateko eragiletzat.

2.1 Sasoikako lanaren kuantifikazio ekonomikoa

Arabako sasoikako lanaren kalkulu ekonomikoa egitea zaila eta arriskutsua da, aurreko kapituluaren egindako langileen kuantifikazioarekin gertatu den bezala. Hala eta guztiz ere, komenigarria da aste horietan soldatetan mugitzen den diru kopuruari buruzko kalkulua egitea; izan ere, segurutik, kopuru horien presentzia faktore erabakigarria da, beste batzuekin batera, mafien sorrera, bitartekarien eginkizuna eta azpikontratazioa bezalako jarduketan iraupena azaltzeko.

Kalkulu ekonomikoa egiteko prozedura erraza, beste alde batetik, kontratazio kopurua kontratazioko egunen batez bestekotik eta egun bakoitzeko batez besteko soldatatik bidertzea izan daiteke.

Horrela, esate baterako, Arabako Errioxako mahats-bilketarako, 8.000 kontratazio inguru kalkula daitezke, 8/10 egunerako eta 10.000 pta. ingururako (egun bakoitzeko batez besteko soldata). Zifra horien arabera, egun gutxi batzuetan, 800 milioi pezeta inguruko edo 5 milioi euro inguruko soldatak lortzen dira (8.000 x 10 x 10.000). Patataren zonan, zifra hori askoz ere txikiagoa da.

Izan ere, jornalak egokitzeko orduan jarduketa oso desberdinak daude: egun bakoitzeko kilo bakoitzeko, lan egindako ordu kopuruko... Baina, prozedura batari edo besteari jarraituta ere batez bestekoetan ez dago alde handiegirik, azken kanpainako datuetan ikusten denez, eta datuok hurrengo taulan jasota daude:

2.1 taula: Sasoikako lanaren soldatak, Arabako Errioxako azken kanpainan (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)

MODALITAT.	PREZIO BITARTEA	USTIAKUNTZA KOP.	B. BEST.
Soldata		192 (% 47,17)	9.127 pta
	9.000 pta baino gutxiago	77	
	9.000 eta 10.000 pta bitartean	91	
	10.000 pta baino gehiago	24	
Orduko	1.000 eta 1.300 pta bitartean	16 (% 3,93)	1.162 pta
Somara		189 (% 46,43)	7,47 pta/kg
	9 pta/kg baino gutxiago	59	
	9 eta 11 pta/kg bitartean	122	
	11 pta/kg baino gehiago	8	
ED/EE		10 (% 2,46)	

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporismo en Rioja alavesa)

Kalkulua egiteko beste prozedura bat, zalantzarik gabe fidagarriagoa, bildutako mahats kantitatean edo bildutako patataren tona kopuruan oinarritzea izango litzateke. Horrela, Arabako Errioxaren kasuan, azken bi kanpainetarako, abiapuntuko datutzat bildutako 97 milioi kilogramoko (2000. urtea) eta 77 milioi kilogramoko (2001. urtea) kantitateak erabil daitezke. Biltzaile batek, batez beste, egunero 1.000 kilo inguru biltzen baditu, lehenengo urtean egunero 97.000 soldata beharko ditu, eta bigarrenean 77.000; horrenbestez, hurrenez hurren, soldatetan, 970 eta 770 milioi pezeta beharko ditu.

Produktu horiek laboratzeko erabilitako azaleraren datuetan oinarrituz ere antzeko hurbiltzeak egin daitezke. Horrela, Arabako Foru Aldundiko Mahasgintza eta Enologia Zerbitzuko datuen arabera, Araban mahastietan landaturiko hektarea kopurua hamabi mila ingurukoa da (11.445 ha., 2000ko PAC deritzonak emandako datuen arabera). Gutxi gorabehera hektarea bakoitzeko zortzi soldata behar direla kontuan hartuta (mahatsa biltzeko), eguneko soldaten kopuru teorikoa 96.000koa izango da (91.560, PACak emandako datuaren arabera). Zifra horiekin, batez besteko soldata aplikatu ondoren, soldaten kontzeptuko bolumen ekonomikoa 900 eta 1.000 milioi pezeta ingurukoa izango da, mahats-bilketarako bakarrik.

Ikusten denez, kalkulu guztiak ez dira antzeko zifretara iristen. Zifra horietan, hala eta guztiz ere, ez dira jasotzen bilketaren aurreko beste lan batzuetarako soldatetan ordaindutako zenbatekoak. Arabako Errioxaren adibidearekin jarraituz, lehen esan dugunez, azken urteotan, sasoikako langileak beste lan batzuetarako kontratatze joera finkatu da, adibidez, mozketarako, espergurarako edo desnieterako, eta horrela, laneko egun kopuruak, eta beraz, soldaten kopuruak, gorakada nabaria dauka.

1.7. taulan, halako lanetarako kontraturiko langileei buruzko datuak eskaini dira, Arabako Errioxako 457 ustiakuntzako laginean (mahats-bilketatik kanpoko lanetarako kontraturiko sasoikako 2.224 langile). Hurrengo taulan, halako lanetarako beharrezko kontratazio egun kopuruari buruzko datu osagarriak agertzen dira, aipaturiko laginari dagokionez.

2.2 taula: Arabako Errioxako kanpainen iraupena (457 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)

EGUNAK	MAHATS-B.	%	INAU.	%	ESPERGURA	%	DESNIETEA	%	B. BATZ	%
1-6	146	37,44	13	25,49	72	56,69	88	50,57	11	57,89
7-9	117	30,00	10	19,61	28	22,05	42	24,14	1	5,26
10-14	101	25,90	9	17,65	15	11,81	33	18,97	2	10,53
15 edo g.	26	6,67	19	37,25	12	9,45	11	6,32	5	26,32
GUZT.	390		51		127		174		19	

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporeroismo en Rioja alavesa)

Txosten honen helburua ez da alderdi horretan sakontzea, hori beste txosten batzuen lana baita. Baina, gure ustez, interesgarria eta nahikoa da hurbiltze txikia egitea.

Datu guztiak agerian jartzen dutenez, sasoikako lanaren merkatuan, behintzat Arabako Errioxari dagokionez, beharizan gero eta handiagoa dago eta, soldaten kontzeptutan, diru kantitate gero eta handiagoak mugitzen dira. Horrenbestez, bitartekariak gero eta interes handiagoa dute horretan.

2.2 Azpikontratazioen arazoa

Azpikontratazioan, “taldeko buruaren” eginkizunak bereganatzen dituen pertsona batek ustiakuntza jakinaren mahats-bilketa hitzartzen du ahoz, baldintza jakinetan edo diru kantitate jakinaren truke; diru hori nekazariak ematen dio eta taldeko buruak bertako kideen artean banatzen du, zenbait kasutan inork kontrolatzen ez dituen agintekeriako irizpideak erabiliz.

Urte askotako tradizioko jarduera da, eta lanaren eta zonaren ezaugarri jakinetan euskarriturik dago. Horrela, esate baterako, nekazariari bere funtsezko arazoa konpontzen dio (uzta aldi laburrean biltzea, klimaren edo upategien eskariei aurre egiteko), eta horrela, beste ardurak batzuk kendu dizkio (behar dituen pertsonak aurkitzea; taldean lan eta bizikidetzaren giro egokia bermatzea; lekualdatze edo bizileku arazoak konpontzea edo eskuordetzea; ordaintzeko modua erraztea...).

Taldeak famili mailako loturak edo lotura etnikoak dituenean (sarri askotan, ijitoek osaturiko taldeetan), ez da arazorik sortzen: zenbateko osoa famili multzoaren diru-sarreratzat hartzen da, eta horrek aurretiazko irizpide bat edukitzen du finkatuta, zenbateko horren erabilerari edo banaketari buruz. Talde asko, hala eta guztiz ere, ez dira eskema horren arabera izaten, egoeraren arabera baizik: komenigarritasunaren ondorioz sortzen dira, hain zuzen ere, kontratazioa errazteko. Jakina, **baten egoera zenbat eta ahulagoa izan** (bakarrik bidaiatzea, laguntzarik ez edukitzea,

lan baimenik gabeko atzerritarra izatea, hizkuntza ez jakitea, zenbait egunetan lanik aurkitu ezinik ibiltzea...), **gehiagikeriak egoteko arriskua orduan eta handiagoa da.**

Azken urteotan sortutako egoera kontuan hartuta, esan daiteke kontratazioa kontrolatzen duten benetako mafiak daudela, behintzat leku batzuetan. Izan ere, pertsona batek hamar edo hamabi langileko taldea kontrolatzeaz gain, bitartekari batzuek talde askoren kontrola dute, eta, leku batzuetan, sarearen barruan edo bertan sartzeko prest egon ezean, ezinezkoa izaten da lanik aurkitzea. **Egoera hori oso larria da sasoikako langile portugaldarren kasuan,** bai mahats-bilketara datozenetan, bai zona horretan zenbait hilabetetan daudenetan (nekazaritzako beste lan batzuk eginez).

Beste alde batetik, bitartekariak nekazariaren eta langileen artean egiten duen zerbitzu tradizionala (kontratua lortzearen eta bermeak eskaintzearen ordez, soldataren zati bat hartzen du), zenbait kasutan, beste eginkizun batzuetara hedatu da: iristeko bidaia erraztea (adibidez, Portugaletik), taldeek bizitzeko lokalak alokatzea, lokal horietatik lantokietaraino eramatea, janaria ematea... Hori guztia, inolako kontrolik gabe. Kasuren batean, bitartekariak prostituziorako emakumeen zerbitzuak ere antolatu ditu, sasoikako langileekin soldataren kontura.

Hitzarmenik egon ezean, edo aipaturiko edozein prestaziori eratzikitzeko moduko kostuak ezartzeko araurik ez badago (adibidez, bizilekurako edo mantenerako), erraza da langileak jasoko duen benetako jornalean egongo diren ondorioak. **Sarritan, sasoikako langileak nekazariak bitartekariari emandako zenbatekoren erdia baino gutxiago hartuko du,** eta bitartekaria soldataren zatirik handienarekin gelditzen da.

Gainera, ordainketa lan guztia amaitu arte egiten ez denez, arriskuak oraindik ere handiagoak dira. Kasu oso gogorrek daude, adibidez, pertsona batek, zenbait eguneko lana egin ondoren, ordainketa eskatu baina dirurik ez jasotzea, eta gainera mehatxuak edo kolpeak jasotzea; edo bere dirua nori eskatu ez edukitzea, bitartekaria diru guztiarekin joan delako eta nekazariak hitzarturiko ordainketa eginda daukalako.

Halako egoeren ondorioz, azken kanpainetan gatazka batzuk egon dira. Salaketak ere egin dira, baina gutxi. Ezin da jakin egoera horiek salbuespenekoak diren ala ez, edo zein neurritan dauden hedaturik. Esperientziak agerian jartzen duenez, salaketa kopuru handia ezin da adierazle fidagarritzat erabili, horren hedapen txikiari dagokionez. Horrela, esate baterako, Arartekoaren langileek bisitaldiak egin eta eraginpeko pertsoneri (beti atzerritarrek) Ertzaintzara jotzeko eta egoera salatzeako esan dietenean, ezetz erantzun dute beti, honako arrazoi hau emanez: ez dut uste ezertarako balioko lukeenik; gainera, ez nuke beste kontraturik lortuko.

Egin-eginean ere, Biasteriko Ertzaintzaren Komisariak emandako datuen arabera, bertan azken urteotan halako jarduketei lotuta aurkeztu diren **salaketak** oso gutxi izan dira (jabetzaren aurkako delituen edo urratzeen edo zirkulazioko istripuen eraginez jasotakoak kontuan hartu barik):

- 1995. urtea: 1 erasoarengatik
- 1996. urtea: 1 erasoarengatik
1 kontratua ez betetzeagatik


- 1997. urtea: 2 erasoengatik
- 1998. urtea: 1 kontratua ez betetzeagatik
1 labanaz egindako erasoengatik
- 1999. urtea: 1 mehatxu eta irainengatik
- 2000. urtea: 1 pabiloia usurpatzeagatik
1 mehatxuengatik eta irainengatik
1 langileen eskubideak urratzeagatik
1 pertsona bat desagertzeagatik
- 2001. urtea: 1 umeen eskubideak urratzeagatik
1 lesioengatik
1 bortxagatik
1 pertsona bat desagertzeagatik

Azken urte honetan bideraturikoen artean, pertsonen aurkako 3 zenbatu dira: legez aurkako atxilotzetatik, lesioengatik eta mehatxuengatik.

Halako salaketa kopuru txikia egotea ez da harrigarria. Aztertutako egoeran, oso zaila da (edo ezinezkoa) sasoikako langileak edo nekazariak salaketa egiteko ausardia edukitzea, horrek ondorio oso kaltegarriak ekarri ahal dizkiolako. Baina gehiegikeriak egon badaude, eta gainera, talde batzuetan gero eta sarriago, eta testuinguruak horretarako aukera ematen du.

Azpikontrazioari lotutako jarduketan bolumenari edo hedapenari dagokionez, hurbiltze bakarra UAGAk Arabako Errioxan familiako ustiakuntzen nekazari titularrei egindako inkestaren bidezkoa da, sasoikako langileak erabiltzen dituzten nekazariei egindakoa. Grafikoan eta hurrengo taulan horiek ustiakuntzetara iristeko moduei (familiar, taldean, bakarrik) eta soldatak ordaintzeko moduei buruzko datuak agertzen dira laburbilduta.

2. grafikoa: Sasoikako langileek Arabako Errioxako ustiakuntzetara iristeko moduak (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)



(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa. Geuk landuta)

2.3 taula: Arabako Errioxan sasoikako lanaren soldatak ordaintzeko moduak (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)

SOLDATEN ORD.	EGUNERO	AMAITZEAN	GUZTIRA	%
Langileari	6	152	158	% 38,82
Taldeko buruari	5	113	118	% 28,99
Bitartekariari	1	74	75	% 18,43
Familiako buruari	5	49	54	% 13,27
Beste batzuk	0	2	2	% 0,49
GUZTIRA (%)	17 (% 4,18)	390 (% 95,82)	407	% 100

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa)

Inkestako datuetan ikusten denez:

- Familiakoak ez diren taldeetan (% 30) edo bakarrik (% 16) iritsitakoak asko dira. Segurutik, gehiegikeriak jasateko arriskurik gehien eurok dute.
- Ia kasu guztietan (% 96), soldatak ez dira ordaintzen mahatsa biltzeko lanak amaitu arte.
- Kasu guztien % 39an, nekazariak zuzen-zuzen ordaintzen dizkiete soldatak langileei. Kasu guztien % 60an, soldatak bitartekariaren bidez ordaintzen dira, eta bitartekari hori familiako burua (% 13), bitartekari hutsa (% 18) edo taldeko burua (% 29) izan daiteke.

Horrenbestez, tradizio eta hedapen handiko jarduketa da, eta nekez zuzentzeko modukoa. Hala eta guztiz ere, ondorio kaltegarri larriak ditu, batik bat sektorerik baztertuenetariko batzuentzat, horiek gero eta presentzia handiagoa baitute sasoikako lanean, eta beraz, premiazko eskuhartze egokia behar da.

Zalantzarik gabe, jatorrian egindako kontratazio kopurua handitzea, nekazaritza hitzarmena egotea, ikuskapen jarduketak ugaritzea edo lan poltsa batzuen kudeaketa zuzena (hurrengo ataletan aztertutako lau alderdi) lagungarriak izango dira aipaturiko gehiegikeriak edo, behintzat, horien ondoriorik kaltegarrienak murrizteko.

2.3 Jatorrizko kontratazioak

Sasoikako langileak jatorrian kontratatzea (hau da, euren jatorrizko herrietan) hedapen handiko jarduera da beste leku batzuetan, eta zonako enpresa bitibinikola handiek ere sarritan erabiltzen dute. Arabako Errioxan dauden upategi garrantzitsu batzuek bizileku bereziak dituzte sasoikako langileentzat, eta horiek jatorrian kontratatzeke kudeaketa gaitasuna ere badute, baita lan baldintzak negoziatzeko, joan-etorriko bidaiak antolatzeke eta langileen mantenuaz arduratzeko gaitasuna ere.

Formula honek hobari handiak ditu: azpikontratazioari lotutako arriskuak saihestez gain, erakundeen laguntzak erabiltzeko aukera ematen du, esate baterako, lekualdatze gastuetarako dirulaguntza.

Familiako ustiakuntzetan, hala eta guztiz ere, **jarduera hori ez dago oso hedatuta**. Aurreko urteetan familiari edo taldeari telefonoz deitzeko tradizioa badago, kasu askotan, bilketa lana bermatu ahal izateko. Baina ez da kontratazio bat.

Azken bi urteotan, UAGA sindikatuak langileak jatorrian kontratatzeke programa abiatu du, eta horrek zailtasun handiak ditu. UAGAk dioenez:

“Nekazariei eta sasoikako langileei, kanpainarako zerbitzu integrala eskaini nahi zaie; zerbitzu horrek eskulana bilatu, sasoikako langileen garraioa nahiz bizilekua bermatu eta kontratuen tramitazio administratiboa egiten du.

Zerbitzua Barruko Migrazioak Antolatzeke Lankidetzak Hitzarmenean oinarritzen da, sasoikako enpleguko kanpainetan; honako hauek sinatu dute: Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa, COAG-Landa Ekimena (UAGA barruan hartzen duen Estatuko koordinatzailea), Asaja, UGTko Lurreko Langileen Federazioa, CCOOko Landako Estatuko Federazioa eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa.”

Programaren helburu nagusiak hauexek dira:

- Sasoikako nekazaritza langileen kontratazioa eta lekualdatzea antolatzea.
- Lana eskaintzeko eta eskatzeko poltsa sortzea.
- Bizilekuak gaitzea (banakakoak eta taldekoak).
- Nekazaritza lanetara egokituriko lanbide heziketa erraztea.

Arazo nagusienetariko bat kudeaketa gaitasunean dago. Prozesu konplexua da eta giza azpiegitura nahiz azpiegitura materiala behar du; halaber, beharrezkoa da erakundeen eta administrazioen lankidetzak, programa bideragarria izateko, ikuspegi ekonomikotik eta materialetik.

2001ean, Arabako nekazaritza lanen multzoan, programa honetan 42 nekazarik hartu zuten parte, 348 kontratu egin ziren eta 1.975 lanalditan egin zen lan. Parte hartu zuten ustiakuntzak Arabako Errioxakoak (26) Lautadakoak (14) eta Aialakoak (2) izan ziren, eta, ondoko koadroan ikusten denez, kontrataziorik gehienak Arabako Errioxako mahats-bilketari lotutakoak izan ziren (258 kontratazio).

2.4 taula: Jatorrian kontratatzeke programa, UAGA, 2001eko kanpaina

KANPAINA	PARTE HARTZEN DUEN NEKAZARI KOPURUA	KONTRATU KOPURUA	BENETAKO LANALD.
Mahatsa. Espergura eta desniete kanpaina	10	50	204
Brokoliaren kanpaina	13	40	234
Patataren kanpaina	1	5	30
Mahats-bilketaren kanpaina –txakolina-	2	45	243
Mahats-bilketaren kanpaina –Arabako Errioxa-	16	208	1.264
KANPAINEAN GUZTIZKOA	42	348	1.975⁽¹⁾

⁽¹⁾ Datu batzuk aldagarriak dira, UAGAKo agiri batetik bestera. Hemen Arartekoari erantzunez aurkeztu direnak adierazi ditugu.

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerosismo agrario en Álava. Geuk landuta).

Kanpaina desberdinetako partaidetzak, modu konbinatuan, kontratatzen diren pertsonen lanaldi kopuru handiagoa eskaini nahi die. Horrela, azken urteko datuetan, programa horren bitartez kontratatutako pertsona kopurua 127koa izan zen, 15 taldetan antolatuta; horrek 2,7 kontratu egiten ditu, batez beste, eta 15,5 lanaldi, pertsona bakoitzeko. Kontratatutako pertsona ia guztiak Marokoarrak ziren eta nekazaritzako beste kanpaina batzuetatik iritsita zeuden.

Nekazariari programan parte hartzeko jarritako baldintzetariko bat bizileku egokia edukitzea zen: *“Burukoa, maindireak eta mantarrak edo zakuak dituen ohea, pertsona bakoitzarentzat; dutxa eta ur beroa duen komuna; sukalde osoa, mahai-tresnekin, mahaiarekin eta aulkiekin”*.

14 bizileku egon dira (6 etxe, 2 biltegi eta 6 garaje), eta UAGAk berak gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen direla bermatu du.

Esperientzian jasotako balorazioa, oro har, positiboa da. Sistema horren bidezko kontratazio bolumena oraindik ere txikia izan arren, aurrerakuntza nabaria egon da, aurreko urteari dagokionez. Gainera, apurka-apurka hedatzen joateko aukera dago (erantzun ezin izan den nekazarien eskaria dago), eta neurri zuzentzaileak edo osagarriak ere sar daitezke (bizileku komunitarioak sortu, kontratu gehiago egin, langileak Portugalen bilatu...).

Izan ere, kontratazio modalitate honek hobari handiak ditu eta erabakitasunez sustatu behar da. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu kontrataziorik gehienak oraindik ere beste bide batzuen bitartez egiten direla, ondoko taulan ikusten denez (Arabako Errioxako ustiakuntzen lagin bati buruzko taula).

2.5 taula: Sasoikako langileekin harremanetan jartzeko eta langileok kontratatze moduak, Arabako Errioxan (407 ustiakuntzako lagina, 2001. urtekoa)

HARREMANETARAKO MODUA	USTIAKUNTZA KOPURUA	%
Telefonoz (urtero pertsona berebereri)	178	43,73
Euren burua kanpainan eskaintzen duten langileak	118	28,99
Bitartekarien bidez	53	13,02
Jatorrian egindako kontratuen bitartez	7	1,71
Informazio Bulegoen bidez	4	0,98
Langileen bila jatorrira joanda	3	0,73
Ezagunen bitartez	27	6,63
Beste modu batzuk	14	3,44
ED/EE	3	0,73
GUZTIRA	407	100

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa)

2.4 Nekazaritza hitzarmen baten beharra

Arabán, sasoikako lan eta nekazaritzako lan handia duten beste leku batzuetan ez bezala, **ez dago nekazaritza hitzarmenik**.

Egin-eginean ere, hitzarmena egoteak ez du bermatzen egoeraren hobekuntzarik, eta, berez, ez du ekiditen jarduera jakinen jarraitasunik. Hala ere, alderdi guztientzako eremua argitzen du: nekazariantzat, sasoikako langileentzat, gizarte-eragileentzat, erakundeentzat...

Hemen aztertutako arazoetariko batzuk aipatutako hitzarmenetan sartzeko modukoak dira. Izan ere, sektoreko talde hitzarmen batzuetan (hurbileko lekuetako hitzarmenetan), esate baterako, kontratua egiten duenak sasoikako langileen bizilekuarekiko duen erantzukizuna sartzan da, edo halako bizilekuek eduki beharreko bizigarritasun baldintza egokiekiko erantzukizuna...

UAGAko kideek behin baino gehiagotan egindako adierazpenen arabera, dirudienez euren aldetik ez dago arazorik, sektorerako talde hitzarmena ezartzeko. **Azken urteotan ikusitako bilakaera kontuan hartuta, badirudi halako hitzarmenak ezinbestekoak direla**, eta gainera, oso erabilgarriak izan daitezke Araban nahiko garrantzitsua den sektore ekonomiko batentzat:

- nekazaritzako eta abeltzaintzako 3.000 ustiakuntza inguru, gehienak familiako ustiakuntza txikiak;
- urte osoan 4.700 pertsona dabilta horretan;
- inoren konturako langileak daude urte osoan (300 inguru), eta kanpaina desberdinetarako aldi baterako kontrataturiko askoz ere langile gehiago dago (segurutzat sasoikako 10.000 langile baino gehiago)...


2.5 Ikuskapen eta kontrol jarduketak

Zaila da estatistika ofizialetan sasoikako lanaren zer proportzio adierazten den eta ezkutuan zer zati gelditzen den (azpiko ekonomia) jakitea. Oro har, sektorean erantzukizuna dutenen iritziz, azken urteotan (informazio, sentsibilizazio, laguntza eta ikuskapen lanari esker), aurrerapauso handiak eman dira, halako kontratazioak "matrikula liburuetan" jasotzeari eta altak Gizarte Segurantzian jasotzeari dagokionez. Erantzukizuna dutenak, gainera, kezkatuak dabilta, matrikula liburuak ezabatzeak eta arau zorrotzagoak ezartzeak urte honetatik aurrera kontratuen tramitazioan izan ditzakeen ondorioengatik.

Inoren konturako nekazaritza araubidean ordaindutako lanaldiei buruzko datuak (azken bi kanpaina hauetako hilabete nagusi batzuetan), bestalde, hurrengo grafikoan adierazita daude:

3. grafikoa: Hileko lanaldiak, inoren konturako nekazaritza araubidean kotizatuak, 2000. eta 2001. urteak, Araba.

Lanaldi kotizatuak



(Iturria: Gobernuak Araban duen Azpiordezkaritza)

Datu horiek interpretatzeko, kontuan hartu behar da eskulanik gehien behar dituzten jarduerak (esate baterako espergura eta desnietea) maiatzaren erdialdetik ekainaren azkenera egiten direla; edo patataren eta, batez ere, mahatsaren bilketa irailaren erditik edo azkenetik urriaren azkenerraino egiten dela.

Lan horietariko batzuei dagokienez, txosten honetan datuak eta kalkuluak eskaintzen dira, benetan lan egindako lanaldi kopuruari edo lan bakoitza egiteko behar den langile kopuruari buruz. Datu horiek Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak eskainitako datuekin konparatuta ateratzen denez, ordaindutako lanaldiak segurutik ez dira iristen lan egindako lanaldi guztien erdira.

Lan Ikuskapenak sektore honetan azken kanpainetan egindako jarduketarik gehienak, hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren altarik ez egoteari buruzkoak dira: 144 jarduketa, guztizko 180 jarduketetatik, azken zazpi urteotan, ondoko taulan ikusten denez.

2.6 taula: Laneko Ikuskaritzak mahatsa biltzeko kanpainetan egindako jarduketak, 1995etik 2002ra

ARRAZOIAK	JARDUKETAK	GAK.	URRATZE AKTAK	AKTEN ZENBATEK.	LIKIDAZIO AKTAK	AKTEN ZENBAT.
Lana	13	3T ⁽¹⁾ 15T ⁽²⁾	1 2	3606,07 21035,43		
Segurt. eta Higienea	4	4H ⁽³⁾	1	1503,13		
Gizarte Segurantza	144	4S ⁽⁴⁾ 7S ⁽⁵⁾	1 2	301,00 601,04	1	66,69
Enplegua	18	13 E ⁽⁶⁾	1	3005,66		
Beste batzuk	1	1 V	1	4507,59		

⁽¹⁾ Adin txikiko lanari buruzkoa

⁽²⁾ Langileen lagapenari buruzkoa

⁽³⁾ Higiene baldintzei buruzkoa

⁽⁴⁾ Gizarte Segurantzaren aldirik ez egoteari buruzkoa

⁽⁵⁾ Gizarte Segurantza ez betetzeari buruzkoa

⁽⁶⁾ Enpleguko kontrolari buruzkoa

(Iturria: Gobernuak Araban duen Azpiordezkarrizta. Lan eta Gizarte Gaien Eremu Funtzionala)

2.6 Informazio bulegoak, enplegua lortzeko bitartekari edo laguntzaileak

Azken urteotan, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak Cáritasi emandako dirulaguntzekin egin diren programei esker, kanpainaren aldietan, “informazio bulego” batzuk ireki dira ikertutako zonetan. Horrela, azken urtean hiru bulego egon ziren irekita:

- Agurainekoa, Nekazaritzako Eskualde Bulegoan kokatua; irailaren 17tik urriaren 19ra bitartean irekita dago, eta dagoeneko lau urteko esperientzia dauka.
- Kanpezukoa, Nekazaritzako Eskualde Bulegoan kokatua; aurten ireki da lehenengoz.
- Biasterikoa, ardoaren antzinako Etxean kokatua; irailaren 13tik urriaren 31ra bitartean irekita dago.

Hiru bulego horietariko bakoitzak zerbitzua eman dio bere zonari, bai nekazariei eta bai sasoikako langileei. Horrela, Cáritasen 2001eko memorian adierazitakoaren arabera, nekazariei dagokienez honako helburu hauek daude:

- Sasoikako langileen kontrataziorako kontuan hartu beharreko legezko jarraibideei buruzko informazioa eta aholkua ematea.
- Lan poltsa erabiltzea, bulegoan sortutakoa, kanpainarako behar den eskulana eskaintzeko.
- Hezkuntza programari buruzko informazioa ematea, sasoikako langileen seme-alabak eskolatzeko.
- Kanpainaren garapenari buruz dituzten zalantza guztiak argitzea (lan baimenak, sasoikako langilearen beharrezko dokumentazioa).
- Iradokizunak eta ekarpenak biltzea.

Eta, sasoikako langileei dagokienez, helburuak honako hauek dira:

- Sasoikako langileari harrera duina egitea.
- Kanpaina honetako eta hurrengo kanpainetako lanari buruzko informazioa eta orientazioa ematea.
- Sasoikako langileak lan poltsan sartzea.
- Euren eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa ematea.
- Zonako zerbitzuen eta baliabideen berri ematea.

Memoria horretan datu asko eskaintzen dira, egindako jardueri eta bulego bakoitzak lortutako emaitzei buruz, lan bakoitzari dagokionez. Hemen, horietariko batean oinarrituko gara: **kontratazioak erraztea, lan poltsa sortuta**. Gainera, Agurainen eta Kanpezuren kasuetan, matrikula liburu batzuetatik ateratako datuak ere bilduko ditugu. Oinarritzko datuetariko batzuk hauexek dira:

a) Aguraineko informazio bulegoko lan poltsa (2001):

- Zonako nekazariak eskaturiko eskulana (sasoikako langileen eskabideak): 37
- Sasoikako langileek lan poltsari buruz egindako kontsultak: 136
- Lan poltsan izena emanda duten sasoikako langileak: 60
- Sasoikako langile horien ezaugarriak:
 - denak gizonak;
 - % 90 magrebiarrak: % 63 Marokoarrak; % 27 Aljeriarrak (iaz magrebiarren proportzioa % 67koa izan zen);
 - iritsitakoen % 75ek lan baimena zuten;
 - % 81 taldean iritsi ziren (familiakoak ez diren taldeak);
 - % 81 nekazaritza lanak egitera ohituta daude eta beste kanpaina batzuetatik iritsi dira (beste leku batzuetan fruta edota patata biltzetik...)

Nekazaritzako Eskualde Bulegoan (Aguraineko NEB) aurkeztutako matrikula liburuetan jasotako datuen ustiakuntzari dagokionez, kontratazioen banaketa hauxe ikusten da:

2.7 taula: Sasoikako langileen kontratazioen kokalekua, matrikulako liburuetan jasotako datuen ustiakuntzaren arabera (Aguraingo NEB, 2001).

LAN EGITEKO HERRIA	NEKAZARI KOPURUA	SASOIKAKO LANG. KOP.
ADANA	1	5
ALAIZA	1	8
AZILU	1	6
ELBURGO	1	7
EZKEREKOTXA	1	9
GAUNA	4	16
GUEREÑU	2	15
HEREDIA	1	5
LANGARICA	1	15
OKARIZ	1	6
ORDOÑANA	2	8
TXINTXETRU	1	4
ZALDUONDO	1	4
GUZTIRA	18	108

(Iturria: Cáritas, Memoria 2001)

Gogoratu behar da datu horiek bertako NEBen aurkeztutako matrikula liburuetan adierazitakoak direla, baina liburu horiek beste zenbait lekutan ere aurkez daitezke. Nolanahi ere, jasotako 108 sasoikako langileen ezaugarriak honako hauek dira: % 88 gizonak, % 12 emakumeak, % 83 atzerritarrak (magrebiarrak eta portugaldarrak) eta % 89 nekazari bakarrarentzat lan egiten dutenak (zona horretan eta lanaldi kopuru aldagarrian).

b) Kanpezuko informazio bulegoko lan poltsa:

- Nekazariak egindako sasoikako langileen eskabideak: 8
- Lan poltsan izena eman duten sasoikako langileak: 7 (2 portugaldar, familetan, eta 5 magrebiar, mahats-bilketatik iritsitakoak).

Kanpezuko NEBaren bitartez tramitaturiko matrikula datuen ustiakuntzak adierazitakoaren arabera, kontratazioen banaketa honako hau da:

2.8 taula: Sasoikako langileen kontratazioen kokalekua, matrikulako liburuetan jasotako datuen ustiakuntzaren arabera (Kanpezuko NEB, 2001)

LAN EGITEKO HERRIA	NEKAZARI KOPURUA	SASOIKAKO LANG. KOP.
ALDA	3	8
BERNEDO	5	25
LAGRAN	3	16
MAESTU	1	1
MARKINEZ	1	1
NAVARRETE	5	20
ONRAITA	3	7
ORBISO	1	7
PAIUETA	1	8
ROITEGUI	3	13
SABANDO	2	10
SANTA CRUZ DE CAMPEZO	1	8
SAN VICENTE DE ARANA	1	7
ULLIVARRI-ARANA	1	4
URTURI	1	1
VILLAFRIA	2	2
GUZTIRA	34	138

(Iturria: Cáritas, Memoria 2001)

Kasu honetan, Cáritasen ustez, datuok zonako nekazari guztien % 38ari buruzkoak dira, eta, bertako azalera kontuan hartuta, beharrezkoa da eskulana kontratatzea. Ezaugarriak oso antzekoak dira: % 81 gizonak, % 70 atzerritarrak (% 55 portugaldarrak) eta nahiko gazteak (gizonen % 54 eta emakumeen % 37 30 urtetik beherakoak)...

c) Biasteriko informazio bulegoko lan poltsa:

- Nekazarien kontsultak: 225, horietatik % 13 lan poltsari buruz (aurreko urtean, 83 kontsulta).
- Sasoikako langileen kontsultak: 924 (aurreko urtean, 411), ia guztiak lan poltsari buruz.
- Lan poltsan izena emanda duten sasoikako langileak: 356.

- Sasoikako langile horien ezaugarriak:
 - % 93,5 gizonak eta % 6,5 emakumeak (gehienak gazteak, ikasleak eta espainolak);
 - 218 magrebiarrak (% 61; iaz, % 36); 102 espainol (% 29); 12 portugaldar eta 24 beste herri batzuetakoak;
 - izena ematera joan zirenetatik (426), % 83,7k (356) lan baimena zuten; baimenik gabeko 70etatik, 41 magrebiarrak ziren;
 - 3 baino ez zetozen familian (izena emanda zuten guztien % 1 baino gutxiago): ume txikiak zituzten Portugaleko 3 familia ziren;
 - euren aurreko lanak mahats-bilketa (% 37), fruta-bilketa (% 27) edo zenbait tokitako beste nekazaritza lan batzuk (Lleida, Nafarroa, Errioxa...) izan dira.
- Bizileku aukerei dagokienez, ikusi 3.7 taula.
- Egiaztaturiko kontratazioak: 206 sasoikako langile 30 nekazarirekin.

Jasotako datu horiek eta beste batzuk aztertu ondoren, **ondorioak** atera daitezke. Horrela, esate baterako:

- Informazio bulegoak oso ahulak dira, enplegu bitartekaritza (lortutako enplegu kopuru txikia, kontratazioen kopuru osoari dagokionez); hala eta guztiz ere, aldi berean, zerbitzu hori gero eta garrantzitsuagoa izateko aukera dago, aurreko urteetako esperientzian eta jasotako balorazio positiboan oinarrituz (nekazarien hiru kexa baino ez dira egon).
- Zerbitzu hori oso erabilgarria izango da, segurutik, sektorerik ahulenetarako: alde batetik, atzeritik iritsitako sasoikako langileak; bestetik, uzta biltzeko zer langile erabiliko duten erabaki ez duten nekazariak.

Nolanahi ere, bulego horien eginkizunak ez dira lan poltsa sortzera edo kudeatzera mugatzen (lan hori, gainera, egokiagoa da horretan espezializaturik dauden beste erakunde batzuentzat). Muga handiak ikusi diren arren, ohituraren bitartez finkaturiko beste jarduera batzuk geldiarazteko edo murrizteko (adibidez, azpikontratazioa), bi alderdientzat emaitza positiboak dituzten kontratazio formulak hedatu beharko dira (jatorrian egindako kontratazioak, halako bitartekaritza edo beste formula batzuk).

3. BIZILEKUEN BALDINTZAK

3.1 Aurretiazko jarduketak eta informazio iturriak

Sasoikako langileen nahiz familien ezarkuntzen nahiz bizilekuen gaia, umeen eskolatzearekin batera, zalantzarik gabe, erakunde honen arretarik handiena izan duena da, aurreko txostenetan. Egin-eginean ere, **Eusko Legebiltzarrari bi gomendio orokor egin zaizkio**: lehenengoa 1997ko txosten arruntean, eta bigarrena, zehatzagoa, 2000. urtean. Biak ere txosten honetako eranskintzat jasota daude (I. eta II. eranskinak).

Bizilekuen baldintzei dagokienez, gutxienez lau egoera bereiztu dira beti:

- a) Erakundeek sustaturiko aterpetxeetan dauden pertsonena (gehienetan egun bat edo bi).
- b) Aurretiaz prestaturiko zonetan edo kanpamentuetan kanpaldia egiten duten familiena.
- c) Kontratua egiten duten nekazariak edo enpresek gaituriko lokaletan bizileku hartzen duten pertsonena eta familiena.
- d) Gaua ahal duten lekuan eta ahal duten moduan (baldintza hoberik ez edukitzearen ondorioz) igarotzen duten familiena eta pertsonena.

Egoera, jakina, aldatu egiten da urte batetik bestera, zenbait aldagaien arabera, esate baterako, lan bila iritsitako pertsona kopurua, kanpainaren iraupena, erakundeen ekimenak edo lokalen nahiz lurzoruen erabilgarritasuna (nekazariak dutena). Hala eta guztiz ere, funtsean, arazoak, mugak eta gabeziak mantendu egin dira urte batetik bestera, eta mantendu den gauza bakarra lekua edo intentsitatea izan da.

Esan dugun hori, "iturri idatziak" deritzon atalean (7. kapitulua) zerrendaturiko memorietan jasotako datuetan ez ezik, Arartekoaren langileek 1995etik hona urtero ezarkuntzetara eta lokaletara kanpainan egindako bisitaldi ugarietan ere euskarritzen da. Azken bi urteotan (2000ko urriaren 17ko eta 18ko ibilaldiak eta 2001eko urriaren 10 eta 18koak), adibidez, 40 ezarkuntza eta ostatu baino gehiago bisitatu dira herri desberdinetan, bai patata biltzeko zonetan eta bai Arabako Errioxan.

Batzuetan, **informazioa in situ biltzeko**, behaketa tresna errazak erabili dira, esate baterako, txosten honetako VI. eranskinean jasota dagoen datuak biltzeko orria.

Beste erakunde batzuek, gero ikusiko dugunez, antzeko irizpideak erabili dituzte; erakundeok ere informazioa laburbilduta eta zuzen-zuzen jaso dute, sasoikako langileei bizilekua emateko lekuetako higiene eta bizigarritasun baldintzei buruz.

Zeharkako informazio iturriak ere badaude, adibidez, udal agintariak “*Sasoikako langileen ostatuei buruzko galde-sorta. 2001eko kanpaina*” deritzonari erantzunez eskainitako datuak (horien emaitzak txosten honetako IV. eta V. eranskinetan jasota daude), edo UAGAk Arabako Errioxako nekazariei egindako inkesten bitartez jasotako datuak, lokalen erabilgarritasunari eta beharrezanezi buruzkoak.

Hemen iturri guztiak hartuko dira kontuan (geureak eta kanpokoak), nahiz eta guztiek fidagarritasun berbera ez eskaini. Iturri bakoitzak eskainitako argazkia ilunagoa edo argiagoa da, kasu bakoitzean erabilitako objektiboaren arabera. Hori begien bistakoa da: ez dago oinarritzko irizpide komunik, bizileku jakina onargarritzat hartzeko ala ez hartzeko eska daitezkeen gutxieneko baldintzei buruz (espazioa, argia, ura, zerbitzuak, intimitatea...).

Lehenengo eta behin, aldaketa adierazgarrienak aipatuko ditugu, azken urteotan sartutakoak (ikusitako bilakaera); gero, oraingo egoera hobeto ezagutzeko baliozkoak diren datu adierazgarriak sartuko ditugu (azken kanpainako datuak). Azkenik, azaldutako egoera hobetzeko gaituriko behar diren zailtasunetariko batzuk laburbilduko dira.

3.2 Azken urteotan izandako aldaketak

a) Aterpetxeei dagokienez:

- Daturik adierazgarriena 2000ko kanpainaren ostean Biasteriko aterpetxea ezabatzea izan da; horrek 48 ohe eskaini ditu mahats-bilketaren egunetan, eta gainera, okupazio maila handia izan du (sarritan, gainezka egon da).
- Aldiz, Aguraineko aterpetxearen eskaintza mantendu egin da; 1998tik egitura egonkorra dauka eta azken urteotan Cáritasek kudeatu du, erabilera maila txikiagoarekin.
- Bi kasuotan, antzeko irizpideari jarraitu zaio: sasoikako langileei egun baterako edo birako bizilekua eskaintzea, harik eta zona horretan lana aurkitu arte; hau da, helburua ez da kontratua egin duen nekazaria ordeztzea, kontratazioaren aurreko aldia bermatzea baizik. Irizpide hori ez da aldatu.

b) Kanpaldiko zonei dagokienez:

- Aldaketa nagusia, 1998tik hona, Eltziegion gaituriko kanpaldirako zona ezabatzea izan da; bertan, azken urteotan, hamaikatxo familia eta pertsona egon dira.
- Kanpaldirako ohiko beste zona batzuk mantendu egin dira, adibidez, Albainakoa (Treviño) eta txikiagoak diren beste batzuk, nekazariak lagatako lurretan, edo inolako zerbitzurik gabeko lekuetan.
- Kanpaldi nahiko ugariak sortu dira zenbait zonatan, adibidez, Elvillarren (2000) eta Oionen (2001), inolako zerbitzu edo kontrolik gabe.
- Arabako Errioxako udalerrri batzuetan (esaterako, Baños de Ebro edo Oion), halako kanpaldiak debekatzeko edo arautzeko ekimenak egon dira.

c) Nekazarien edo enpresen lokalei dagokienez (bizilekutzat gaituta edo lagata):

- Leku batzuetan, behintzat, sentsibilizazio handiagoa ikusten da, eta lokalak egokitze obrak egin dira, gehienetan nekazariaren beraren baliabideak erabiliz.

- Zenbait nekazarik kontrataturiko sasoikako langileen bizileku beharrianei erantzuteko aterpetxe komunitarioa eraikitzeke ekimena dago, Leza eta Navaridas udalerrietan. Obrak amaitzeaz daude eta Lezako aterpetxea hurrengo kanpaina erabiltzeko moduan egongo da (UAGAk kudeaturiko aterpetxea).
- Bizilekuzat erabilitako lokalen bizigarritasun, higiegi edo segurtasun baldintzei dagokienez, era guztietako egoerak mantentzen dira, eta eskatzeko moduko gutxienez baldintzak oraindik ere finkatu gabe daude.

d) Gaua izarpean igarotzen duten familiei edo pertsoneri dagokienez, horien “ikusgarritasuna” oso aldagarria da urteen eta sasoikako langileen presentzia handiagoaren edo txikiagoaren arabera, eta, gehienbat, Biasteri bezalako herrietan pilatzen dira.

Laburbiltzeko, esan daiteke gaituriko aterpetxeen edo kanpaldiko zonen eskaintza murriztu egin dela; kontrolik gabeko ezarkuntzak mantendu edo ugaritu egin dira; bizileku komunitarioaren proiektua abiatu da, eta aukerarik hedatuena, azterketarik handiena behar duena, kontratua egiten duten nekazarietako edo enpresek euren lagatako bizilekuena da, eta horri arreta berezia jarriko diogu hurrengo atalean. (Laburbildutako alderdiei buruzko informazio zehatzagoa edukitzeko, ikusi Arartekoak urtero egiten dituen txosten arruntak).

3.3 Azken kanpaina ikusitako errealitatearen azterketa (2001)

Sasoikako langileek azken kanpaina ostatu hartzeko izandako baldintzei dagokienez, funtsean, **honako informazio iturri hauek** ditugu:

- Cáritasen memoria, Aguraineko aterpetxearen erabilerari buruz.
- Era Berri eta Hezilan elkarrekin memoriak, Arabako Mendiko, Arabako Lautadako eta Arabako Errioxako zati handiko zonetako famili ezarkuntzei eta bizilekuei buruz.
- Arartekoaren langileak urriaren 5ean, 10ean eta 18an hiru zona horietako eta Treviñoko ezarkuntzetara nahiz ostatuetara egindako bisitaldiak.

Lehen esan dugunez, arreta berezia jarriko diegu nekazarietako eurek lagatako lokaletako edo espazioetako bizilekuei buruz (batik bat familia taldeenak) jasotako datuei. Baina, lehenengo eta behin, Aguraineko aterpetxearen erabilerari eta pertsona kopuru handiko kanpaldi batzuei buruzko datuak eskainiko ditugu.

a) Aguraineko aterpetxea

Aterpetxe honek 1993tik ematen die zerbitzua, Lautadako sasoikako langileei. Gaur egun, aterpetxe egonkorra da, 35 pertsonarako gaitasuna duen eraikin batean; hiru logela, jantokia, komuna, sukalde eta abar dauka. Cáritasen kudeatu du eta boluntario kopuru handiak parte hartzen du bertan; gainera, udalerriko bertako harrera bulegoarekin lankidetzan dihardu.

Azken kanpainako erabilerari buruzko daturik adierazgarrienetarikoz batzuk hauenek dira:

- irekita egon zen irailaren 20tik urriaren 10era;
- sasoikako 53 langile egon ziren bertan: horietatik 47 bi gauetan; 6 gau bakarrean; guztira, 100 gau-igarotze;
- erabilerarik handieneko egunean 13 pertsona egon ziren;
- erabiltzaile guztiak gizonak izan ziren; % 81 magrebiarrak (% 41 marokoarrak eta % 40 aljeriarrak).

Datu horiek aurreko urteetako datuekin konparatuta ikusten denez, erabiltzaile kopurua gero eta txikiagoa da (aurreko urtean 75 pertsona egon ziren) eta erabiltzaileen ezaugarriak gero eta egonkorragoak dira (gehienbat, gizon magrebiarrak, nekazaritza lanetan jardun eta egoitza finkorik ez dutenak).

Aterpetxearen eta informazio bulegoaren arteko baterako lanari esker, hobeto ezagutzen ditugu pertsona horien bizileku beharizanak. Ondoko taulan ikusten denez, azken urtean lan poltsan izena eman zuten sasoikako langile guztien erdiak baino gehiagok ez zuten inolako bizilekurik:

3.1 taula: Aguraingo informazio bulegoko lan poltsetan izena emanda duten pertsonen bizilekua hartzeko aukera eta bizileku mota (2001)

ERABILGARRITASUNA	PERTSONA KOPURUA	EHUNEKOA
Aterpetxearekin	11	% 18
Aterpetxerik gabe	33	% 55
ED/EE	16	% 27
GUZTIRA	60	% 100

BIZILEKU MOTA	ATERPET.	ETXEA	BILTEGIA	KAMIOIA	GUZTIRA
Pertsona kopurua	2	6	1	2	11

(Iturria: Cáritas, Memoria 2001)

Datu hori eta aterpetxeak azken urteotan izandako erabilera txikiari buruzko datuak aztertuta ikusten denez (oraindik erabilitako irizpideen arabera), hori etorkizunean aterpetxe komunitariotzat erabil daiteke, irizpideok aldatuta.

b) Kanpaldiak

Urte askotan Eltziegion gaituriko kanpaldi zona ezabatu ondoren, kanpaldi txikiagoak sortu dira, baita kanpaldi nahiko handi batzuk ere, esate baterako, Elvillarren edo Oionen. Azken urte honetan, zalantzarik gabe, ugariena Oionekoa izan da. Ez dago horri buruzko datu fidagarririk. Hala eta guztiz ere, Arartekoaren langileek urriaren 18an egindako bisitaldian 40 karabana, furgoneta, kamioi eta denda zenbatu zituzten; horietan, gehienbat, ijitoak edo portugaldarrak zeuden, baita magrebiarrak ere (marokoarrak eta aljeriarrak). Ez zuten inolako zerbitzurik, baina hartune batzuk egin zituzten, kableen edo malguen bitartez, ura edo argia lortzeko.

Beste alde batetik, Albainan (Treviño) betiko kanpaldia egon zen, eta horren baldintzak aurreko txostenetan azalduta daude (ijitoen hogeit hamar familia baino gehiago, material ahulekin eraikitako txaboletan, eta zerbitzu bakarrak: iturria, generadorea, zaborrerako edukiontzia eta bi komun).

Beste kanpaldi txikiago batzuen egoera hurrengo ataletan jasota dago.

c) Arabako Mendian bisitaturiko bizilekuen banaketa eta ezaugarriak

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak zona horretan sustaturiko gizarte edota hezkuntzako programaren barruan, Era Berri elkarteko langileek azken urtean familiako 29 ezarkuntza bisitatu eta horiei buruzko datuak jaso zituzten; horren banaketa hurrengo koadroan adierazita dago:

3.2 taula: Famili ezarkuntzen banaketa sasoikako pertsona nahiz famili kopurua, biztanle gune desberdinetan (Arabako Mendia, 2001. urtea⁽¹⁾)

BIZTANLE GUNEA	EZARKUNTZA KOPURUA	FAMILI KOPURUA	PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK
ALDA	1	2	10	6	4
ANGOSTINA	1	1	6	2	4
BAROJA	1	3	12	10	2
BERNEDO	7	12 ⁽²⁾	75	43	32
CABREDO	0	⁽²⁾	2	2	0
GENEVILLA	1	3	14	7	7
LAGRÁN	1	1 ⁽²⁾	13	10	3
MAEZTU	2	3	14	7	7
MARAÑON	4	5 ⁽²⁾	43	31	12
MARQUÍNEZ	0	⁽²⁾	4	4	0
NAVARETE	1	2	9	9	0
ONRAITA	1	⁽²⁾	8	8	0
ORBISO	1	4	24	17	7
PAYUETA	1	2	8	5	3
PEÑACERRADA	0	⁽²⁾	5	5	0
PIPAÓN	0	0	1	1	0
ROITEGI	1	⁽²⁾	4	4	0
SABANDO	1	3	12	9	3
SAN VICENTE ARANA	0	⁽²⁾	8	8	0
ULLIBARRI ARANA	1	2	6	4	2
VILLAFRÍA	3	4	27	14	13
VILLAVERDE	1	3 ⁽²⁾	15	8	7
GUZTIRA⁽³⁾	29	50 45 benetan	320 288 benetan	214 192 benetan	106 96 benetan


⁽¹⁾ Biztanle gune hauek ere bisitatu dira: Apellaniz, Atauri, Corres, Arluzea, Quintana, Kanpezuko San Román, Urarte, Urturi, Antoñana, Bujanda, Oteo, Kanpezuko Santa Cruz eta Contrasta. Zerrendan, "zonan" egon baina administrazioz lurraldekoak ez diren biztanle gune batzuk sartu dira.

⁽²⁾ Umerik gabeko sasoikako familiak edo taldeak dituzten herriak.

⁽³⁾ "Benetako" guztizkoak pertsona, talde edo famili desberdinen kopuruari buruzkoak dira, datuen bikoiztasuna zuzenduta (zenbait lekutan zenbaturiko familiak, mugikortasunaren eraginez).

(Iturria: Era Berri, Memoria 2001. Montaña alavesa. Geuk landuta)

2. mapa: Arabako Mendia: sasoikako langileen ezarkuntzak dituzten biztanle guneak (2001)



Elkarte horrek egindako memorian, bisitaturiko ezarkuntza bakoitzaren deskribapen zehatza egiten da, erabilitako datuak eta bizigarritasun baldintzak ere adierazita. Kasu askotan, deskribapenarekin batera, argazkiak ere agertzen dira (Era-Berri, Memoria 2001, 16-39. orrialdeak).

Bisitaturiko ezarkuntzen “tipologiari” edo ezaugarriei dagokienez, lau egoera bereizten dira, eta horiek adibide adierazgarritzat erabil daitezke; horiek ondoren adierazitakoaren arabera laburbilduta daude:

“Dendak edo furgonetak: Genevillan eta Bernedon familiak dendetan egon dira. Dendak olona zatiekin egindakoak dira, eta karpa itxuran antolaturik daude; oinarrian lastoa dute eta, horren gainean familiek eurek ekarritako alfonbrak daude; lo egiteko, koltxoak jartzen dituzte. Espazio horietan janaria prestatzeko su txikia eta sua daude. Halako lekuetan ez dago urik, argirik eta komunik; inguruak eskainitako baliabideak erabiltzen dituzte ura (errekaxoa) eta komunak (zelaiak eta bideak) lortzeko. Beste alde batetik, Barojan familiak furgonetetan bizi dira. Kasu honetan, nekazariak komun bat jarri zien. Halako ezarkuntzak herrien kanpoaldean daude (makaldiak, bazterbideak ...), eta, batzuetan, herri barruan ere bai.

Bordak: Baserriko tresnak eta animaliak gordetzeko erabiltzen ziren espazioak. Aurkitutako borda askok ez dituzte gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen. Gehienak erortzeko moduan zeuden. Bestalde, batek ere ez zuen komunik, baina ur korrontea eta argia daukan baten bat aurkitu dugu. Oro har, leku ilunak, handiak, hotzak eta zikinak dira. Halako ezarkuntzarik gehienak herrien kanpoaldean daude.

Biltegiak: Batzuetan familia bat baino gehiago egoteko erabiltzen diren espazio hauek modu desberdinetan egokiturik daude; batzuek komuna, dutxa eta ura dituzte,

eta beste batzuek, aldiz, komunik ere ez dute. Beste alde batetik, zenbait kasutan, sasoikako familiek bizilekutzat erabilitako biltegiak nekazariak patata gordetzeko erabiltzen dituzte; horrela, denboraldiak aurrera egin ahala, familiek gero eta leku gutxiago dute.

Biltegiak herrietan daude eta gehienak sasoikako familiek eurek egokitzen dituzte, ekarritako gauzeekin, koltxoiak, alfonbrak, sukaldeko bateriak, su txikiak, mahaia, aulkiak...

Eraikuntzaren egiturari eta kalitateari dagokionez, itxuraz bordak baino egoera hobean daude.

Etxeak: Herrian dauden antzinako eraikuntzak dira; gelak, sukaldea, komuna eta egongela dituzte; espazio horiek bata bestetik bereizita daude, baina batzuetan sasoikako familiak berak egokitu behar izaten ditu. Halako bizilekurik gehienek ura eta argia dute. Sasoikako familiei eskainitako bizilekurik onenak izan arren, urrienak ere badira. Honako herri hauetan halako bizilekuak aurkitu ditugu: Paiueta, Bernedo, Lagrán, Roitegi eta Onraitia” (Era Berri, Memoria 2001, 14-15. orrialdeak. Geuk itzulita).

Gizarte edota hezkuntzako programaren helburuen artean, hauxe aurkituko dugu: *“Bizilekuetan, elikaduran eta jantzetan gutxieneko higie baldintzak eskaintzea, umeak ikastetxera baldintza egokietan joan ahal izateko”*. Ikuspegi horretatik begiratuta, zona horretan finkaturiko sasoirako familietako 96 **umeen egoera** ondoren adierazitakoaren arabera laburbil daiteke:

“Umerik gehienak bizi kalitateko gutxieneko baldintzarik gabeko lekuetan daude; dendatan daudenean ez dute inolako erosotasunik, ez baitute argirik, ur korronterik edo komunik, eta behearen gainean egiten dute lo, lastoaren gainean.

Biltegietan dauden umeek beste prestazio batzuk dituzte; biltegi batzuetan, ur korronea eta komuna dago, baita koltxoia ere, baina halakorik gabeko biltegiak ere aurkitu ditugu.

Nekazariak lagatuko etxe zaharretan egon diren familiek bizi baldintza onargarriagoetan egon dira; komuna, dutxa, ura eta argia eduki dute.

Ume horien bizi baldintzetan, oso zaila da ikastetxera garbi joatea; gainera, dutxen zerbitzua erabili arren, bizilekuetara iritsi ondoren garbiketa deuseza zen.

Sasoikako familien erdiak baino gehiagok komunik ez edukitzeak aditzera ematen du euren beharrianak egiteko ezarkuntzen inguruko lekuak erabiltzen dituztela, eta horrela, infekzio guneak eta gaixotasunak kutsatzeko lekuak sor daitezke.

Dendetan bizi diren familien kasuan, arazo hori oraindik ere handiagoa da, inguruetan pilaturiko zabor kantitate handiaren ondorioz” (Era Berri, Memoria 2001, 11. orr. Geuk itzulita).

Ezaugarri horietariko asko (azken urtean Arabako Mendian ikusi eta jasotakoak) baliozkoak dira beste urte eta zona batzuetarako ere (txosten honetan aztertutako urteak eta zonak).

d) Arabako Lautadan bisitaturiko bizilekuen banaketa

Zona horretako gizarte edota hezkuntzako programa, azken urtean, Hezilan elkarteko langileek gauzatu dute. Bertako jardueren memorian, zonako 34 herritara egindako bisitaldietan aurkituriko ezarkuntzei eta bizilekuei buruzko informazioa jasota dago. Bisitaturiko bizilekuen banaketa geografikoa hurrengo koadroan laburbilduta dago:

3.3 taula: Sasoikako langileen ezarkuntzen, pertsona helduen eta haurren banaketa, Aguraingo Taldeko biztanle gune desberdinetan (2001)

BIZTANLE GUNEA ⁽¹⁾	EZARKUNTZA KOPURUA	PERTSONA KOPURUA	HELDUAK	HAURRAK
ADANA	1	11	11	0
ALAIZA	4	31	23	8 ⁽³⁾
ALEGRIA-DULANTZI	2	24	23	1
AZILU	1	9	6	3
DALLO	1	9 ⁽²⁾	6 ⁽²⁾	3 ⁽²⁾
ELBURGO	1	7	7	0
ERENTZUN	1	5	5	0
GACEO	1	2 ⁽²⁾	1 ⁽²⁾	1 ⁽²⁾
GAUNA	1	13	13	0
GUEREÑU	4	25	14	11
HEREDIA	2	11	11	0
LANGARIKA	1	4	2	2
ORDOÑANA	1	15	15	0
TXINTXETRU	4	29	24	5
ZALDUONDO	1	5	5	0
GUZTIRA	26	189	159	30


⁽¹⁾ Honako biztanle gune hauek ere bisitatu dira: Agurain, Galarreta, Gordoia, Narvaja, Larrea, Ermua, Luzuriaga, San Millánekoko Zuazo, Egulaz, San Millánekoko San Román, Trokoniz, Trokoniz, Arrieta, Ullibarri-Jauregi, Eguleta, Arbulo, Audicana, Etura, Etxebarri-Urtupíña eta Ezkerekotza, eta horietan ez da ezarkuntzarik ikusi.

⁽²⁾ Pertsona horiek beste herri batean ere zentsatu dira eta, beraz, guztizkoetan ez dira zenbatu.

⁽³⁾ Haur horietatik bost gehienez 4 egunetan eskolatu dira.

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Llanada alavesa)

3. mapa: Arabako Lautada: sasoikako langileen ezarkuntzak dituzten biztanle guneak (2001)



Bisitaturiko 26 bizilekuetan egindako datu-bilketak eskema berberari jarraitu dio (Hezilan memoria, Aguraineko Taldea, 6-16 orrialdeak):

- Familiaren jatorria.
- Lokalaren higiene eta bizigarritasun baldintzak (deskribapena).
- Egonaldia.
- Pertsona arduraduna, bisitaldiaren unean.
- Geroko lana/egoitza.
- Bertako pertsona kopurua eta horien ezaugarriak (umeei arreta berezia jarrita).
- Kasu bakoitzean egindako oharrak eta jarduketak.

Deskribaturiko panorama aurreko atalean Arabako Mendiari buruz laburbildutakoaren nahiko antzekoa da, eta era askotako bizilekuak daude (lonja-biltegia, etxebizitza, furgoneta...), eta ezaugarriak oso adierazgarriak dira. Egonaldiari dagokionez, hori 6-7 eta 18-20 egun bitartekoa izaten da.

e) Arabako Errioxako bizilekuen beharrianak eta baldintzak


Sasoikako langileen bizileku beharrianik gehienak, sasoikako lanaren kasuan gertatzen den bezala, Arabako Errioxan biltzen dira. Kasu honetan, eta azken kanpainari dagokionez, **zenbait informazio iturri** dugu eta horiek ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte:

- inkestaturiko nekazarien lagin handi batena;
- Biasteriko informazio bulegora joan diren sasoikako langileena;
- 85 bizileku inguru bisitatu eta horiei buruzko datuak jaso dituzten elkarreana.

Hemen, iturri horietariko bakoitzak eskaintako daturik adierazgarrienetariko batzuk jaso ditugu.

1. **Inkestaturiko nekazariak eskaintako datuei dagokienez**, hamarretik seik diotenaren arabera, kontraturiko sasoikako langileei eurek eskaintzen diete bizilekua. kasu guztien % 36an inkestak dioenez, Arabako Errioxako sasoikako langileek eurek bilatu behar izaten dute bizilekua. Ikusi ondoko grafikoa:

4. grafikoa: Arabako Errioxako sasoikako langileen bizilekuak (2001eko lagina). Sasoikako langilearen eta nekazariaren konturako bizilekuen proportzioa



(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa. Geuk landuta)

Bizilekuen tipologiari dagokionez, kasu batetik bestera alde handiak daude. Nekazariak eskainitako bizilekurik ohikoena biltegia, sotoa edo antzekoa da, eta, neurri txikiagoan, etxebizitza. Bizilekua euren lekua aurkitzen duten sasoikako langileek, datu horietan adierazitakoaren arabera, etxea, karabana edo beste baliabide batzuk edukitzen dituzte. Erantzunen baliozkotasun erlatiboa gorabehera, hurrengo bi tauletan, lortutako datuak biltzen dira:

3.4 taula: Sasoikako langilearen konturako bizileku motak, Arabako Errioxan (2001eko lagina)

MOTA	USTIAKUNTZA KOPURUA	%	GUZTIZKOAREN %
Norberaren etxea	80	% 55,17	% 19,66
Karabana	30	% 20,69	% 7,37
Beste batzuk	18	% 12,41	% 4,42
Kanpaldia	9	% 6,21	% 2,21
Bitartekaria	5	% 3,45	% 1,23
Zehaztu barik	3	% 2,07	% 0,74
GUZTIRA	145	% 100,00	% 35,63

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa)

3.5 taula: Nekazariaren konturako bizileku motak, Arabako Errioxan (2001eko lagina)

BIZILEKU MOTA	USTIAKUNTZA KOPURUA	%
Biltegia, sotoa edo antzekoa	108	% 55,10
Etxebizitza	62	% 31,63
Garajea	17	% 8,67
Beste batzuk	9	% 4,59
GUZTIRA	196	% 100,00

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa)

Interesgarria da nekazariak sasoikako langileei eskaintzen dizkieten bizilekuen baldintzei buruz egiten duten balorazioa ezagutzea. Hau da, nekazarien ustez bizilekuok gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen dituzten ala ez jakitea. Balorazio horiek hurrengo taulan ikusten dira:

3.6 taula: Nekazariak eskainitako bizilekuen gutxieneko baldintzak, berak egindako balorazioaren arabera (Arabako Errioxako lagina, 2001. urtea)

EZAUGARRIAK	USTIAKUNTZA KOP.	%
Gutxieneko baldintzak	152	% 77,55
Gutxieneko baldintzarik ez	4	% 2,04
Argirik gabe	6	% 3,06
Ur berorik gabe	19	% 9,69
Komunik gabe	17	% 8,67
Dutxaririk gabe	22	% 11,22
Sukalderik gabe	31	% 15,82

(Iturria: UAGA, Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa)

Nolanahi ere, zona horretako nekazari lagin bati inkesta eginez lortutako datuak eta balorazioak dira, eta lagin hori gero eta txikiagoa da: 250 nekazarik sasoiakako langileei bizilekua eskaintzen dietela esan dute; 196 nekazarik eskaintako bizileku mota adierazi dute; 152 nekazariren ustez, bizileku horrek gutxienero baldintzak betetzen ditu (inkestatuturiko 407 nekazariren guztizkotik ateratako datuak, sasoiakako langileak kontratatzen dituzten nekazariak).

2. **Gaiari buruz kontsultaturiko sasoiakako langileen lagina** oso txikia da, guztizko kopuruari dagokionez, eta, oro har, ezaugarri jakinak dituzte: bakarrik edo taldeka iristen diren langileak, aurretiazko kontraturik gabe; gehienak magrebiarrak. Horrenbestez, datu horiek kontuz baloratu behar dira. % 88ak ez du inolako bizilekurik, eta hori, segurutik, zonara lan bila iritsitako antzeko profileko sasoiakako biztanleriari aplikatzeko modukoa da. Hala eta guztiz ere, jasotako datuak honako hauek dira:

3.7 taula: Biasteriko informazio bulegoko lan poltsetan izena emanda duten pertsonen bizilekua hartzeko aukera eta bizileku mota (2001)

BIZILEKUA HARTZEKO AUKERA	SASOIKAKO LANGILE KOPURUA	EHUNEKOA
Bai	41	% 11,52
Ez	315	% 88,48
GUZTIRA	356	% 100

BIZILEKU MOTA	SASOIKAKO LANGILEAK	EHUNEKOA
Aterpetxea	1	% 0,28
Etxea	4	% 1,12
Kanpamentua	17	% 4,77
Kanpaldia	1	% 0,28
Ostatua	2	% 0,56
Kamioia / furgoneta	3	% 0,84
ED/EE	13	% 3,65
GUZTIRA	41	% 11,52

(Iturria: Cáritas, Memoria 2001)

3. Kontrasterako hirugarren elementutzat, **zonan bisitaturiko bizilekuen baldintzei eta ezaugarriei buruzko informazioa** eskain daiteke, eta bisitaldia, kasu honetan, bertan bost urtez lanean ibilitako elkarteko langileek egin dute.

Eskualde honetan, Hezilan elkarteak egindako datu-bilketa Eltziegoko eta Lantziegoko “hezkuntza zonetan” oinarritu da, eta beste zenbait herri albo batera utzi dira, esate baterako Labastida, Oion edo Moreda de Alava; gutxi gorabehera, 85 bizileku bisitatu dira.

Ez da ahaztu behar datu-bilketa gizarte edota hezkuntzaren programaren barrukoa dela; horrenbestez, helburua ez da bizileku guztien datuak zehatz biltzea, umeak jasotzen dituzten bizilekuen baldintzak hobeto ezagutzea baizik.

Bisitaturiko bizilekuen banaketa, udalerrika, hurrengo mapan adierazita dago. Bizileku mota, bertan igarotako egun kopurua eta bertako pertsonen ezaugarri batzuk hurrengo tauletan jasota daude, laburbilduta (3.8tik 3.16ra):

4. mapa: Arabako Errioxa: bisitaturiko bizilekuak dituzten biztanle guztiak (2001)



3.8 taula: Eltziego udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
28	17	11	7	Pabilioia	15	Ourense	Jatorria
24	16	8	8	Lonja	11	Ourense Coruña	Jatorria
27	20	7	3	Karabanak	15	Ourense	Jatorria
12	9	3	2	Karabanak eta lonja	27	Bilbo Santander	Jatorria
15	13	2	2	Kamioiak eta pabilioia	17	Madril	Jatorria
16	12	4	2	Lonja	12	Salamanca	Jatorria
27	18	9	0	Etxea eta kamioiak	25	León	Feriantes
38	30	8	0	Pabilioia eta lonja	11	Santander	Ambulantes
9	8	1	0	Biltegia	25	Barakaldo	Jatorria
13	9	4	4	Pabilioia	7	Valladolid	Jatorria
18	16	2	0	Pabilioia	14	Galizia	Jatorria
16	10	6	4	Lonja	28	Bartzelona	Jatorria
22	6	16	2	Lonjak	9	Sevilla	?
36	30	6	2	Lonja	24	Bartzelona Nafarroa Madril	Jatorria
301	214	87	36	GUZTIRA			

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.9 taula: Samaniego udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
27	20	7	2	Lonja eta kamioiak	18	León	
3	2	1	1	Aurretiaz fabrikaturiko modulua	30	Soria	?
3	3	0	0	Kamioia	16	Soria	Jatorria
6	4	2	2	Karabana	Urte osoan	Soria	-
25	24	1	1	Lonja	7	Portugal	Jatorria
22	17	5	1	Lonja	7	Bilbo Palencia	Jatorria
6	4	2	0	Karabana eta furgonetak	7	?	Jatorria
?	?	2	0	(1)	?	Portugal	?
92	74	18	7	GUZTIRA			

(1) Ez zuten bizilekura sartzen utzi

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.10 taula: Baños de Ebro udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
7	5	2	1	Karabana eta kamioia	15	Errioxa	Jatorria
19	14	5	3	Lonja	15	Portugal	Jatorria
6	2	4	2	Kamioia eta etxa	16	Portugal	Jatorria
7	5	2	1	Kamioia eta etxa	16	Portugal	Jatorria
5	3	2	2	Karabana	15	Valladolid	Errioxa
16	15	1	0	Lonja	?	Portugal	Jatorria
14	9	5	4	Lonja	10	Valentzia	Jatorria
13	6	7	5	Lonja	8	Galizia	Jatorria
87	59	28	18	TOTALES			

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.11 taula: Leza, Villabuena, Navaridas eta Páganos udalerrietan finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
LEZA							
8	5	3	2	Karabana	21	León	Jatorria
8	5	3	2	Karabana	21	León	Jatorria
3	3	0	0	Karabana	25	León	Jatorria
10	9	1	0	Kanpaldia	13	León	Jatorria
12	10	2	0	Kanpaldia	11	Madril	Jatorria
VILLABUENA							
10	5	5	0	Lonja	10	Valentzia	Jatorria
NAVARIDAS							
15	11	4	2	Lonjak	11	Asturias Lugo	Jatorria
7	5	2	0	Lonja	?	Portugal	?
PÁGANOS							
7	4	43	0	Lonja	10	Portugal	Jatorria
80	57	63	6	GUZTIRA			

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.12 taula: Lantziego udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak⁽¹⁾

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
14	7	7	7	Lonja	16	Ciudad Real	Jatorria
16	10	6	6	Lonja	16	Ciudad Real	Jatorria
10	4	6	6	Etxea	18	Ciudad Real	Jatorria
14	6	8	5	Txokoa	7	Portugal	S. lana (Galizia)
12	7	5	5	Kanpaldia	13	Portugal	S. lana (Galizia)
12	6	6	3	Lonja	6	Ciudad Real	Jatorria
12	8	4	2	Lonja	27	Ciudad Real	S. lana
6	5	1	1	Etxea	11	Portugal	Jatorria
10	9	1	1	Kamioia	13	Santander	Jatorria
5	4	1	1	Kamioia	5	?	?
19	15	4	0	Txoko	16	Tutera	S. lana
8	6	2	0	Etxea	22	Madril	Jatorria
20	20	0	0	Etxea	19	Maroko	S. lana
15	15	0	0	Etxea	7	Zenbait	S. lana
20	20	0	0	Etxea	?	Bartzelona	S. lana
12	12	0	0	Etxea	12	Portugal	Jatorria
8	8	0	0	Lonja	?	Maroko	?
213	162	51	37	GUZTIRA			

⁽¹⁾ Taulako lehenengo zatian, famili taldeen datuak daude; bigarrenean, taldeen datuak.

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.13 taula: Yécora udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
7	4	3	0	Lonja	7	Ciudad Real	S. lana
16	12	4	0	Lonja	18	Bilbo	Jatorria
7	6	1	0	Lonja	13	Portugal	Jatorria
16	8	8	0	Etxea	21	Palentzia Castellón	Jatorria
18	12	6	0	Biltegia	7	Ciudad Real	Jatorria
7	5	2	2	Lonja	24	Portugal	S. lana (Galizia)
8	7	1	0	Almacén	10	Portugal	?
3	2	1	0	Kamioia	15	Valladolid	Azokak
3	2	1	0	Kamioia	15	Gijón	?
85	58	27	2	GUZTIRA			

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.14 taula: Biasteri udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
16	5	11	0	Kalea (karabana eta furgonetak)	5	Portugal	?
8	7	1	1	Ettxabea	10	Portugal	Jatorria
7	5	2	2	Etxea	14	Portugal	Jatorria
17	13	4	0	Lonja	8	?	Jatorria
13	10	3	0	Kalea (furgonetan eta karabanak)	8	Asturias	Jatorria
61	40	21	3	GUZTIRA			

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.15 taula: Kripan, Viñaspre eta Lapuebla de Labarca guneetan finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
KRIPAN							
11	10	1	0	Etxea	17	Madril	Ibiltaria
16	12	4	0	Etxea	13	Portugal	?
VIÑASPRE							
12	12	0	0	Kamioiak	11	Zaragoza Madril	?
LAPUEBLA							
20	14	6	3	Etxea eta lonja	?	Burgos	Zona
18	10	8	0	Etxea	?	Bilbo	Jatorria
77	58	19	3	GUZTIRA			

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

3.16 taula: Elvillar udalerrian finkaturiko sasoikako langileen bizileku motak eta datuak (2001)

PERTSONA KOPURUA	NAGUSIAK	UMEAK	ESKOLATUAK	BIZILEKU MOTA	EGONALDI EGUNAK	JATORRIA	GEROKO EGOITZA
14	10	4	0	Kalea	4	Zaragoza	-
15	12	3	3	Lonja	3	Zamora	-
14	10	4	3	Kalea	12	Iruñea	-
8	8	0	0	Lonja	16	Zaragoza Kordoba	-
4	4	0	0	Kalea	10	Zaragoza	-
11	11	0	0	Etxea	15	Iruñea	-
9	6	3	0	Kamioia	10	Zamora	-
8	6	2	0	Karabanak	10	Iruñea	-
14	6	8	0	Kalea	10	Portugal	-
97	73	24	6	GUZTIRA			

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

Bildutako datuen bolumena handia izan arren, ez da ahaztu behar horien **baliozkotasuna erlatiboa** dela: ez dira herri guztiak bisitatu; adierazitako udalerrietako bizileku guztiak ere ez dira bisitatu (batzuetan, horietan sartzeko baimenik lortu ez delako); ikusitakoa edo entzundakoa adierazten dute; urte batetik bestera aldatu egiten dira; hala eta guztiz ere, zona horretako errealitatearen zati bat hobeto ezagutzeko aukera ematen dute.

Beste alderdi batzuk (esate baterako, bitartekariak kontraturiko sasoikako langileen talde ugari batzuen baldintzak; bitartekariak alokaturiko lokaletan bizi dira (batzuetan zenbait hilabetetan) ez dira hain ezagunak edo datuotan nekezago jasotzeko modukoak dira.

3.4 Gainditu beharreko beharrianak eta zailtasunak

Aurreko ataletan eskaintako datuek sasoikako langileen bizileku askoren benetako baldintzak jakiteko aukera ematen dute, batez ere familian iritsitakoen kasuan. Horietan, euren egoera zuzentzeko eta hobetzeko gainditu beharreko zailtasunetarikoz batzuk ere adierazten dira. Nolanahi ere, bizilekuen benetako beharrianak eta horiek gutxienezko baldintzak edukitzeko zailtasunak hobeto ezagutzeko, komenigarria da, bisiten bidez bildutako informazioak beste bide batzuetatik lortutako datuekin erkatzea: Arartekoak hiru zonetako udaletxerri egindako galdeketa (2001), UAGAk Arabako Errioxako nekazarien artean sustaturiko inkesta (2001) edo zona horretako 298 nekazarik Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzak sustaturiko inkestari emandako erantzunak (2000).

Iturri horiek erkatuta, **ondorio batzuk** atera daitezke. Adibidez:

- Sasoikako langileak behar eta horientzako lokala eskaintzeko nahiz egokitzeko arazoak dituzten nekazarien ehunekoa nahiko handia da (UAGaren inkestan % 42).

- Ez dago irizpide argirik, erabilitako bizilekuen baldintzak baloratzeko, ezta gutxieneko zerbitzu erabilgarriak zeintzuk izan behar diren erabakitzeko ere. Gutxieneko araudirik ez dagoenez, irizpide eza horrek eragina dauka esku hartzen duten eragile guztietan: nekazariak, udal arduradunak, elkarteak, zerbitzuak...
- Dirudienez, adostasun handia dago, baldintza egokiko bizilekuak eskaintzeko ardura duen alderdiari buruz: kontratua egiten duen alderdia.
- Nekazariak baldintza oneko bizilekuak eskaini ahal izateko arazo nagusiak ekonomikoak dira, eta horietan elkartutako bi faktorek dute eragina: 1) uztaren iraupen laburra (gutzitan irauten du bi edo hiru aste baino gehiago); 2) horretarako eraikuntza edo egokitzapen obraren bat egiteko eta errentagarri bihurtzeko arazoak, batik bat nekazari txikien kasuan.
- Langileak ez ezik familia osoak ere bizi behar direnean arazoak orduan eta handiagoak dira eta adostasuna txikiagoa.
- Proporzioa kontuan hartuta, Europako Elkarteko ekimenak oraindik ere oso urriak dira (Lezan eraikitzen ari diren aterpetxea), nekazari bakoitzaren arazoa konpondu ahal izateko. Aipaturiko ekimenari, nekazarien arteko akordioak gehitu behar zaizkio (norberaren lokala lagatzea, beste nekazari batentzat lan egiten duen sasoikako langileentzat, zenbait egunetan), eta upategi handietariko batzuek horretarako gaituriko instalazioak ere aintzat hartzekoak dira.
- Arazoa euren baliabideekin konpontzeko aukerak aldagarriak dira zonen arabera (patataren zona edo mahats-bilketaren zona) eta ustiakuntza bakoitzaren neurriaren nahiz gaitasun ekonomikoaren arabera.
- Sasoikako langileen bizileku beharrezko buruzko kalkuluak, Arabako Errioxan, 8.000 lekutik gora dira beti; kopuru hori, gainera, gero eta handiagoa da, baita egonaldiaren iraupena ere (beste lan batzuetan jarduteko). Aldiz, baldintza oneko lekuen erabilgarritasuna oso mugatua da. Horrenbestez, jarduketak sustatu behar dira, oraingo mugak zuzentzeko eta etorkizun hurbilari aurre egin ahal izateko.

Hori guztia kontuan hartuta, Arartekoak, sasoikako pertsonen duintasuna eta bizi baldintzak defendatzeko, **gomendio orokorrak** egin zituen 1997an eta 2000n, sasoikako langileen bizilekuen baldintzak arautzeko buruz. Horietatik azkenean (txosten honetako II. eranskina):

1. Ikusitako errealitatea eta bete beharreko beharrezkoak aztertzen dira.
2. Beste erkidego batzuetan antzeko egoerarako sustaturiko ekimenei eta proiektuei buruzko informazioa ematen da (Andaluzia, Katalunia, Errioxa, Nafarroa, Aragoi...).
3. Bizilekuen arazoa eskumenen ikuspegitik aztertu (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, inplikaturiko udalerrak) eta horren arauetarako beharrezko tresna juridikoak proposatzen dira.

4. SASOIKAKO LANGILEEN SEME- ALABEN ESKOLATZEA

Orain arte eskainitako datu askok agerian jartzen dutenez, zona horretan familiarekin batera iritsitako umeak daude. Izan ere, bizilekuei buruzko datuen bilketa sistematiko askoren helburua ume horien egoera eta bizi baldintzak hobeto ezagutzea izan da, eta, horretan oinarrituz, gizarte edota hezkuntzako jarduketak edo programak bultzatzea.

Kapitulu honetan, eskolatzearen gaia aztertuko dugu; hau da, hezkuntzarako eskubidea zein neurritan betetzen den ikusiko dugu, umeak zona horretan dauden bitartean. Baina, lehenengo eta behin, komenigarria da beste gai arazotsu bat planteatzea: **patata edo mahatsa biltzeko lanetan umeek parte hartzen duten ala ez** ikustea.

Orain urte asko ez dela, familietako kide guztiek, edozein adinetakoak izan arren, bilketa lanetan parte hartzen zuten. Umeen lanaren ondorio negatiboek buruz sentsibilizatzearen eta Lan Ikuskapenak egindako jarduketaren ondorioz, halako kasuak, zorionez, gaur egun salbuespenezkoak dira. Azken urteotan, horri lotutako salaketak edo jarduketak gutxi izan dira: Ertzaintzan 2001ean umeen eskubideen aurka jarritako salaketa bat eta Lan Ikuskapenaren urratze akta bat, hiru umeek lan egiteagatik, azken zazpi urteotan.

Patata bilketan, zona batzuetan, ume batzuk oraindik ere lanera joaten dira, eta, adinaren edo gorpuzkeraren arabera, kontrataturiko familiaren gainerako kide guztiekin batera egiten dute lan. Familia horiek ijitoen herrikoak izaten dira, eta, sarritan, umeek lan egiteko debekua euren kulturako ohituren aurkakoa eta familia mantendu behar izatearen aurkakoa izaten da. Horixe gertatzen da, adibidez, dagoeneko familia hedatzen duten 16 urtetik beherakoen kasuan.

Arruntagoa da egunez bizilekuan gelditzen diren adin txikiko neskek ikustea, nebarreba edo lehengusu-lehengusina txikienak zaintzen eta euren adinerako ezegokiak diren lanak zein erantzukizunak hartzen.

Egoera horiek, jakina, eragin handia dute eskolatzeko benetako aukeretan, eta horixe da lehenengo kapitulu honetan aztertuko dugun alderdia.

Sasoikako familietako umeen eskolatzeari dagokionez, hemen zazpi alderdi aztertuko ditugu:

- Ume horiek zonako zein lekutan dauden eta zenbat diren.
- Nekazaritza kanpainan zer eskolatzeko maila duten.
- Zenbait faktoreri dagokienez (esaterako, adina edo jatorria) dituzten ezaugarriak.
- Azken urteotako bilakaera.

- Eskolatzeko egokirako oraindik dauden zailtasunak.
- Gizarte-eragile batzuek garatutako eginkizuna.
- Hezkuntza sistemak horien beharrezanean emandako erantzuna hobetzeko pausoak.

4.1 Adin txikikoak lekutzea eta kuantifikatzea zonan

Ume horiek zonan duten presentzia (mahatsa eta patata biltzeko kanpainetan) eta banaketa geografikoa euren familien berdina da. Horrela, Era Berri eta Hezilan elkarteek azken kanpainan (2001) egindako “zentsuetan”, honako datu hauek jaso dira:

- Arabako Mendian: 96 ume, 14 biztanle gunetan kokaturiko familietan.
- Aguraineko Taldean: 30 ume, 8 biztanle gunetan kokaturiko 10 familietan.
- Arabako Errioxan: 298 ume, bisitaturiko 10 herritan finkaturiko 80 famili talde ingurutan.

Ez dugu ahaztu behar datu horien behaketa “gutxienez...” gisa interpretatu behar direla: alde batetik, bisitaturiko lokaletan eta gunetan “zentsaturiko” umeak dira (eta ez sasoikako langileak dituzten udalerrri guztietako umeak); beste alde batetik, “ume” hitza esangura zabaleran erabiltzen da: sasoikako familia askoren ustez, euren seme-alaba gaztea dagoeneko ez da umea. Horrenbestez, **datuak laburbiltzeko esan daiteke, 2001ean, aipaturiko hiru eskualdeetarako ezarkuntzetara egindako bisitaldietan, familiekin bizi ziren 424 umeri buruzko datuak bildu zirela, eta umeok bisitaturiko udalerrri eta biztanle gunerik gehienetan banatuta daudela.** (Herrien araberrako banaketari buruzko datuak eta beste datu batzuk 3.2, 3.3., 4.6 eta 3.8tik 3.16ra bitarteko tauletan ikus daitezke)

Aurreko urteetako zifrak, memoria batzuetatik ateratakoak (2000. urtean zentsaturiko 541, etab.), txosten arruntetan ikus daitezke eta **banaketa nahiko antzekoa erakusten dute** (99 Mendian, 35 Lautadan eta 407 Arabako Errioxan, 2000. urtean...). Gainera, familiarik eta umerik gehienak behin baino gehiagotan iristen dira zonara, urterik urtera.

4.2 Adin txikiko horien eskolatzeko maila

“Eskolatzeko maila” adierazpidearen bitartez, oso oinarritzekoak diren bi alderdi bildu nahi ditugu: 1) ume horietatik zenbat joan diren eskolara (gutxienez egun batean); 2) zenbat denboran joan diren eskolara. Gainera, horiek jasotzen dituzten ikastetxeei buruzko zeharkako informazioen bat ere ematen dugu.

- Azken kanpainan zentsaturiko 424 umei dagokionez, **eskolaturiko kopuruari eta eskolatu gabekoen kopuruari buruzko datuak** hurrengo koadroetan laburbilduta daude, Arabako Mendiari eta Errioxari buruzko koadroetan:

4.1 taula: Arabako Mendiko sasoikako familietako adin txikikoen eskolatzeta maila (2001)

ZENTSAT. UMEAK	ADINAREN ARABERAKO BANAKETA	ESKOLATUAK	ESK. GABEAK	ESKOLATZEAREN %
96	3 urtetik gorakoak: 78 3 urte edo gutxiagokoak:	38 2	40 16	% 49 % 11
GUZTIRA	96	40 ⁽¹⁾	56	% 42 ⁽¹⁾

(1) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren datuen arabera, eskolatuak 43 izan ziren (4 Maeztun eta 39 Kanpezun), eta beraz, eskolatzeta maila % 45 izango litzateke.

(Iturria: Era-Berri, Memoria 2001. Montaña alavesa. Geuk landuta)

4.2 taula: Arabako Errioxan zentsaturiko sasoikako familietako adin txikikoen eskolatzeta maila (2001)

ZONA	ZENTSAT. UMEAK	ESKOLATUAK	ESKOL. GABEAK	ESKOLATZEAREN %
Eltziego	156	67	89	% 43
Lantziego	142	51	91	% 36
GUZTIRA	298	118	180	% 40

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

Taula horietan jasotako datuei, bestalde, Arabako Lautadako datuak gehitu behar zaizkie. Zona honetan, zentsaturiko 30 umeetatik 5 baino ez dira eskolatu, gehienez jota lau egunetan, Marcos Sagasti LHian (Agurain).

Horrenbestez, **gutxienez egun batean zonako eskolalara joan diren umeen proportzioa % 38koa da** (424etatik 159).

Egin-eginean ere, zentsaturiko 424 ume horietariko batzuk ez dira zuzen-zuzen eskolatu, hiru urtetik beherakoak baitira. Baina datu hori, berriz, umetzat zenbatu gabeko gazteen datuarekin konpentsatzen da. Beste alde batetik, datu horietan zenbait lekutan eskolaturiko (41 ume) eta eskolatu gabeko (ez dago daturik) sasoikako biztanleria jasotzen da, esate baterako, Oionen eta horren inguruan dauden sasoikako familietako umeei dagokienez, eta Treviñoko LHilko eskolatzeta maila ere jasotzen da. Nolanahi ere, aztertutako laginaren bolumena kontuan hartuta, ume horien eskolatzeta mailari buruzko datua (500 umetik 200 inguru) nahiko fidagarria da.

- Ikusi dugunez, sasoikako familiarik gehienak egun kopuru aldagarrian gelditzen dira zonan, eta egonaldia gutxitan izaten da hiru edo lau astetik gorakoa. Gehienetan, irailleko azken asteak eta urriko zatirik handiena izaten dira; hau da, eskolako egutegiaren arabera eskola-asteak dira. Ikuspegi horretatik begirata, lortutako benetako eskolatzeta maila baloratzeko, eskolara joandako ume kopurua jakiteaz gain, garrantzitsua da **eskolara zenbat egunetan joan diren** jakitea.

Hurrengo taulan eta grafikoetan, datu horretarako hurbiltze batzuk egiten dira:

4.3 taula: Sasoikako familetako adin txikikoen eskolatzate datuak, Arabako Errioxako ikastetxeetan (2001)


IKASTETXEA	ESKOLATURIKO IKASLE KOPURUA	ESKOLARA JOANDAKO EGUN KOPURUA	BATEZ BESTEKO JOATEA (IKASLE KOPURUA)
Eltziego LHI	41	22	16
Victor Tapia LHI (Biasteri)	34	17	12
SamaniegoBHI (Biasteri)	4 ⁽¹⁾	-	-
Lantziegoko Ikastola (LHI)	39	13	13
Ramiro de Maeztu LHI (Oion)	41	-	-
GUZTIRA	159	-	-

(1) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak emandako datuen arabera, Biasteriko Institutuan eskolaturiko ikasle kopurua 5ekoa da.

(Iturriak: Hezilan, Memoria 2001, eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza. Geuk landuta)


5. grafikoa: Sasoikako familetako adin txikikoak eskolara joatearen bilakaera, Arabako Errioxako ikastetxeetan (2001)

Eskolara joandakoen kopurua



(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa. Geuk landuta)

6. grafikoa: Eskolara joandako egun kopuruaren bilakaera, Campezo Yoar LHIn (2001eko iraila-urria)



(Iturria: Era-Berri, Memoria 2001)

Grafikoetan, kanpainako asteetako eskolaratzearen bilakaera ikusten da; eskolatzeko hori kanpainaren erdian pilaturik dago, eta, azkenerantz, eskolatzeko murriztu egiten da.

Batez bestekoa eskolatzeko buruzko datuek, beste alde batetik, errealitatearen ikuspegi egokiagoa eskaintzen dute: alde batetik, egunen batean eskolaturiko umeak (adibidez, 41 Eltziegoren edo 39 Lantziegoren), eta bestetik, modu erregularrean eskolaturikoak (esaterako, batez beste, 16 Eltziegoren edo 13 Lantziegoren). Horrenbestez, **eskolatzeko buruz eskaintako % 38ko datua datu berri hau kontuan hartuta interpretatu behar da: horrela, benetan lortutako eskolatzeko erdira baino gehiagora murrizten da**, lehenengo datuan adierazitakoari dagokionez, eta beraz, ez da % 20a iristen.

4.3 Eskolaturiko adin txikikoen adina eta jatorria


Ikastetxeen antolaketari dagokionez, faktore batzuk, esate baterako, adina, jatorriko lekuetako eskolatzeko edo umeen jatorria (batez ere, beste hizkuntza bat duten herrietako umeak direnean), oso garrantzitsuak dira.

- Zonan dauden **umeen adinari dagokionez**, ez dago datu fidagarririk (ez da halako datuak bildu), baina adin guztietako banaketa arrunta dagoela pentsa daiteke.

Hala eta guztiz ere, eskolaturiko umeek adinaren arabera duten banaketa oso desberdina da: Lehen Hezkuntzako adinetan eskolaturikoen proportzio handiagoa, txikiagoa lehenengo adin tartetean, eta 12 urtetik gorakoen ia salbuespenezko eskolatzea.


Joera horiek erabilitako datu guztietan ikusten dira. Adibidez, honako eskualde hauetan eskolaturiko umeek adinaren arabera duten banaketa eskainiko dugu: Arabako Mendia (7. grafikoa), Arabako Errioxako zenbait ikastetxe (8. grafikoa), eta azken kanpainen eskolaturiko sasoikako ume guztiak hezkuntza etapen arabera duten banaketa ere adieraziko dugu (9. grafikoa).

7. grafikoa: Arabako Mendian eskolaturiko ikasleek adinaren arabera duten banaketa (2001)




(Iturria: Era-Berri, Memoria 2001. Geuk landuta)

8. grafikoa: Arabako Errioxan eskolaturiko ikasleek adinaren arabera duten banaketa (2001)



(Iturriak: Hezilan, Memoria 2001. Geuk landuta)

9. grafikoa: 2001ean eskolaturiko sasoikako ikasleen banaketa, hezkuntza etapan arabera



(Iturria: Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza)

Aurreko kanpainetako datuak ere oso antzekoak dira. Aurreko ikasturtean, esate baterako Haur Hezkuntzan eskolaturiko umeak 45 izan ziren, Lehen Hezkuntzan eskolaturikoak 117 eta DBHn eskolaturikoak 13.

Beharrezkoa da, horrenbestez, desberdintasun horiek azaltzen dituzten zergatiak aztertzea eta eskolatzeko handiagoa lortzeko zailtasunak gainditzea, batez ere, Haur Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

- **Ume horien jatorriari eta euren jatorriko herrietako eskolatzeko baldintzei dagokienez**, honako ohar hauek egin daitezke:

- Jatorri eta egoera oso desberdinak daude, eta hori euren jatorriari buruzko datuetan ikusten da. Egoera batzuek, zalantzarik gabe, eskola erantzuna errazten dute: jatorriko herrietako eskolatzeko normalizatua, hizkuntza berbera (irakaskuntzako tresnatzat), antzeko hezkuntza sistema... sasoikako familietako umeen jatorriari eta eskolatzeari buruzko datuak (azken urtean Arabako Errioxan zentsaturiko umeak) 4.4 eta 4.5 tauletan adierazita daude.

4.4 taula: Eltziego zonako sasoikako langileen, umeen eta eskolaturiko umeen jatorria

JATORRIA	FAMILIAK	PERTSONAK	UMEAK	ESKOLATUAK
GAZTELA-LEON	13	140	39	18 (% 46)
GALIZIA	6	120	38	25 (% 66)
PORTUGAL	8	93	20	7 (% 35)
ANDALUZIA	1	22	16	2 (% 12)
VALENTZIako ER.	2	24	10	4 (% 40)
KATALUNIA	2	26	10	5 (% 50)
ASTURIAS	2	43	9	1 (% 11)
EAE	3	32	6	2 (% 33)
MADRIL	3	33	6	3 (% 50)
ERRIOXA	1	7	2	1 (% 50)
NAFARROA	1	20	0	0 -
GUZTIRA	42	560	156	68 (% 44)

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa)

4.5 taula: Lantziegoko zonako sasoikako langileen, umeen eta eskolaturiko umeen jatorria (2001)

JATORRIA	FAMILIAK	PERTSONAK	UMEAK	ESKOLATUAK
PORTUGAL	10	136	43	16 (% 37)
GAZTELA-MANTXA	7	89	38	24 (% 63)
GAZTELA-LEON	5	63	21	6 (% 29)
EAE	2	34	12	0 (% 0)
NAFARROA	4	52	10	3 (% 30)
ASTURIAS	3	26	5	1 (% 20)
ARAGOI	3	24	4	0 (% 0)
MADRIL	3	25	3	0 (% 0)
KATALUNIA	1 ⁽¹⁾	20	0	0 -
MAROKO	1 ⁽¹⁾	20	0	0 -
GUZTIRA	39	489	136	50 (% 37)

⁽¹⁾ Taldeak dira, eta ez familiak.

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa)

- Oso zaila da beste herri batzuetako umei arreta egokia eskaintzea, beste hizkuntza eta hezkuntza sistema bat baitute. Horixe gertatzen da Portugaletik iritsitako sasoikako familietako seme-alaben kasuan, talde hori oso ugaria baita zona batzuetan.
- Irakasleek egindako balorazioaren arabera, kasu askotan badirudi umeak jatorriko herrietan ez direla eskolatuta egon eta balorazio hori oso interesgarria da. Datu hori lortzeko, gehienetan, umeek eskainitako informazioa erabili da, eta gainera, eskolaturiko eskola ohiturak behatzea edo aurretiazko ezagutzak aztertzea ere lagungarria da ondorio hori ateratzeko. Nekez jakin daiteke ikusitako egoerak eskolaturik ez egotearen ondoriozkoak (kontuan hartu derrigorrezko maileri buruz ari garela) edo eskolatzeko hori noizean behingoa izatearen ondoriozkoak ote diren, edo gutxieneko emaitzak lortzeko aukerarik ematen ez duten baldintzetan egitearen ondoriozkoak ote diren. Nolanahi ere, errealitate hori hezkuntza eskubidearen aurkakoa da eta ahultasun bereziko egoeran dagoen talde batean dauka eragina.

- Irakasleek emandako informazioaren arabera, eskolatzerik ezako errealitatea oso larria da Portugaletik iritsitako biztanleen artean, eta horiek nomadatzat har daitezke (kanpaina batetik bestera dabilta, ia euren jatorrizko herrira itzuli gabe).
- **Sasoikako familietako umeek zonan duten eskolatzeko maila** aztertzeke beste modu bat azterketa hori **herrien arabera** egitea da. Datuek agerian jartzen dutenez, leku batzuetan finkaturiko biztanleriak kasurik gehienetan seme-alabak eskolara bidaltzen ditu (% 73 Lantziegon edo % 64 Baños de Ebron, azken urtean); beste udalerrri batzuetan finkaturiko biztanleriak, aldiz, ez ditu seme-alabak eskolara bidaltzen, edo kasu oso gutxitan bidaltzen ditu. Segururik, zenbait faktorek (esate baterako aurreko urteetako sentsibilizazio nahiz jarraipen lana, ikastetxearen hurbiltasuna edo familia bakoitzaren ezaugarriak) eragina dute eskolatzeko maila desberdinean, eta hori 4.6 taulan ikusten da, Arabako Errioxako herriei dagokienez.

4.6 taula: Arabako Errioxako herrietan finkaturiko famili unitateetan zentsaturiko sasoikako langileen eta umeen banaketa (2001)

HERRIA ⁽¹⁾	PERTSONA K.	HELDUAK	UMEAK	ESKOLATURIKO UMEAK	
				KOP.	(%)
BAÑOS DE EBRO	87	59	28	18	% 64
KRIPAN	27	22	5	0	% 0
ELTZIEGO	301	214	87	36	% 37
ELVILLAR	97	73	24	6	% 25
LA PUEBLA DE LABARCA	38	24	14	3	% 21
BIASTERI	61	40	21	3	% 14
LANTZIEGO	213	162	51	37	% 73
LEZA	41	32	9	4	% 44
NAVARIDAS	22	16	6	2	% 33
PÁGANOS	7	4	3	0	% 0
SAMANIEGO	92	74	18	7	% 39
VILLABUENA	10	5	5	0	% 0
VIÑASPRE	12	12	0	0	-
YÉCORA	85	58	27	2	% 7
GUZTIRA	1.093	795	298	118	% 40

⁽¹⁾ Ez da herri batzuetako daturik jaso (adibidez, Oion, Labastida edo Moreda de Álava).

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Rioja alavesa)

Nolanahi ere, gure arteko eskolatzeko aldi laburra aprobetxatu egin beharko litzateke, hemen adierazitako errealitate batzuk hobeto ezagutzeko (jatorrian egindako eskolatzeko; hizkuntz beharrianak), baita datuetan jaso gabeko beste errealitate batzuk hobeto ezagutzeko ere, esate baterako, generoaren araberrako eskolatzeko: nesken eta mutilen presentzia eta eskolatzeko mailak). Horrela, segururik, hurrengo urteetako erantzunak hobeto egokituko ditugu.

4.4 Azken urteotan ikusitako bilakaera

Zailtasunak egon arren (planifikazioa, ia berehalakoak diren erantzunen antolaketa, beharrianak denbora laburrean pilatzea, eskola eskaintza urriko zonetan...), argi dago

azken urteotan aurrerapauso handiak eman direla ume horien eskolatzeari bultzatzeko. Pauso horien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Gizarte sentsibilizazioko jarduerak egin dira, sasoikako biztanleriak eremu normalizatuetakoa eskolatzeari dagokionez dituen zalantzak gainditzeko (zonako ikastetxeak).
- Gero eta zona gehiagotan, gizarte edota hezkuntzako programak egin dira, eskolatzeari errazteko.
- Hezkuntza eskaintzaren aukerak handitu egin dira, programan baliabide berriak sartuta (ikastetxe gehiago, laguntzako irakasleak, eskolako garraioa, jantokia, materialak).

Urte hauetan egindako jarraipenak eta bildutako datuek aurrerapenak ikusteko aukera ematen dute, aipatutako edozein arlotan: gizarte sentsibilizazio, gizarte edota hezkuntzako programak eta eskolako eskaintzaren nahiz baliabideen ugartzea.

Erakundeek egindako ahaleginetariko batzuei dagokienez, kuantifikatze ekonomikoa egin daiteke. Horrela, esate baterako:

- Zenbait elkarterekin egindako **hitzarmenak**, zonak gizarte edota hezkuntzako programak egiteko egindakoak, Arabako Foru Aldundiko aurrekontuen kontura izan dira (Gizarte Ongizate Saila); horien urteroko zenbatekoak, lehenengo urtean (1997), 624.356 pta.koak izan dira, eta azken urtekoak, berriz, 3.139.379 pta.koak. (Urteroko banaketa txosten honetako 6.2 atalean jasota dago).
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak azken urte honetan eskainitako **baliabide bereziak**, ordezkaritza horrek emandako informazioaren arabera, honako zifra hauetan laburbil daitezke:
 - Kanpainen, irakasle kopuruak 16 irakasleko hazkundera izan du: 3 Eltziegoko LHian; 3 Lantziegoko ikastolan (LHI); 3 Biasteriko Victor Tapia LHian (horietatik bat urte osoan); 3 Oioneko Ramiro de Maeztu LHian; 1 Samaniegoko BHIaren menpekora den Oionekoan; 2 Kanpezuko Yoar LHian.
 - Eskolako materialean emandako laguntzak: 13.137,86 euro (2000-2001 ikasturtean: 4.592.522 pta.)
 - Jantokirako laguntzak: 10.500,63 euro (2000-2001 ikasturtean: 1.729.522 pta.)
 - Eskola garraiorako laguntza: 689,85 euro (2000-2001 ikasturtean: 280.000 pta.)

Kasu honetan ere, aurreko urteetako zifrekin konparatuta ikusten denez, ikastetxeen eskura jarritako baliabideek goranzko bilakaera izan dute.

Segurutik, erakunde desberdinen ekintza bateratuari esker, eskolatzeari maila jakina lortu ahal izan da; horrek, oraindik ere muga handiak egon arren, ez du antz handirik, orain urte gutxi batzuetako egoerarekin. Sasoikako familien presentzia duten zonetako ikastetxe askotan, eskolatzeari maila onargarria lortu da, eta hori nahiko egonkor mantendu da azken urteotan. Adibidetzat, hurrengo koadroan, Arabako Errioxako hiru ikastetxeen eskolatzeari bilakaerari buruzko datuak jaso ditugu:

4.7 taula: Sasoikako familietako umeen eskolatzeak Arabako Errioxako ikastetxeetan izandako bilakaera (1997-2001)

Eltziegoko LHI	1997. urt.	1998. urt.	1999. urt.	2000. urt.	2001. urt.	B. BEST.
Joandako egunak	20	15	15	25	22	19
Eskolaturiko guztiak	107	43	25	63	41	56
Eskolaturikoen eguneko b. best.	35	24	15	17	16	21
Joate handieneko eguneko ikasle kopurua	50	35	18	29	27	-
Victor Tapia LHI (Biasteri)	1998. urt.		2000. urt.		2001. urt.	B. BEST.
Joandako egunak	-	15	-	33	17	22
Eskolaturiko guztiak	-	25	-	44	34	34
Eskolaturikoen eguneko b. best.	-	15	-	15	12	14
Joate handieneko eguneko ikasle kopurua	-	18	-	28	27	-
Lantziego Ikastola (LHI)				2000. urt.	2001. urt.	B. BEST.
Joandako egunak	-	-	-	19	13	16
Eskolaturiko guztiak	-	-	-	47	39	43
Eskolaturikoen eguneko b. best.	-	-	-	30	13	21
Joate handieneko eguneko ikasle kopurua	-	-	-	34	26	-

(Iturria: Hezilan, Memoria 2001. Geuk landuta)

4.5 Gizarte-eragileen eta erakundeen zeregina

Gure gizartean, adin bitarte jakina duten umeen eskolatzeko zerbitzua gauzatzeko eta bermatzeko ardura duen unitatea edo erakundea **ikastetxea** da. Horri dagokionez, aztertutako eskualdeetan dauden ikastetxerik gehienek (ia ikastetxe publiko guztiak), apurka-apurka, sasoikako familien beharrezanean erantzun egokia emateko ardura berenganatu dute, denbora mugatua eta antolaketa mailako arazoak gaindituz.

Ikastetxeko eskola antolaketa zailtzen duten faktoretariko batzuk lehendik ere aipatuta daude: aurretiazko eskolatzeko baldintzak, hizkuntza desberdina, egonaldi laburra... Orain arte aipatu ez den beste faktore bat ikastetxeen neurria eta antolaketa da: kasu askotan, ikastetxe nahiko txikiak dira eta hizkuntza eredu jakinak dituzte; horrek ume horien gizarteratzea eta eskolatzeko oztopatu egin dezake, lokal egokirik ez egotearen ondorioz.

Halaber, beste faktore garrantzitsu bat ere badago, ikastetxeari lotuta ez dagoena, eta horrek guztiz baldintzatzen du eskolatzeko maila. **Familia** bakoitzak seme-alaben eskolatzeari ematen dion balioa da, hain zuzen ere, zonan dauden bitartean umeak eskolatzeko ala ez eskolatzeko erabakia. Izan ere, familia horietariko askoren eskolatzeko eskaria (edo, beste modu batera esateko, hezkuntzarako eskubidea bermatzeko eskakizuna) txikia izaten da. Sarritan ez dituzte euren umeak eskolatu nahi izaten, eta, horretarako, era guztietako arrazoiak ematen dituzte: *“azken batean, egun batzuk baino ez ditugu bertan egingo”*; *“ezin du joan, txikiak zaintzen gelditu behar duelako”*; *“joango da itzultzen garenean”*; *“ez dugu autobusean joaterik nahi”*; *“urrunege dago”*, *“nola eramango dut hain zikin egonik”*...

Hain zuzen ere, ikuspegi horretatik, gero eta indar handiagoa hartzen du zenbait zerbitzuren eginkizunak, edo eskolakoak ez diren programa batzuen zereginak, esate baterako, **oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizunak eta gizarte edota hezkuntzako programen eginkizunak**; horiek Gizarte Ongizate Sailak sustatu eta zenbait elkartek kudeatzen dituzte.

Urte hauetako esperientziak erakutsitakoaren arabera, eskolatzea errazteko eta oztopoak gainditzeko, beharrezkoa da gizarte zerbitzuen eta hezkuntza eragileen arteko ekintza bateratua, nahiz eta bakoitzak bere eskuhartze ereduak eduki: batzuek eskola eta besteek gizarte ingurua.

Edozein ikastetxetara joanda edo egindako gizarte edota hezkuntzako programei buruzko edozein memoria irakurrita ikusten denez, eskolatzea errazteko lanak era askotakoak izan daitezke: umeak aurkitzea, familiekin hitz egitea, eskolatzeko aukera zehatzak eskaintzea, eskariak ikastetxeetarantz bideratzea, higieneko zaintzak eskaintzea, umeei laguntzea (sartzeko eta irteteko unean), eskolatik kanpoko jarduera osagarriak antolatzea...

Eskolatzea lortu denean, kasurik gehienetan, hori erakunde desberdinen esfortzuak, baliabideak eta ekimenak biltzearen eraginezkoa izan da: alde batetik, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Saila eta Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza; bestetik, zonetan, oinarrizko gizarte zerbitzuak, ikastetxeetako zuzendaritzak nahiz irakasleak eta gizarte edota hezkuntzako programak egiten dituzten elkarteak.

4.6 Eskola erantzuna hobetzeko zailtasunak eta aukerak

Kanpainan ikastetxetara egindako bisitaldiak edo Hezkuntzako Gizarte Ordezkaritzako nahiz Gizarte Zerbitzuetako arduradunekin izandako harremanak ez ezik, Arartekoak (txosten hau egiteko) laneko bilera bereziko deialdia egin zuen, esku hartzen duten agenteekin batera sasoikako biztanleriaren eskolatzearen arazoa eta hori konpontzeko aukerak aztertzeko. Bilera horretara, Hezkuntzako Ordezkaritzako, gizarte zerbitzuetako, ikastetxeetako eta gizarte edota hezkuntzako programak dituzten elkarteetako ordezkariek joan ziren. Jasotako erantzunetarikoz batzuk berriro aztertuko dira gomendioen kapituluan. Hala eta guztiz ere, hemen, labur-labur, nabarmendutako **arazo nagusienetarikoz batzuk eta egon daitezkeen hobekuntzak** aipatuko ditugu:

- 0-3 urte bitarteko umeak eskolatzeko aukerak aztertzea.
- Generoko ikuspegia kontuan hartzea (neba-arrebarik gazteenak zaindu behar dituztelako eskolara ez doazen neskek).
- Jatorrian egindako eskolatzearikiko loturarako aukera, halako eskolatzetik egonez gero.
- Portugaletik iritsitako nomaden taldearen beharrezkoak.
- 12 urtetik gorakoek ikastetxera joan nahi ez izatea, eskolatzea bertan behera utzi dutelako, maila egokirik ez dutelako edo ohiturarik ez dutelako.
- Ikastetxeen eta gizarte edota hezkuntzako programen arteko koordinazioa hobetzea, erantzukizunak argituz eta jarduketak konbinatuz.

- Ikastetxeen arteko esperientziak trukatzeko aukera.
- Programak hastea eta ikastetxeei laguntzako irakasleak eskaintzea, sasoikako langileak iritsi baino lehen.
- Vitoria-Gasteizetik hurbil finkaturiko biztanleriak seme-alabak hirira bidali nahi ez izatea (kasuan kasuko ikastetxeetara, eskola maparen arabera).
- Hezkuntza erantzunak taldearen beharrianetara hobeto egokitzea (oinarrizko helburuak dituzten programa bereziak)..

Nolanahi ere, esku hartzen duten eragileek azken urteotan emandako pausoei buruz egindako balorazioa oso positiboa da.

5. GIZARTERATZEKO AUKERAK ETA BAZTERTURIK GELDITZEKO ARRISKUAK

Sasoikako langileen taldeak gizarteratzeko dituen benetako aukerak zenbait faktoreren arabekoak dira (aurreko kapituluetan aztertutako faktoreak): lan eta bizileku baldintza duinak, eskolatzeko normalizatuia... Baina gizarteratzea faktore subjektiboek eta kulturalak ere baldintzatzen dute, bai zonara doazen taldeen eta bai bertako biztanleen faktoreek. Atal honetan, gizarteratzearen aldeko edo aurkako eskuhartzei buruzko informazio batzuk jasoko ditugu.

Lehenengoan artean, aipagarriak dira sentsibilizazio programak, boluntarioen partaidetza, umeei zuzendutako astialdiko jarduerak eta eskubideei edo zerbitzuei buruzko informazioa.

Sasoikako laneko programetan inplikaturiko gizarte-eragile guztien ustez, **sentsibilizazioa** garrantzi handikoa da, bai bertako biztanleen eta bai sasoikako taldeen sentsibilizazioa. Egin-eginean ere, urte hauetan, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak sustaturiko eskuhartze programetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta elkarte desberdinen bitartez sustaturikoetan (Caritas, Era Berri eta Hezilan, gehienetan; elkarte Afroamerikarra eta Gurutze Gorria, urteren batean), gizarte sentsibilizazioa oinarrizko helburutzat jaso eta, horretarako, zenbait jarduketa egin dira:

- zona guztietan kartelak eta informazio triptikoak egitea eta zabaltzea, egoera jakinetan dauden zerbitzuei, baliabideei edo jarduteko aukerei buruz;
- informazio zuzena, bai nekazariei eta bai sasoikako langileei, informazio bulegoen bitartez;
- informazio zuzena, bizilekuetara eta lantokietara bisitaldiak eginez;
- astialdiko jarduerak egitea, eskolako orduetatik kanpo, eta horietan ume guztiek hartu ahal izango dute parte;
- zonetako gizarte-eragileen lankidetzak bilatzea: boluntarioak, Elizako elkarteak, ikastetxeetako guraso elkarteak...
- hitzaldiak, erakusketak, kanpainak eta jarduerak antolatzea gizartearen sentsibilizazioa eta inplikazioa lortzeko...

Eskuhartze horietatik gehienak bilketa kanpainen aurreko egunetan eta bilketa egunetan pilatzen dira. Zonako herrietako biztanleria egonkorrari zuzendutako batzuk, hala eta guztiz ere, urteko beste aldi batzuetan ere antolatu dira.

Elkarte eta zerbitzuek aurkeztutako memoriak, urte hauetan egindako jardueren deskribapena jasotzen da, baita partaidetzari buruzko datu batzuk ere; oro har, apurka-apurka lortzen ari den sentsibilizazio mailari buruzko balorazio positiboa egiten da. Halaber, zailtasun batzuk ere jaso dira, esate baterako kasu batzuetan dagoen erantzun

edo partaidetza eza, eta, batik bat, nekazariak eta sasoikako langileak batzuetan duten zalantza, datuak emateko edo instalazioetan sartzeko baimena emateko orduan, halako jarduketak erakundeen kontrol sistematizat hartzen baitituzte.

Lortutako inplikazio mailei dagokienez, zonako gizarte edo eskola zerbitzuak albo batera utzita, segurutik, aipagarriena zonako **boluntarioen partaidetza** da, zerbitzu batzuen kudeaketan (aterpetxeak, jantokiak, jantzitegiak), edo ikastetxe batzuetako elkarteek gizarte edota hezkuntzako programetan edo egindako jarduera batzuetan (kanpainetan egindako jarduerak) izandako konpromisoa.

Aldiz, aurkako jarrerari dagokienez, txosten honetako beste kapitulu batzuetan aztertutakoak bezalako lan edo bizileku baldintzak egoteaz gain, **bazterkeri joera batzuk** aipa daitezke.

Arabako Errioxako herri batzuetan, kanpaldiak debekatu egin dira, inolako aukera edo arauketarik eskaini gabe. Beste leku batzuetan, sasoikako langileak mahats-bilketa amaitu ondoren herrian bertan gelditzean, bertako pertsona edo agintari batzuek Ertzaintzaren eskuhartzea eskatu dute langileok bertatik kanporatzeko.

Gizarteratzea errazteko ikuspegitik begiratuta, oso zaila eta kontraesanez betea da **atzerriko sasoikako langile askoren egoera**, ez baitute lan egiteko baimenik, eta, horrenbestez, ezin baitaie legezko kontraturik egin. Egoera horren **arriskuak** agerikoak dira, eta aztertutako eremuan barik, soluzioak inmigrazio politika orokorretan bilatu behar dira.

Mahats-bilketan sasoikako langileen kopuru handia egoteak tradizio luzea dauka; hala ere, langile taldeak edo familia osoak nekazaritzako beste lan batzuk egiteko zenbait hilabetetan gelditzea joera nahiko berria da. Beraz, gero eta kasu gehiagotan, helburua ez da egun batzuetako bizikidetzat lortzea, pertsona horien gizarteratze egonkorragoa lortzea baizik.

Horretarako, txosten honetan eskainitako datuak ez ezik (jatorria, kultura edo hizkuntza desberdinak, edo bizileku eta lan baldintzak), **kopurua ere kontuan hartu behar da**. Ez da ahaztu behar aztertutako zonek biztanle kopuru txikia eta nahiko zaharra dutela, eta herri batzuek sasoi horretan jasotzen duten pertsona kopurua bertako berezko biztanle kopurua baino handiagoa dela. Adibidetzat, Baños de Ebroren kasua aipa daiteke; bertan, 332 biztanle daude errolatuta, eta, mahats-bilketarako, sasoikako 700 pertsona iristen dira. Navaridasen kasua ere aipagarria da; 211 biztanle daude errolatuta, eta, mahats-bilketarako iritsitako sasoikako pertsonak 250 izaten dira. Aintzat hartu behar da, erreferentzia orokortzat, hemen aztertutako udalerrietatik 13, izan ere, 400 biztanletik beherakoak direla, Arabako Mendiko biztanleria osoa 3.000 pertsona baino apur bat gehiagokoa dela, edo Arabako Errioxako biztanleria ez dela 10.000 pertsonatara iristen.

Antzeko egoeran beste leku batzuetan egon diren gatazkak eta esperientzia txarrak kontuan hartu beharrekoak dira, **prebentzioko jarduketak** sustatzeko.

Arartekoak beti esan du, talde horren bazterkeri arriskuak murrizteko eta berorren gizarteratzea sustatzeko, beharrezkoa dela esku hartzen duten pertsona edo eragile

guztiak horien eskubideez eta betebeharez jabetzea, egonaldiko baldintza objektiboek (lan baldintzak, higiene baldintzak...) gizarteratzea ahalbidetzea eta horretarako oztopo ez izatea, eta lan sistematikoa egitea aurreiritzi kulturalak edo beste edozein motatakoak gainditzeko.

6. GIZARTE-ERAGILEAK ETA ERAKUNDEEN INPLIKAZIOAK

Sasoikako biztanleriaren egoera hobetu nahi duen edozein jarduketak gainditu egin beharko du inplikaturiko erakundeen kopuru handiak eta aniztasunak biztanleria horren arazoak konpontzeko sortzen duen nolabaiteko nahastea. Ezaugarri hori oso garrantzitsua da gure kasuan, Arartekoaren eskuhartzea eta horren proposamenak inplikaturiko administrazioetara zuzentzen baitira beti, (eta ez eraginpeko pertsonetara zuzen-zuzen).

Izan ere, sasoikako lana lan modalitate jakina da, eta, halakotzat, kontratua egiten duen nekazariaren edo enpresaren eta sasoikako lana egiteko kontrataturiko pertsonaren arteko kontratu harremanari aplikatzeko moduko lan araudira lotuta dago. Kontratu harreman horretan eskuhartze zuzena egin daiteke. Hala eta guztiz ere, bai lanaren eremuan eta bai aztertutako beste arlo batzuetan, **sasoikako lanaren arazoek inplikazio asko dituzte, plano desberdinetan erantzukizunak dituzten erakundeentzat: udalerrria, lurraldea, Erkidegoa edo Estatua.** Horrela, esate baterako:

- Lan baldintzen kontrolean, erantzukizuna Estatuko Administrazio Nagusiaren menpeko Lan Ikuskapenak dauka.
- Bizilekuen baldintzen arauketan eta kontrolean inplikazio asko dago, eta maila guztietako eskuhartzea egon daiteke: Eusko Jaurlaritzako Sailak, Arabako Foru Aldundiko Sailak eta zonako udalak.
- Umeen eskolatzean, erantzukizuna Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dauka, baina Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailaren menpeko Gizarte Zerbitzuek eta udalek ere inplikazioa dute...

Konplexutasun hori kontuan hartuta, kasurik gehienetan, erakunde desberdinen eskuhartze bateratua edo koordinatua behar da: administrazioak, zerbitzu desberdinak... beste modu batera esateko: arazo bat konpontzeko, sarritan ez da nahikoa administrazio bakarraren eskuhartzea, nahiz eta horrek erantzukizun oso handia izan, konpondu beharreko arazo horretan.

Eskumenak edo erantzukizunak mugatzea beti ez da erraza. Horren adibide bat txosten honetan aurkituko dugu, honako honi buruzko azken gomendioan: *“Sasoikako beharginen alojamenduetako baldintzak arautzea”* (txosten honetako II. eranskina). Gomendioak (hirugarren atalean, proposamenak formulatu baino lehen) eskumenen azterketa egiten du; erakunde komunuen eta lurralde historikoen arteko harremanen barruan, nekazaritza sektoreari eta egoitzako erabilerarako lekuen baldintzei lotutako arloak arautzeko ardura duen organoa zehazteko ahalegina egiten du. Sasoikako langileen bizilekuen baldintzak arautzeko tresna juridikoen proposamena, hain zuzen ere,

eskumenen banaketaren azterketan oinarritzen da, eta maila desberdinetako eskuhartzeen beharrezana edo komenigarritasuna planteatzen du:

1. Eusko Jaurlaritzaren Dekretua, Nekazaritza Sailak proposatuta; instalazioen beharrezana eta horien gutxienezko baldintzak ezartzen ditu.
2. Arabako Foru Aldundiko Foru Dekretua, sasoikako langileen instalazioak egokitzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.
3. Arazo hau eragina duten lurralde antolaketako tresnetan aipatzea (Nekazaritza Lurzoruen Lurralde Plan Sektoriala eta Arabako Errioxako nahiz Araba erdialdeko lurralde plan partzialak).
4. Eraginpeko udalerrietako arau subsidiarioen aldaketetan aurreikuspena egitea.

Gomendioak, hirugarren ataleko testu osoa irakurrita ikusten denez, maila desberdinetako administrazioek esku hartu beharra ez ezik, bakoitzak egindako arauketa gainerako administrazioek kontuan hartu beharra ere planteatzen du, eta “kateko” eskuhartzea proposatzen du.

Baina administrazio desberdinen arteko jarduketa bateratuak edo koordinatuak egin beharrak, maila desberdinetan dauden administrazioetan ez ezik, maila edo jarduketa eremu berekoan daudenetan ere eragina dauka: gobernu beraren sail desberdinak (Eusko Jaurlaritza; Arabako Foru Aldundia) edo zona bereko udaletan.

Bizilekuen edo ezarkuntzen gaiarekin jarraituz, bistakoa da udalerrri jakinean hartutako ekimenak (bai debekatuz, bai arautuz, bai zerbitzuak gaituz) berehalako ondorioak dituela hurbileko udalerrietan, eta ez udalerrian bertan bakarrik. Eta, sarritan, irizpide komunik ez egotearen edo udalerrri batentzat beste batzuek onartu gabeko ekimen batek izan ditzakeen ondorioak ez aurreikustearen eraginez, batzuetan proposamen batzuk geldiarazi edo, zenbait kasutan, zerbitzu jakinak ezabatzeko arrazoitzat erabili dira (adibidetzat, Eltziegion urte askotan gaituriko kanpaldi zonaren esperientzia aipa daiteke, eta horrek udal arduradunen inplikazioa izan du).

Urte hauetako errealitatea aztertuta ikusten denez, koordinaturiko eskuhartzeak errazteko edo kudeatzeko eginkizuna neurri handienez bereganatu duen erakundea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Saila izan da. Eta hori, batik bat, bi bide erabiliz egin du:

- Sasoikako laneko Mahaia aldi berean behin biltzeko deialdia egitea.
- Zonan eskuhartze programak sustatzea eta ekimenei dirulaguntza eskaintzea.

Lan Ministerioak Araban dituen erantzuleek ere partaidetza mahaia sustatu dute, batez ere sindikatuetako ordezkarietara begira, lan arazoak aztertzeko.

6.1 Sasoikako lanaren Mahaia

Arabako Foru Aldundiak sustaturiko sasoikako lan Mahaia inplikaturiko alderdi guztiei partaidetzarako eta koordinaziorako topalekua eskaintzeko asmoz sortu zen. Harrezkero, aldi berean bildu eta osaketa egonkorra mantendu du. Gehienetan, bilkuretarako deialdia Gizarte Ongizate Sailak honako erakunde hauei egin die:

- Eraginpeko zonetako udalak (Samaniego, Lantziego, Biasteri, Leza, Labastida, Eltziego, Agurain, Arana harana...).
- Aldundiko Nekazaritza Saila.
- Aldundiko Toki Erakundeen Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza.
- Lan Ministerioaren menpeko Lan eta Gizarte Gaien Zuzendaritza.
- UAGA.
- Cáritas.
- Arartekoa.

Azken deialdietarikoaren batean, nekazaritzan, lurralde antolaketan edo etxebizitzan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako Saitetako ordezkariak ere parte hartzeko gonbita egin zaie.

Bilerarik gehienak bilketa kanpainak hasi orduko egin dira, eta baliozkoak izan dira kezka eta ekimenak denen artean aztertzeko:

- Aurreikusitako jarduketaren programari, datai eta erantzuleei buruzko informazioa ematea.
- Erakunde desberdinen lankidetzaren eskatzea.
- Egindako azterketen buruzko datuak eskaintzea eta agiriak trukitzea.
- Koordinazio edo solasaldi tresnak ezartzea, arazoak azkar konpontzeko...

Sarritan, bilerak baliozkoak izan dira programak nahiz jarduketak baloratzeko eta ikuspegi desberdinak aztertzeko.

Txosten honetan esan dugunez, urte hauetan sasoikako biztanleriari lotuta egin diren ekimen asko Mahaiaren dinamikatik sortu dira, eta, betiere, bertan aztertu eta ikuskatu ahal izan dira. Arartekoak berak ere, behin baino gehiagotan, Mahaiaren bilerak erabili ditu, bere proposamenak jakinarazteko edo jarduketetarako informazio erabilgarria eskatzeko.

Zalantzarik gabe, eztabaidatzeko modukoa da Mahaia dinamizatzeko arduraren Gizarte Ongizate Sailak edukitzea. Halaber, agian komenigarria izango da beste erakunde batzuen partaidetza bermatzea edo indartzea. Nolanahi ere, azken urte hauetan, Mahaiak eragile desberdinen partaidetza erraztu eta tresna erabilgarria izan da, helburuak lortu ahal izateko.

6.2 Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak sustaturiko edo diruz lagundutako jarduerak, nekazaritzako sasoikako laneko programari dagokionez

Txosten hau egiteko eskatu eta Gizarte Ongizate Saitetik jaso dugun informazioaren arabera, 1995-2001 aldian jasotako dirulaguntzak, onetsitako kontzeptu bereziak eta kasu bakoitzean emandako zenbateko ekonomikoak, urterik urtera, honako datu hauetan laburbilduta daude:

1995eko EKITALDIA

ERAKUNDEA / KONTZEPTUA	PEZETAK
Cáritas Diocesanas: Aguraineko aterpetxea eta Alto Ayuda deritzona	4.061.484
Eltziegoko udala: Osasun moduluak eta garbitokia	804.222
Labastidako udala: "Janari txartelen programa"	29.700
GUZTIRA	4.895.406

1996ko EKITALDIA

"HENAYO" gizarte boluntarioen taldea: "Sasoikako langileekin lan egiteko boluntario programa"	20.000
Cáritas Diocesana: "Sasoikako lan programa Arabako nekazaritza zonan"	2.803.942
Eltziegoko udala: "Osasun moduluak eta garbitokia"	945.000
Biasteriko udala: "Sasoikako pertsonentzako bizilekua"	1.813.500
Labastidako udala: "Janari txartelen programa"	18.500
GUZTIRA	5.600.942

1997ko EKITALDIA

Aguraineko udala: "Sasoikako langileen aterpetxerako ekipamendua"	2.726.655
Eltziegoko udala: "Osasun moduluak"	789.208
Labastidako udala: "Janari txartelen programa"	25.000
Biasteriko udala: "Sasoikako pertsonentzako aterpetxea"	1.819.900
Arana haraneko udala: "Osasun moduluak"	540.000
"HENAYO" gizarte boluntarioen taldea: "Sasoikako langileekin lan egiteko boluntario programa"	21.545
Cáritas Diocesana: "Aguraineko sasoikako langileen programa eta Alto Ayuda deritzona"	2.617.832
Hezilan elkarteak: "Sasoikako familientzako gizarte edota hezkuntzako programa"	624.356
GUZTIRA	9.164.496

1998ko EKITALDIA

Labastidako udala: "Janari txartelen programa"	40.000
"HENAYO" gizarte boluntarioen taldea: "Sasoikako langileekin lan egiteko programa"	22.000
Cáritas Diocesana: "Aguraineko aterpetxea kudeatzeko lankidetzaren hitzarmena eta Informazio eta Koordinazio Bulegoak"	3.873.850
Biasteriko udala: "Sasoikako pertsonentzako aterpetxea"	1.888.836
Hezilan elkarteak: "Sasoikako familientzako gizarte edota hezkuntzako programa"	764.720
Elkarte Afroamerikarra eta Gurutze Gorria: Sentsibilizazio kanpaina	1.062.770
Arana haraneko udala: "Osasun moduluak"	616.000
GUZTIRA	8.268.176

1999ko EKITALDIA

Cáritas Diocesana: "Aguraineko aterpetxea kudeatzeko lankidetzaz hitzarmena eta Informazio eta Koordinazio Bulegoak"	6.336.687
Biasteriko udala: "Sasoikako pertsonentzako aterpetxea"	2.200.000
Eltziegoko udala: "Dutxa zerbitzua eta kultura arteko programa"	1.097.892
Labastidako udala: "Janari txartelen programa"	13.500
Lantziegoko udala: "Kultura arteko ikaskuntza programa"	160.164
"HENAYO" gizarte boluntarioen taldea: "Sasoikako langileekin egindako boluntario programa"	30.000
Hezilan eta Izan elkarteak: Sasoikako familientzako gizarte edota hezkuntzako programak	1.258.326
Arrazakeriaren aurkako programa Labastidan	170.000
Esku-ohene alokairua, Biasteriko aterpetxerako	100.800
Ikastetxeetan banaturiko kultura arteko materiala	28.000
Langileen kontratazioa, Nekazaritzako Sasoikako Lanari buruzko Merkatuko lkerketa egiteko	2.688.665
GUZTIRA	14.084.034

2000ko EKITALDIA

UAGA: Sasoikako Pertsonak Sustatzeko eta Gizarteratzeko nahiz Laneratzeko Programa	1.215.056
Eltziegoko udala: Dutxa zerbitzua sasoikako langileentzat eta Arrazakeriaren aurkako Jardunaldiak	1.431.100
Labastidako udala: Janari txartelen programa	12.500
Biasteriko udala: Sasoikako pertsonentzako aterpetxea eta kultura anitzeko programa	2.774.380
Lantziegoko udala: Arrazakeriaren aurkako jardunaldiak eta kultura arteko ikaskuntza programa	216.121
Aguraingo Sallurtegui emakume elkarteak: Emigrazio eta arrazakeria tailerra	194.900
"HENAYO" gizarte boluntarioen taldea: "Sasoikako langileekin lan egiteko boluntario programa"	40.000
Cáritas Diocesana: "Aguraineko aterpetxerako lankidetzaz hitzarmena eta Informazio Bulegoak"	5.911.134
Hezilan eta Era Berri elkarteak: Sasoikako familientzako gizarte edota hezkuntzako programak	3.596.191
Lleidara egindako bidaia, sasoikako lanari buruzko programak ikusteko	134.306
GUZTIRA	15.525.688

2001eko EKITALDIA

UAGA: Lana Sustatzeko Programa, jatorrian egindako kontratazioa eta Informazio Bulegoa	3.141.977
Kanpezuko taldea: Kultura arteko ikaskuntza programa	430.172
Eltziegoko udala: Dutxa zerbitzua, sasoikako langileentzat	311.555
Labastidako udala: Janari txartelen programa	16.000
Lezako udala: Kultura anitzeko ipuin kontaketa	50.000
“HENAYO” gizarte boluntarioen taldea: “Sasoikako langileekin lan egiteko boluntario programa”	27.360
Cáritas Diocesana: “Aguraineko aterpetxerako lankidetzat hitzarmena eta Informazio Bulegoak”	6.552.187
Hezilan eta Era Berri elkarteak: Sasoikako familientzako gizarte edota hezkuntzako programak	3.139.379
Zenbait gauza: (Bidaiak, argazkiak...)	109.869
GUZTIRA	13.778.499
NEKAZARITZAKO SASOIKAKO LANEKO PROGRAMEN FINANTZIAZIO OSOA, 1995-2001	71.317.241 pta. 428.625 euro

Datu horiek aztertutik ateratzen denez, urte hauetan egindako jarduketarik gehien eza gutza zuzena dagoela kontuan hartuta, alderdi batzuk nabarmendu edo ohar hauek egin daitezke:

- Aztertutako zazpi urteetan, goranzko bilakaera egon da, bai sustaturiko programa kopuruan eta bai dirulaguntza jaso duten erakunde kopuruan.
- Laguntzen ohiko jasotzaileen artean, eraginpeko zonetako udalak, elkarte edo erakunde batzuk (esate baterako Caritas, Hezilan edo Era Berri), boluntario talde bat eta UAGA sindikatua daude.
- Lagundutako programen barruan, gizarte sentsibilizazioko jarduerak eta zerbitzu batzuen kudeaketa sartzan dira, esate baterako, aterpetxeen edo informazio bulegoen kudeaketa. Gehienetan, kosturik handiena azken horiek dute, gizarte edota hezkuntzako programen garapenarekin batera.
- Eskola arreta (hezkuntza administrazioak bere gain hartu du oso-osorik, eta horren datuak txosten honetako 4.4 atalean laburbilduta daude) eta INEMek UAGAk sustaturiko jarduketa batzuei emandako laguntza izan ezik, sasoikako biztanleriaren egoera hobetzeko jarduketa eta programa ia guztiak Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak diruz lagundu ditu; izan ere, urte hauetan, Aldundiak agian bere eskumenetik kanpo dauden lanak nahiz erantzukizunak edo beste erakunde batzuek bete beharrekoak bereganatu ditu.

Oraintsu (2002ko uztailaren 8ko EHAA), Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak *ekainaren 25eko 155/2002 Dekretua* argitaratu du, eta, *horren bidez, inmigrazioaren alorrean jarduerak burutzeko laguntzak* arautzen dira; bertako VI. kapituluan, laguntza lerro berria ezartzen da, *“nekazaritza-kanpainetan sasoikako lanaren fenomenorako”*. Bertako artikuluetan ezarritakoaren arabera, laguntza hauek erakunde publikoek eta pribatuek jaso ahal izango dituzte, eta horien helburuak honako honetara bideraturiko programak edo esku-hartzeak izango dira: *“azpiegitura-premiak betetzea,*

zerbitzu eta laguntza publikoetarako sarbidea erraztea, atzerriko etorkinen gizarte, hezkuntza eta orientazio beharrezanei arreta eskaintzea, eta sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea, herritarrengan elkartasun-jarrerak sustatzeko, arrazakeriaren eta bazterkeriaren aurka borrokatuz eta kultura ezberdinen arteko hezkuntza bultzatuz” (32. art.).

Ikusi egin beharko da lehenengo deialdi horren emaitza eta aztertutako egoeran duen eragina.

Nolanahi ere, sasoikako laneko Mahaiaren funtzionamendua eta azken urteotan egindako programen nahiz jarduketan kudeaketa denen arteko edo ekintza koordinatuko lan esperientzia ona da, eta gainera, baliozkoa da sasoikako langileen arazoak konpontzeko dituen aukerak eta zailtasunak hobeto ezagutzeko. Esperientzia hori kontuan hartu beharko da, etorkizunean egiten diren esperientzia edo ekimen berrietan.

6.3 Eraginpeko udalerrien inplikazioa

Gogoratu behar da aztertutako zonetako udalerriak nahiko txikiak direla: txikienek (Zalduondo edo Kripan) 140 edo 197 biztanle inguru dituzte, eta handienek (Agurain, Lautadan, edo Oion, Arabako Errioxan) 3.980 edo 2.323 biztanle inguru. Horren arabera, oro har, ez dute zerbitzu handirik, ezta administrazio egitura handirik ere, eta udal kudeaketan soilik diharduen udal arduradunik ere ez dute... Horrek, zalantzarik gabe, eragina izan dezake sasoikako langileen gaian inplikatzeko gaitasunean.

Erakunde honek, azken urteotan eta zenbait aldiz, ondo aztertu ditu udalek sasoikako langileen arazoetan dituzten inplikazio maila desberdinak. Batzuetan, udalerrri bati edo besteari informazio zehatza eskatu zaio; beste zenbaitetan, eraginpeko udalerriei zuzenean helarazi zaizkie Arartekoaren jarraipen txostenak, proposamenak eta gomendioak.

Horren haritik, azken urtean, hemen aztertutako zonetako 31 udalerrira galdeketa bat bidali da, eta, horren bidez, bertako datuak eta balorazioak jaso nahi izan dira (III. eranskina). Galdeketa bizilekuen gaian oinarritu da; baina, aldi berean, udalerrri bakoitzak baloratzeko eta proposamenak egiteko galdera batzuk ere sartu dira.

Inkestan lortutako erantzun orokorrak IV. eta V. eranskinetan jaso dira. Hemen, galdera horietariko batzuk nabarmenduko ditugu; hain zuzen ere, honako hau jakiteko aukera ematen digutenak: udalerrien informazio maila, ikusitako arazoak euren arazotzat hartzen dituzten ala ez, hartutako ekimenak, balorazioak edo proposamenak... Lehenengo taulan alderdi horiek Lautadako eta Mendiko udalerriei dagokienez jasota daude. Bigarreanean, Arabako Errioxako udalerrien erantzunak jaso dira.

6.1 taula: Arabako Mendiko eta Lautadako udalerrien datuak, balorazioak eta proposamenak, Arartekoak planteaturiko galderei dagokienez

PATATA BILTZEKO ZONA	Alegria-Dulantzi	Arraia-Maeztu	Arrazua-Ubarrundia	Asparrena	Barrundia
1- Azken kanpainako sasoikako langile kopurua	23		50		17
8- Bizilekurako lagatako lokal kopurua	—		0		3
9- Ezarkuntzatat erabilitako leku kopurua	1		0		3
11- Bizilekuen baldintzak:					
- onak	% 100		—		% 20
- onargarriak	—		—		—
- onartezinak	—		—		% 80
13- Ondokoek konpondu beharreko arazoak:					
- sasoikako langileek	—		—		—
- kontratua egiten dutenek	X		X		—
- administrazioak (zeinek)	—		X		—
-	—		—		(8)
14- Balorazio orokorra:					
- konpondutako arazoa edo arazorik eza	—		—		—
- administrazioak konpondu beharreko arazoa	X		—		—
- udalerrian eraginik ez duen arazoa	—		—		—
-	—		—		—
15- Udaletxeak hartutako edo hartu beharreko ekimenak	(9)		—		(10)
16- Informazio erabilgarriaren balorazioa:					
- ona eta fidagarria	X		—		—
- nahikoa	—		—		X
- nahikoa ez, fidagarritasun gutxikoa	—		X		—
17- Beste datu batzuk, balorazioak edo proposamenak	—		—		—

(Iturria: Udalerriek Arartekoaren galdeketari emandako erantzunak – 2001)

- (1) Aguraingo Udaletxeak emandako datuak Taldeari buruzkoak dira, ez udalerriari buruzkoak.
- (2) Kontratua egiten dizkien auzokoei ohiko etxebizitzak eskaintzen dizkiete, lanak dirauen artean.
- (3) Etxebizitzaren % 50, onargarria.
- (4) Biltegien % 100, onartezina.
- (5) Ezin izan da sartu: % 46.
- (6) Aldundia: aterpetxeak.
- (7) Aldundiak, Eusko Jaurlaritza.
- (8) Langileen eta nekazarien arteko kontratu harremanen arabera.
- (9) Udalerrietako oinarritzko gizarte laguntzaileen bidezko jarraipena.
- (10) Ez dago ezer aurreikusita, udalerrian ez dagoelako sasoikako langile kopuru handirik.
- (11) Sasoikako langileekin egindako lana, zonako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen eta Prebentzio Teknikaren bidez.
- (12) Ez da ekimenik hartu, ez baitago horri buruzko informaziorik. Udaletxeak udal politikiroldegiko duxak laga ditu.
- (13) Erakundeek (aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) ikerketa fidagarriagoak egin beharko lituzkete, gaia ikertzeko eta soluzioak aurkitzeko. Ekimenak erakunde guztiek hartu behar dituzte, eta ez administrazioak soilik, txikia izatean ez baitu behar beste baliabiderik.

Bernedo	Kanpezu	Elburgo	Iruña de Oca	Iruraiz-Gauna	Lagrán	Peñacerrada-Urizaharra	Agurain (1)	San Millán	Arana harana	Zalduondo (2)
43	17	7		61	18	14	190	50	10	
—	—	—		—	2	2	19	5	—	
6	2	1		7	2	1	15	3	2	
— (3) (4)	— % 50 % 50	— — % 100		% 14 — % 86	— % 50 % 50	— % 100 —	% 12 — % 42 (5)	— % 50 % 50	— % 50 % 50	
— X (6) —	— X — —	— — X —		— X — —	— X — —	— X — —	— X — —	— X (7) —	— — X —	
— X — —	— — X —	— X — —		— X — —	— — X —	— X X —	— X — —	— X — —	— — X —	
—	—	—		—	—	—	(11)	(12)	—	
X — —	— X —	— — X		— — X	X — —	X — —	X — —	— — X	— X —	
—	—	—		—	—	—	—	(13)	—	

6.2 taula: Arabako Errioxako udalerrien datuak, balorazioak eta proposamenak, Arartekoak planteaturiko galderei dagokienez

MAHATS-BILKETAREN ZONA	Baños de Ebro	Eltziego	Elvillar	Kripan	Labastida
1- Azken kanpainako sasoikako langile kopurua	700	—	250		—
8- Bizilekurako lagatako lokal kopurua	28	—	12		—
9- Ezarkuntzatat erabilitako leku kopurua	28	—	3		—
11- Bizilekuen baldintzak:					
- onak	% 80	—	% 20		—
- onargarriak	% 20	—	% 70		—
- onartezinak	—	—	% 10		—
13- Ondokoek konpondu beharreko arazoak:					
- sasoikako langileak	—	—	—		—
- kontratua egiten dutenek	X	X	X		X
- administrazioak (zeinek)	—	—	X		—
-	—	—	—		—
14- Balorazio orokorra:					
- onpondutako arazoa edo arazorik eza	—	X	—		—
- administrazioak konpondu beharreko arazoa	—	—	X		—
- udalerrian eraginik ez duen arazoa	X	—	—		—
-	(3)	—	—		(4)
15- Udaletxeak hartutako edo hartu beharreko ekimenak	—	—	(7)		—
16- Informazio erabilgarriaren balorazioa:					
- ona eta fidagarria	—	—	—		—
- nahikoa	X	X	—		X
- nahikoa ez, fidagarritasun gutxikoa	—	—	—		—
17- Beste datu batzuk, balorazioak edo proposamenak	—	(13)	—		—

(Iturria: Udalek Arartekoaren galdeketari emandako erantzunak – 2001)

- (1) Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak, lokalak gaitzeko laguntzak sortuz.
- (2) Bata zein bestea, bakoitzaren aukeren arabera.
- (3) Arazoaren itxura dauka, baina beste udalerrri batzuetan lan egin eta geurean finkaturik daudenean.
- (4) Arazotzat hartzen dute, eta nekazariak jabeazari beharra dago, zerbitzua eurek eskatzen baitute.
- (5) Arazotzat hartzen dute; aurrean ondo dago, beste urte batzuetan ez.
- (6) Talde guztietan eragina duen arazoa da.
- (7) Dutzak eta udal zerbitzuak erabiltzeko baimena dute.
- (8) Umeei eskainitako arreta antolatzen du ikastolan.
- (9) Jatorrian kontraturaturiko sasoikako langileentzako bizilekua erakitzea, UAGArekiko lankidetzan, eta hori hurrengo kanpainan egingo da.
- (10) Arazoak daudenean, gizarte laguntzaileekin hitz egin eta arazoak konpontzeko ahalegina egiten da.
- (11) Auzokoek kontrolik gabeko ezarkuntzei dagokienez egindako kezak ikusita, Udaletxeak halako ezarkuntza ekiditeko ahalegina egin du; ezinezkoa izan denean, ezarkuntzako lekuak garbitu egin behar izan ditu.
- (12) Ordenantza hartzea, testua bidaltzen da.
- (13) Gure ustez, jatorrian kontratatutako derrigortu behar dira, oraingo arazorik gehienak saihesteko.
- (14) Arazo horri dagokionez, mafiek edo bitartekariak are gehiago larritzen dute; horiek, izan ere, sasoikako langileak ekartzten dituzte, lan edo bizileku baldintzak kontuan hartu barik; gainera, euren lanaz aprobetxatzen dira, eta, sarritan, nekazariari ez diote aukerarik ematen sasoikako langileak zuzen-zuzen kontratatzeko eta behar bezala ordaintzeko.
- (15) Ebazteko gaitasuna duen erakunderen bat egon behar da, kontrolik gabeko ezarkuntzetarako, udaletxeek ez baitute horretarako ahalmenik.
- (16) Behin-behinean onetsitako ordenantzaren kopia bidaltzen da, baita oinarritzko gizarte zerbitzuek idatzitako oharra ere.

Biasteri	Lantziego	Lapuebla de Labarca	Leza	Moreda de Álava	Navaridas	Oion	Samaniego	Villabuena de Álava	Yécora
	200		60	30	≈250	—		200	100-150
	20		10	3	12	—		15	15
	1		3	—	2	2		—	2
	% 50 % 50 —		% 20 % 70 % 10	— % 100 —	— % 80 % 20	— — —		% 100 — —	% 30 % 60 % 10
	— X — —		— X (1) —	— X — —	X X X (2)	— X — —		— X — —	— X — —
	— X — —		— X — —	— — — (5)	— X — —	— X — —		X — — —	— — — (6)
	(8)		(9)	(10)	(11)	(12)		—	—
	— — —		— — X	— — X	— — X	— — X		— X —	— X —
	—		(14)	—	(15)	(16)		—	—

Informazio horiei dagokienez, honako **ohar hauek** egin daitezke:

- Udalerrri batzuek ez dute daturik ematen, nahiz eta epe jakina igaro ondoren berriro galdetu edo, geroago, euren laukiak zuriz dituen koadroa bidali, hurbileko beste udalerrri batzuetako datuekin konparatzeko. Kasu batzuetan, esan dute ez dutela gaia ezagutzen edo euren udalerrrian ez duela eraginik. Talde horren barruan, sasoikako langileen presentzia handiko udalerrri batzuk sartzen dira, esate baterako, Biasteri edo Samaniego.
- Datuak ematen dituzten udalerrrien taldean, informazio edo erantzun maila nahiko desberdinak ikusten dira: batzuek atal guztiei erantzun diete eta beste zenbaitek erantzunik gabe utzi dituzte gehienak.
- Arabako Errioxako udalerrri guztien ustez (sasoikako biztanleri kopururik handiena zona horretan dago), ez dute gaiari buruzko informazio onik eta fidagarririk. Batzuen ustez, ez dute informazio nahikorik, eta, beste zenbaiten iritziz, duten informazioa nahikoa da. Erantzunen arabera, patata biltzeko zonetan (sasoikako langileen presentzia txikiagoa), udalerrriek hobeto ezagutzen dute errealitatea edo informazioa fidagarriagoa da.
- Udalerrriek eskainitako zebakizko datu batzuk (adibidez, sasoikako langileen kopurua edo bizilekurako utzitako lokal kopurua) Hezilan eta Era Berri elkarteek egindako memorietan jasotako datuekin konparatuta ikusten denez, antzekotasun eta desberdintasun handiak daude. Lehenengo kasuan, segurutik, udalerrri batzuek euren memoriak edo gizarte langileek eskainitako datuak erabili dituzte informazio iturritzat.
- Udalerrri askoren iritziz, pertsona horietariko askoren bizilekuen baldintzak “ez dira onargarriak” (11. galderaren erantzuna). Denen ustez, arazo hori konpondu behar da; halako arazorik “ez dagoela edo konponduta dagoela” uste dutenak bi baino ez dira.
- Hori konpontzeko erantzukizunari dagokionez, gehienek iritziz, erantzukizuna kontratua egiten duten nekazariak eurek dute. Batzuen ustez, beharrezkoa da Administrazioaren eskuhartzea (Eusko Jaurlaritza edo Aldundia), eta, batzuek diotenez, arazoak ez du eraginik udalerrrian. Agian, udalerrrien jarreretariko asko San Millaneko udalerrriak egindako oharrean laburbiltzeko modukoak dira: *“Ekimenak erakunde guztiek egin behar dituzte, eta ez administrazio honek bakarrik, txikia denez ez baitu horretarako baliabiderik”*.
- Eta, hartutako ekimenen eta planteaturiko proposamenen artean, honako hauek daude:
 - Udaleko dutxak eta zerbitzuak erabiltzeko aukera ematea (Elvillar, San Millán).
 - Umeen laguntza antolatzea (Lantziego).
 - Aterpetxe komunitarioa eraikitzea (Leza).
 - Kasuen jarraipena egitea eta arazoak konpontzea, gizarte laguntzaileak erabiliz (Agurain, Moreda de Álava, Alegría-Dulantzi).
 - Kontrolik gabeko ezarkuntzak ekiditea eta erabilitako lekuak garbitzea (Navaridas).

- Ezarkuntzei buruzko ordenantza onestea (Oion).
- kontratazio jatorrian egiteko beharra proposatzea (Eltziego).
- Kontrolik gabeko ezarkuntzei buruzko ebazpenak emateko gaitasuna duen erakundea sortzea (Navaridas).

Galdeketari eman gabeko erantzunak eta lortutako datuak nahiz informazioak baliozkoak izan daitezke, udalerrien inplikazioa jakiteko. Horietan ikusten denez, sasoikako langileen arazoetan dauden inplikazio mailak oso desberdinak dira eta asko aldatzen dira udalerrri batetik bestera.

7. TXOSTENA EGITEKO ERABILITAKO INFORMAZIO ITURRIAK

7.1 Iturri idatziak

AGURAIN, UDALA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK. Memoria-evaluación albergue de temporeros en Salvatierra. Campaña 1994. Agurain, 1994.

AGURAIN, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Agurain, 2002ko maiatzaren 28a.

ALEGRIA-DULANTZI, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Alegria-Dulantzi, 2002ko martxoaren 7a.

ANDALUZIA, ANDALUZIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA. *Temporeros y educación: La atención educativa a los hijos de trabajadores temporeros*. Sevilla, 1997.

ANDALUZIA, ANDALUZIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA. *El fracaso escolar entre los hijos de trabajadores temporeros: Un problema para el desarrollo futuro de Andalucía*. Sevilla, 1997.

ANDALUZIA, ANDALUZIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA. *Recolección de aceitunas en la provincia de Jaén: Programas de apoyo para trabajadores temporeros*. Sevilla, 2001.

ARABA, GIZARTE ONGIZATE SAILA. Acciones a desarrollar por la Mesa de temporerismo en la campaña agrícola del presente ejercicio. 2001. Vitoria-Gasteiz, 2001.

ARABA, ARABAKO LAN ETA GIZARTE GAIEN PROBINTZI ZUZENDARITZA. Nota informativa sobre las normas básicas que deben cumplirse en la contratación de temporeros durante las campañas agrícolas. Vitoria-Gasteiz, 1997.

ARABA, ARABAKO LAN ETA GIZARTE GAIEN PROBINTZI ZUZENDARITZA. Convenio Marco de Colaboración entre el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales y diversas Organizaciones Sociales Agrarias. Vitoria-Gasteiz, 1998.

ARABA, GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEA. Informe sobre la intervención del I.F.B.S. en relación al colectivo de personas temporeras en el Territorio Histórico de Álava. Vitoria-Gasteiz, 1998ko maiatzaren 5a.

ARABA, GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEA. Programa de actuaciones para 1999 en relación al colectivo de personas temporeras. Vitoria-Gasteiz.

ARABA, GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEA. Sasoikako lanaren Mahaiak egindako bileren aktak. Vitoria-Gasteiz.

ARABA, GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEA. Programa de actuaciones para el ejercicio 2000 en relación al colectivo de personas temporeras. Vitoria-Gasteiz, 1999ko irailaren 6a.

ARABA, GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEA. Financiación de las actuaciones a realizar en materia de temporerismo agrícola por parte del Instituto Foral de Bienestar Social. Vitoria-Gasteiz, 2001.

ARABA, GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEA. Acciones y programas subvencionados desde el Departamento de Bienestar Social de la DFA dirigidos al programa de temporerismo agrícola. 1995-2001 (Arartekoak egindako datu eskabideari eman zaion erantzuna). Vitoria-Gasteiz, 2001eko maiatza.

ARABA, LAN ETA GIZARTE GAIEN MINISTERIOA. Contratación de temporeros. Vitoria-Gasteiz, 1996ko irailaren 20a.

ARABA, ARABAKO FORU ALDUNDIA, GIZARTE ZERBITZUEN IDAZKARITZA. Avance de resultados. Estudio sobre el temporerismo en la Rioja Alavesa. 2000ko martxoaren 14a.

ARABA, ARABAKO FORU ALDUNDIA, GIZARTE ZERBITZUEN IDAZKARITZA. Informe sobre el temporerismo en la Rioja Alavesa. 2000ko apirila.

ARABA, GOBERNUAK ARABAN DUEN AZPIORDEZKARITZA, LAN ETA GIZARTE GAIEN EREMU FUNTZIONALA. Arartekoak egindako informazio eskabideari eman zaion erantzuna. Vitoria-Gasteiz, 2002ko ekainaren 5a.

ARABAKO ERRIOXAREN MENDEBALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA. Memoria Técnica. Programa de temporeros. Albergue de Laguardia '97.

ARABAKO ERRIOXAREN MENDEBALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA. Memoria Técnica. Albergue de temporeros 1999. Laguardia-Biasteri.

ARABAKO ERRIOXAREN MENDEBALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA. Memoria técnica albergue de temporeros 2000. Laguardia-Biasteri.

ARAGOI, OSASUN, GIZARTE ONGIZATE ETA LAN SAILA. Decreto 20/1999, de 24 de febrero, del Gobierno de Aragón, por el que se regulan las ayudas para el acondicionamiento de inmuebles destinados al alojamiento de trabajadores temporales del sector agropecuario. Aragoiko Buletin Ofiziala, 30. zenbakia, 1999ko martxoaren 12koa.

ARAGOI, OSASUN, GIZARTE ONGIZATE ETA LAN SAILA. Decreto 43/2000, de 29 de febrero, del Gobierno de Aragón, de ayudas para el acondicionamiento de inmuebles destinados al alojamiento de trabajadores temporales del sector agropecuario. Aragoiko Buletin Ofiziala, 30. zenbakia, 2000ko martxoaren 10ekoa.

ARANA HARANA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Arana harana, 2002ko otsailaren 20a.

ARRAZUA-UBARRUNDIA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Arrazua-Ubarrundia 2001eko azaroaren 30a.

BAÑOS DE EBRO, UDALA. Ordenanza reguladora de las acampadas en Baños de Ebro (Arartekoak egindako informazio-eskabideari eman zaion erantzuna). Baños de Ebro 2000ko uztailaren 1a.

BAÑOS DE EBRO, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Baños de Ebro, 2001eko irailaren 10a.

BARRUNDIA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Barrundia, 2001eko abenduaren 21a.

BERNEDO, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Bernedo, 2002ko otsailaren 20a.

BIASTERI, UDALA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN TALDE TEKNIKOA. Programa temporeros – 95. Memoria técnica. Biasteri, 1995eko urria.

BIASTERI, UDALA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK. Estadísticas sobre el albergue de temporeros de Laguardia. Biasteri, 1996ko abenduaren 9a.

CÁRITAS. Programa de temporeros. Informe-evaluación 1996. Zonas de: Llanada Oriental y Alto Ayuda. Vitoria-Gasteiz, 1996ko abendua.

CÁRITAS. Memoria-evaluación. Albergue de temporeros en Salvatierra-Agurain. Campaña 1998. Vitoria-Gasteiz, 1998.

CÁRITAS. Oficinas de información-coordinación agricultores-temporeros. Memoria-evaluación. Salvatierra-Laguardia. Campaña 1998. Vitoria-Gasteiz, 1998.

CÁRITAS. Declaración final de las jornadas sobre El temporerismo agrícola en España. San Asensio (Errioxa), 1998ko maiatzaren 3a.

CÁRITAS Proyecto de trabajo con temporeros y agricultores. Memoria de actividades. Vitoria-Gasteiz, 1999ko abendua.

CÁRITAS. Memoria del “Proyecto de trabajo con temporeros y agricultores”. Vitoria-Gasteiz, 2000.

CÁRITAS. Memoria 2001.

CÁRITAS ESPAÑOLA. Hoja informativa. Programa de temporeros agrícolas. 0. zenbakia, 1999ko urtarrila-martxoa.

ELBURGO, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Elburgo, 2002ko martxoaren 14a.

ELTZIEGO, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Eltziego, 2002ko otsailaren 22a.

ELTZIEGO, ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA. Memoria sobre la dinámica de los temporeros (vendimia) en el inicio de este curso 96/97 y la implicación de la misma con el centro.

ELVILLAR, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Elvillar, 2001eko irailaren 25a.

ERA BERRI. Informe memoria. Programa de intervención socioeducativa con familias temporeras. Año 2000. Vitoria-Gasteiz.

ERA BERRI. Memoria 2001. Montaña alavesa.

ESPAINIA, HERRIAREN DEFENDATZAILEA. Recomendación 4/1992, de 17 de enero, sobre situación de trabajadores temporeros para trabajos agrícolas en Bañares (La Rioja). Madril: GNBO. Gorte Nagusiak. IV. Legegintzaldia. A saila, 37. zenbakia, 476. orrialdea.

ESPAINIA, HERRIAREN DEFENDATZAILEA. Recomendación 5/1992, de 17 de enero, sobre situación de trabajadores temporeros para trabajos agrícolas en Bañares (La Rioja). Madril: GNBO. Gorte Nagusiak. IV. Legegintzaldia. A saila, 37. zenbakia, 476. orrialdea.

ESPAINIA, GOBERNAZIOAREN MINISTERIOA. Orden de 29 febrero de 1944, VI-VIENDA. Condiciones higiénicas mínimas. Madril: EBO, 61. zenbakia, 1944ko martxoaren 1ekoa.

EUSKADI, ARARTEKOA. Ofizios egindako jarduketak. Sasoikako langileen umeen eskolatzeari (24/95/0F). *Eusko Legebiltzarrerako 1995eko txostena*. Vitoria-Gasteiz, 1996.

EUSKADI, ARARTEKOA. Araban sasoikako lana egiten dutenen arazoei buruzko lan monografikoa eta hobekuntza proposamenak. *Eusko Legebiltzarrerako 1996ko txostena*. 58-66. orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 1997.

EUSKADI, ARARTEKOA. Denboraldiko langileentzako eta horien familientzako bizilekuen baldintzak. *Eusko Legebiltzarrerako 1997ko txostena*, 482-487. orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 1998.

EUSKADI, ARARTEKOA. Araban aritzen diren sasoikako langileen arazoaren jarraipena. *Eusko Legebiltzarrerako 1997 txostena*, 42-49. orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 1998.

EUSKADI, ARARTEKOA. Araban aritzen diren sasoikako langileen arazoaren jarraipena. *Eusko Legebiltzarrerako 1998 txostena*, 41-44. orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 1999.

EUSKADI, ARARTEKOA. Sasoikako beharginen arazoen jarraipena Araban. *Eusko Legebiltzarrerako 1999 txostena*, 40-45 orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 2000.

EUSKADI, ARARTEKOA. Sasoikako langileen bizilekuen baldintzak. Arartekoak erakundeen arteko Mahaiari Arabako sasoikako langileei buruz egindako proposamena. Vitoria-Gasteiz, 2000ko maiatza.

EUSKADI, ARARTEKOA. Sasoikako langileek Araban dituzten arazoaren jarraipena. *Eusko Legebiltzarrerako 2000 txostena*, 33-37 orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 2001.

EUSKADI, ARARTEKOA. Sasoikako beharginen alojamentuetako baldintzak arautzea. Gomendio orokorra. *Eusko Legebiltzarrerako 2001 txostena*, 415-427 orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 2001.

EUSKADI, ARARTEKOA. Sasoikako langileen arazoen jarraipena Araban. *Eusko Legebiltzarrerako 2001 txostena*, 43-47 orrialdeak. Vitoria-Gasteiz, 2002.

EUSKADI, GOBERNU LEHENDAKARIORDETZA. Sasoikako langileek Araban duten egoera hobetzeko ekimenak (Arartekoak egindako informazio eskabideari eman zaion erantzuna). Vitoria-Gasteiz, 1999ko martxoaren 30.

EUSKADI, HERRIZAINGO SAILA. Elementos de respuesta a la solicitud de información de la Ararteko en Funciones, de fecha 3 de mayo de 2002, sobre actuaciones policiales de la Comisaría de Laguardia relacionadas con la problemática de los trabajadores temporeros. Bilbo, 2002ko ekainaren 11.

EUSKADI, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA SAILA. Sasoikako langileen umeen eskolatzeko prozesuan mahats-bilketaren sasoian jasotako arazoei buruz. Vitoria-Gasteiz, 2001eko ekainaren 20.

EUSKADI, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA SAILA. Arartekoak sasoikako familien seme-alaben eskolatzeari buruz egindako datu eskabideari eman zaion erantzuna. Vitoria-Gasteiz, 2002ko maiatzaren 31.

EUSKADI, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN SAILA. 1990eko uztailaren 17ko Dekretua, ETXEBIZITZAK. Urbanizaturiko eta eraikitako ondarea birgaitzeko babestuta dauden jarduketak. Vitoria-Gasteiz. EHAA, 189-90 zenbakiak, 1990ko irailaren 21koa.

GIZARTE ONGIZATE SAILA. Acciones desarrolladas por el Departamento de Bienestar Social en relación al programa de temporerismo agrícola. Memoria descriptiva 1999.

HEZILAN, FAMILIEN ORIENTAZIORAKO ETA HEZKUNTZARAKO ZERBITZUA. Memoria-Evaluación. Programa de atención e intervención socio-educativa con familias en dificultad social. Temporeros-Elciego 1997. Vitoria-Gasteiz, 1997ko azaroa.

HEZILAN, FAMILIEN ORIENTAZIORAKO ETA HEZKUNTZARAKO ZERBITZUA. Memoria-evaluación. Programa de atención e intervención socio-educativa con familias en dificultad social. Temporeros – Elciego 1999. 1999ko azaroa.

HEZILAN, FAMILIEN ORIENTAZIORAKO ETA HEZKUNTZARAKO ZERBITZUA. Memoria-evaluación del programa de atención e intervención socio-educativa con familias en dificultad social. Zonas de Elciego y Lanciego 2000. Vitoria-Gasteiz, 2000ko azaroa.

HEZILAN, FAMILIEN ORIENTAZIORAKO ETA HEZKUNTZARAKO ZERBITZUA. Memoria 2001. Llanada alavesa.

HEZILAN, FAMILIEN ORIENTAZIORAKO ETA HEZKUNTZARAKO ZERBITZUA. Memoria 2001. Rioja alavesa.

IRURAIZ-GAUNA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriek egindako galdeketeri emandako erantzuna. Iruraiz-Gauna, 2002ko martxoaren 8a.

IZAN ELKARTEA. Memoria del programa de intervención socio-educativa con el colectivo de temporeros de Lanciego. Vitoria-Gasteiz, 1999.

KANPEZU, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Kanpezu, 2002ko otsailaren 20a.

KATALUNIA, SÍNDIC DE GREUGES. Actuació d'Ofici 1876/94 zenbakia. Eficàcia de la legislació antidiscriminatòria en relació amb els immigrants estrangers i les minories ètniques en el món del treball. Bartzelona: BOPC, 20.968. eta 20969. orrialdeak.

KATALUNIA, SÍNDIC DE GREUGES. Actuació d'Ofici 1876/94 zenbakia. Eficàcia de la legislació antidiscriminatòria en relació amb els immigrants estrangers i les minories ètniques en el món del treball. Seguiment. Bartzelona.

KATALUNIA, SÍNDIC DE GREUGES. Actuació d'Ofici 1665/95 zenbakia. Condicions en què viuen els temporers africans d'Alcarràs. Bartzelona.

LABASTIDA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Labastida, 2001eko abenduaren 7a.

LAGRÁN, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Lagrán, 2002ko otsailaren 20a.

LANTZIEGO, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Lantziego, 2001eko azaroaren 9a.

LEZA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Leza, 2001eko azaroaren 7a.

MOREDA DE ÁLAVA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Moreda de Álava, 2001eko abenduaren 12a.

NAVARIDAS, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Navaridas, 2001eko azaroaren 29a.

NAFARROA. NAFARROAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA. La inmigración en la Ribera de Navarra. Informe al Parlamento. Iruñea, 2001.

NAFARROA, NAFARROAKO LEGEBILTZARREKO SOZIALISTAK. Mozio baten bitartez, Nafarroako Gobernuari Foru Plana egiteko eskatu zaio, sasoikako langileei laguntza emateko. Nafarroako Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 6. zenbakia, 1999ko irailaren 30ekoa.

NAFARROA, NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ELIKADURA SAILA. Plan de choque para el alojamiento de los trabajadores temporales en campañas de recolección de productos agrícolas. Iruñea, 2000.

OION, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Oion, 2002ko urtarrilaren 28a.

PEÑACERRADA-URIZAHARRA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Peñacerrada-Urizaharra, 2002ko otsailaren 20a.

SAMANIEGO, UDALA. Bandoa. Samaniego, 1997ko irailaren 23a.

SAN MILLÁN, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. San Millán, 2001eko abenduaren 21a.

UAGA, ARABAKO NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN ELKARTEA. Estudio migraciones de COAG. Vitoria-Gasteiz, 1999ko urria.

UAGA, ARABAKO NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN ELKARTEA. Desarrollo del programa de promoción socio laboral de trabajadores temporeros. Vitoria-Gasteiz, 1999ko abendua.

UAGA, ARABAKO NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN ELKARTEA. Campaña de coordinación del trabajo agrícola. Visita a Lleida. Memoria. Vitoria-Gasteiz, 2000.

UAGA, ARABAKO NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN ELKARTEA. Área de Migraciones. Memoria y documentación justificativa de la subvención concedida por la Dirección General de Ordenación de Migraciones. Vitoria-Gasteiz, 2002ko urtarrila.

UAGA, ARABAKO NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN ELKARTEA. Estudio sobre Temporerismo en Rioja alavesa. Vitoria-Gasteiz, 2002ko urtarrila.

UAGA, ARABAKO NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN ELKARTEA. Temporerismo agrario en Álava: Situación actual y necesidades de futuro. Arartekoak txosten hau lantzeko egindako informazio eskabideari eman zaion erantzuna. Vitoria-Gasteiz, 2002ko ekaina.

UNIÓ DE PAGESOS. Memòria temporers 1998.

VILLABUENA DE ÁLAVA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Villabuena de Álava, 2001eko irailaren 5a.

YÉCORA, UDALA. Arartekoak sasoikako langileen bizilekuei buruz Arabako Errioxako, Lautadako eta Mendiko udalerriei egindako galdeketari emandako erantzuna. Yécora, 2001eko irailaren 20a.

7.2 Ahozko iturriak. Bilerak

Sasoikako laneko Mahaiak egindako bilerarik gehienetan parte hartzeaz gain (azken kanpainetako bilerak), Arartekoaren langileek elkarrizketa eta harreman asko eduki dituzte honako hauekin:

- zonetako oinarrizko gizarte langileak;
- ikastetxeetako zuzendaritzak edota irakasle taldeak;
- komisariatetako polizi arduradunak;
- gizarte edota hezkuntzako programak egiten dituzten taldeak;
- Arabako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arduradunak;
- UAGaren arduradunak;
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko arduradunak;

- zonako boluntarioak;
- kontratua egiten duten nekazariak eta sasoikako langileak...

Gainera, txosten hau egiteko, Arartekoak bi lan bilera bereziko deialdia egin zuen, ikuspegiak eta hobekuntza proposamenak aztertzeko.

Lehenengo bilera 2002ko ekainaren 18an egin zen. Bertan, eskolatzea, gizarte edota hezkuntzako laguntza eta gizarte sentsibilizazioa aztertu ziren, eta honako hauek hartu zuten parte:

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Saileko ordezkariak (Mari Carmen Domingo eta Begoña Moraza);
- ikastetxeetako irakasleak (Juana Arauzo eta M^a Victoria García);
- sasoikako langileentzako gizarte edota hezkuntzako programak dituzten elkarteetako langileak (Marta García, Rosario Cobo eta Judit Armentia);
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren ordezkaria (Juan Luis Aizpiri).

Bigarren bilera 2002ko uztailaren 8an egin zen, eta bertan, kontratazioa, bizilekuak eta erakundeen arteko lankidetzaz aztertu ziren. Ondokoaren ordezkariak hartu zuten parte:

- Leza eta Agurain udalerrak;
- Eusko Jaurlaritzako Sailak (Nekazaritza eta Lurralde Antolaketa);
- Gobernu Azpiordezkaritzako Lan eta Gizarte Gaietan Zuzendaritza Araban;
- Cáritas;
- UAGA.

Halaber, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietan Sailari ere deialdia egin zitzaion, baina ez zuten ordezkariarik bidali.

Beste alde batetik, UAGARA txosten hau egiteko zuzendutako informazio eskabidearen eta bertako ordezkarien interesaren eraginez, lana argitzeko bilera egin zen, 2002ko maiatzaren 28an.

7.3 Zonetara kanpainan egindako bisitaldiak

Arartekoaren langileek, 1995tik urtero, sasoikako langile kopururik handieneko zonak bisitatu dituzte, aztertutako hiru eskualdeetan (Lautada, Mendia eta Errioxa), eta Nafarroako edo Treviñoko hurbileko zonak ere bai. Bisitaldien helburua, gehienetan, umeen eskuratze baldintzen edo sasoikako langileen ezarkuntzen nahiz bizilekuen baldintzen jarraipena egitea izan da. Helburu horiek kontuan hartuta, gehien bisitatu diren lekuak honako hauek izan dira:

- sasoikako langileen seme-alabak dituzten ikastetxeak eta ikasgelak;
- familia guzuzen ezarkuntzak;
- kanpaldiko zonak;
- kontratua egiten duten nekazariak edo enpresek lagatako edo birgaitutako bizilekuak;
- lantokiak (eremuak);
- kontratuaren zain dauden sasoikako langileen lekuak;
- euren eskura jarritako zerbitzuak (aterpetxeak, dutxak, informazio lekuak ...).

Urterik gehienetan, bisitaldiak egunez egin dira, antzeko ibilbideak eginez, eta pare bat egunetan. Kasuren batean gauz ere egin dira (aterpetxeren baten funtzionamendua eta bizilekurik gabeko langileek gaua igarotzeko modua ikusteko), edo goizalde ere bai (kontratazio uneak eta mahastietarantz joateko uneak).

* * *

Hemen aipatutako iturri desberdinen erabilera konbinatuari esker, errealitatea nahiko ondo ezagutzen dugu, kontuan hartuta talde eta eremu geografiko handiegia ez direla.

8. GOMENDIOAK

Aurreko kapituluetan, sasoikako langileen arazoak aztertu dira, eskura ditugun datuen arabera eta ikuspuntu desberdinetatik abiatuz. Zenbait kasutan, hobetzeko proposamenak jaso dira testuan zehar. Kapitulu honetan, berriz, proposamen horiek sakondu nahi ditugu, eta, horretarako, bost talde osatu dira, hemen sistematikarekin bat etorritz aztertuko baitira bost gai interesgarri hauek:

- Erakunde eta zerbitzuen parte-hartzea.
- Kontratazio-baldintzak kontrolatu eta hobetzea.
- Ostatu-baldintzak hobetzea.
- Sasoikako langileen familiei dagokienez, hobekuntzak egitea adingabeak eskolatzeko eta horiei laguntza emateko.
- Gizartea sentsibilizatzea eta sasoikako langileak gizarteratzea.

ERAKUNDE ETA ZERBITZUEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO GOMENDIOAK

Aurretiaz adierazi dugun bezala, sasoikako langileen arazoak aztertu eta horiei aurre egin nahi zaienean, zailtasun edo baldintza garrantzitsua da eskumenak sakabanatuta egotea, administrazio eta zerbitzu desberdinen artean (udalarenak, foru-erakundeak, autonomia-erkidegoarenak, estatuarenak...). Txosten honen 6. kapitulan, luze eta zabal aztertu da zenbaterainoko parte-hartzea duten administrazio eta zerbitzu horiek, eta nolako mekanismoak erabiltzen dituzten, koordinazioa lortzeko eta informazioa elkarrekin banatzeko. Mekanismo horiek hobetzeko, honako gomendio eta proposamen hauek egiten dira:

1. Sasoikako lanaren Mahaiaren –edota antzeko tresna baten– zeregina indartu behar da, erakundearen arteko koordinazio-mekanismo gisa

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak Sasoikako lanaren Mahaia sustatu zuen. Mahai horren jardunbidea txosten honen 6.1 atalean aztertu da jadanik. Beharbada, eztabaidagarria izan daiteke mahai horren izena edo atxikipena, baina arazo hori alde batera utzita, badirudi nahitaezkoa dela eztabaida-leku bat izatea. Eztabaida-leku horretara bil daitezke sasoikako langileen arazoetan eskumena duten erakunde guztiak; horrela, eztabaida-lekuak ahalbidetu eta erraztu egingo du erakundeak bertan izatea, informazioa elkarrekin trukatzeko, eta, hala behar denean, euren jarduna koordinatzea. Hori guztia dela medio, eta azken urteotako eskarmentua gogoan izanik, hurrengo proposamena egiten da:

- Mahaiak azken urteotan izan duen dinamika balioetsiko da, horrek koordinazio-tresna gisa izan dituen lorpenak eta gabeziak aztertuz. Horrekin batera, beharrezkoak diren aldaketak edo hobekuntzak egingo dira, mahai horren osaera eta jardunbidean.
- Orain arte, sail batzuek (adibidez, Herrizaingo Sailak –Ertzaintzak– eta Gizarte Gaietarako eta Etxebizitzarako Sailak) ez dute ordezkariarik izan mahai horretan, eta gerora begira bertara –edo antzeko eztabaida-leku batera– bildu beharko lirateke.

2. Ukitutako administrazio guztien erakundeek hartu behar dute parte arazo honetan

Txostenak argiro-argiro erakusten du administrazioen parte-hartzea ez dela neurri berekoa izan. Bide horretatik, eta euskal administrazioei dagokienez, azpimarratzekoa da udal agintarien parte-hartze urria, udalerrri jakin batzuetan bederen. Era berean, Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako nekazaritza-sailek ez dute ekimenik bideratu, nahiz eta horretarako eskudun izan. Beharrezkoa da, beraz, hutsune horiek konpontzea.

3. Zerbitzu jakin batzuen erantzun-gaitasuna gehitu behar da aldi baterako behintzat, arazoa duten gunetan

Sasoikako langileen kopuruak, udalerrri zehatz batzuetan, bikoiztu egiten du ohiko langileen kopurua. Sasoikako langileak bertan izateak, zentzuzkoa denez, areagotu egiten ditu beharrianak; horregatik, zerbitzu jakin batzuek (hezkuntza-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, oinarrizko gizarte-zerbitzuek, polizia-zerbitzuek...) gehitu egin behar dute euren erantzun-gaitasuna.

Zenbait kasutan (esate baterako, hezkuntza-zerbitzuen edo polizia-zerbitzuen kasuan), aurrerapauso garrantzitsuak eman dira zerbitzu horiek indartzeko: laguntzeko irakasleak bidali dira gunehorietako ikastegietara, langile gehiago kontratatu dira gizarte-hezkuntzako programak sendotzeko... Beste kasu batzuetan, berriz, zerbitzuek lan handiagoa bereganatu behar izan dute, nahiz eta baliabideak ohikoak izan (Ertzain-etxearen ohiko langileria edo gunehorretako osasun-ekipoak).

Arartekoaren proposamena, beraz, hau da: administrazioek zerbitzu desberdinen gaineko erantzukizuna dutenez gero, kontuan izan behar dute langileriaren aldi baterako gehikuntza, baliabideak planifikatu eta aurreikusteko orduan. Horren ondorioz, zerbitzuak indartu behar dituzte, hori beharrezkoa den neurrian.

KONTRATAZIO-BALDINTZAK KONTROLATU ETA HOBETZEA

Txosten honen 2. kapituluaren sasoikako langileak kontratatuzeko sistemak aztertu dira. Horrekin batera, eguneroko zenbait gertaera azaldu dira –besteak beste, azpikontratazioa–, biztanlerik ahulentzat horiek dituzten ondorio larriak azpimarratuz. Bestalde, zenbait ekimenen berri eman da, ekimen horien helburua baita arrisku-egoerak saihestea edota nekazari kontratatzaileen eta langile kontratatuen arteko zuzeneko harremanak erraztea. Arazo horiei begira, honako gomendio eta proposamen hauek egiten dira:

4. Kontratazioak euren jatorrian bultzatu behar dira

Jatorrian kontratatzeak hainbat abantaila dakartza sasoikako langileentzat, eta jadanik aipatuak izan dira abantaila horiek: langileek lekualdaketa antola dezakete eta laguntzak lor ditzakete; gainera, kontratazio desberdinak koordinatu ahal dituzte, kontratazioaren denbora osoa luzatuz; errazagoa da haientzat ostatu-baldintzak kontrolatzea eta azpikontratazioarekin lotutako arriskuak saihestea...

Edozein modutan ere, aurretiaz ikusi dugun bezala, kontrataziorako formula hori ez da orain arte askorik erabili gure artean, familia-nekazaritzari edota enpresa txikiei dagokienez behinik behin. Gainera, formula hori kudeatzeko arazo inportanteak azaltzen dira.

UAGAk bultzatu ditu orain arte halako ekimenak, eta Arartekoak uste du jatorrian kontratatze hori sustatu behar dela, pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago erabil dadin. Horrela, erantzun egokia eman ahal izango zaie lan-eskuaren beharriari, eta, zehatzago, gero eta nekazari gehiagori.

5. Azpikontratazioak salatu eta ikertu behar dira

Azpikontratazioa asko zabaltzen da gure artean. Gertaera hori oso arriskutsua da eta ondorio larriak sorrazten ditu sasoikako langileentzat eta, bereziki, laguntza txikiagoak dituztenentzat edo ahulagoak direnentzat. Horren ondorioz, eta zalantza-izpirik gabe, zenbait neurri hartu behar dira, besteak beste, ondokoak:

- Nekazari kontratatzaileak kontzientziatu behar dira.
- Zuzeneko ordainketa sustatu behar da, bitartekorik gabe.
- Salaketa-protokoloak erraztu behar dira.
- Berme zehatzak eskaini behar dira, salaketek salatzaileei kalte egin ez diezaieten (salatzaileak kaltetunak eurak izan nahiz nekazariak izan).
- Ikerketarako sistemak eta kontrolerako mekanismoak azkartu behar dira...

6. Kontratazio-izapideak erraztu behar dira, eta, horrekin batera, Lan Ikuskatzaitzaren esku-hartzea gehitu behar da

Bildutako datuak kontuan hartuta, aitortu behar da sektore honetan aurrerapausoak eman direla. Nolanahi den ere, jarduera asko eta asko burutzen dira oraindik, lan-arautegitik kanpo. Bestalde, matrikula-liburuak ezabatzeagatik eta kontratazioen araubide orokorra aldi baterako kontratazioei aplikatzeagatik, halako egoerak gero eta gehiago zabal daitezke, eta horrek kezka larriak eragiten ditu. Hala gertatuz gero, aurrera egindako ibilbideak atzera egingo luke nabariri. Hur-hurreko arrisku horri begira aurreneurriak hartzeko, bi bide osagarri hauek proposatzen dira:

- Alde batetik, nekazariarentzat kontratazio-izapideak erraztu behar dira edo, behintzat, informazio eguneratua eman behar zaie nekazari izapide horien inguruan. Azken urteotan, helburu hori erdiesteko, heziketa-jarduerak burutu dira, informazio-orriak banatu dira... Bestalde, eskualdeetako nekazaritza-bulegoetan edo argibideetarako bulegoetan, zalantzak argitu ahal zaizkie nekazariari, eta bertan egin daitezke zenbait izapide.
- Beste alde batetik, Lan Ikuskatzaitzak gehiago esku hartu behar du.

7. Sasoikako lan-poltsen sorrera edo kudeaketa sustatu behar da

Argibideetarako bulegoak, azken kanpainetan, horretan ibili dira. Haien eskarmentuak erakusten du zer-nolako aukerak eta mugak dauden lan-poltsak sortu eta kudeatzeko, batik bat, lan-poltsa horiek zuzeneko kontratazioa erraztu nahi dutenean.

Ez du ematen bitartekotza-lan hori Cáritasi dagokionik; orain arte, ordea, Cáritasek kudeatu ditu bulego horiek. Aurrerantzean, erakunde espezializatuak burutu beharko lukete lan hori, besteak beste, INEMek edo Langaik.

Jatorrian kontratatzeari begira, hau bide osagarria izan daiteke. Bi bideok zabalduz gero eta arrakastatsu bilakatuz gero, aukerazkoak izan daitezke, eta, horrela, azpikontratazioak desagerraraz daitezke.

8. Araban, nekazaritzako hitzarmena negoziatu behar da

Arabian asko zabaldu da sasoikako lana, nekazaritzaren arloan. Lan horren ezaugarri berezkoak eta azken urteotako joera kontuan hartuta, komeni da nekazaritzako hitzarmen berezi bat negoziatzea. Hitzarmen horren bitartez arautu daitezke txosten honetan aztertutako arazo gehienak. Egiatan, hitzarmena izateak besterik gabe ez ditu konponduko arazoak, baina berak ezarriko duen esparrua oraingoa baino askoz argiagoa izango da harremanak bideratzeko. Halako hitzarmenak badira izan beste toki batzuetan (adibidez, hurbileko autonomia-erkidegoetan) edota antzeko sektoreetan (upelategietako langileen hitzarmena, kasurako).

OSTATU-BALDINTZAK HOBETZEA

Arartekoak arreta berezia jarri izan du sasoikako langileen ostatu-baldintzetan, bai txosten honen 3. kapitulan, bai eta aurreko txostenetan ere. Horren ondorioz, bi gomendio orokor egin zituen Arartekoak gai honetan: bata, 1997. urtean eta bestea, berriz, 2000. urtean; gomendio horiek txosten honen I eta II. eranskinetan jaso dira.

Arartekoaren ustez, gomendio horiek indarrean diraute oso-osorik, ez baitira oraindik bete; hori dela eta, hemen berriro dakartzagu gogora. Gainera, txosten honetan zenbait alde operatibo zehaztuko dira.

9. Sasoikako langileen ostatu-baldintzak arautu behar dira

Esan bezala, txosten honen II. eranskinera bildu da 2000. urteko 6. gomendio orokorra. Gomendio horrek, arakatutako egoera guztiak deskribatu eta gero, ekimen desberdinak balioesten ditu, eta gure eskumen-eremua aztertzen du. Horrekin batera, gomendioak zehaztu egiten du sasoikako langileen ostatu-baldintzei buruzko arauketa. Horretarako, zenbait tresna juridiko proposatzen ditu, besteak beste, jarraikoak:

1. Nekazaritza Sailak hala proposatuta, Eusko Jaurlaritzak dekretu berezia prestatu behar du. Dekretu horrek honako eskakizun hau ezarri behar du: mahasti- nahiz ardo-ustiategietan eta patata-ustiategietan, instalazioak izan behar dira sasoikako

langileei ostatua emateko; hori zein proportziotan bete behar den jakiteko, aintzakotzat hartu behar dira kasuan kasuko beharrianak eta ustiategi bakoitzaren ekoizpen-gaitasuna. Eskakizun hori bete behar dute, behinik behin, ustiategi berriek eta egungo ustiategien zabalkuntza-proiektuek ere bai.

Bide beretik, dekretuak finkatuko du zer-nolako betekizunak eta baldintzak izan behar dituzten gutxienez instalazio horiek:

- argi naturala eta aireztapen egokia;
- ohea edo litera, suaren kontrako koltxoi eta guzti, eta armairua;
- garbitasun-zerbitzuak, alegia, dutxa, konketa eta komuna, hamar lagunentzat;
- sukaldea eta harraska alikatatua, eta bazkaria prestatzeko gutxieneko ekipamendua;
- jantokirako gunea.

2. Lurraldearen antolaketari buruzko agiri estrategikoetan, erabilera hori aurreikusteko beharrianak jaso behar da; izan ere, erabilera hori nahitaezko osagaia da egungo nahiz etorkizuneko ustiategientzat, horiek patata-ustiategiak izan nahiz mahasti- edo ardo-ustiategiak izan. Halako dokumentu edo agiriak dira, besteak beste, Jarduera Ekonomikoen Lurralde Plana (Nekazaritzako Lurren Sektorereko Lurralde Plana), Arabako Errioxako Lurralde Plan Partziala eta Araba Erdiko Lurralde Plan Partziala.

3. Ukitutako udal guztien arau subsidiarioak berrikusi behar dira. Hori egitean, arau horietara bildu behar da aldi baterako etxebizitza kolektiboaren erabilera, nekazaritzako ustiategiei lotuta.

Era berean, proposamen gisa hurrengo jasotzen da: udal planeamenduaren arau subsidiarioetan ezar daiteke zer-nolako betekizunak eta parametroak izan behar dituzten gutxienez instalazio horiek. Horrela, betekizun edo parametro horiek bete ezean, udalak berak esku hartu ahal izango du, hirigintzako diziplina-tresnak erabiliz.

Nabari denez, arauketa horrek, neurri handiagoan edo txikiagoan, eragina du administrazio eta sail desberdinetan.

10. Bide zehatzak antolatu edo erabili behar dira, erakundeek laguntza eman dezaten, eta, laguntza horri esker, lokalak ostatu moduan atondu edo presta daitezten

Gomendio honek lotura estu-estuak ditu aurrekoarekin. Izan ere, 2000. urteko gomendio orokor horretan, honako proposamen hau jasotzen da: Arabako Foru Aldundiak, dekretu bidez, laguntzen deialdia egin behar du; laguntza horiek emango dira, sasoikako langileentzat instalazio egokiak atontzeagatik, eta instalazioek bete behar dituzte, lehen esan bezala, autonomia-erkidegoaren arautegiak ezarritako gutxieneko betekizunak. Gomendioari berriro ekinez, dekretuak hauxe adierazi behar du: sektore horretan inbertsioa egiteagatik, laguntzak, diru-laguntzak edo onura fiskalak lortu ahal izateko, nahitaezkoa da Eusko Jaurlearitzak sasoikako langileen instalazioei buruz dekretu bidez ezarritako baldintzak betetzea.

Hemen, beraz, erakundeek laguntza ekonomikoa ematea proposatzen da. Egiantan, zalantzan jar daiteke laguntza hori beharrezkoa izatea, kasu batzuetan behintzat. Izan ere, inbertsioa egiteko aukerak eta ostatuaren egiazko erabilgarritasuna asko

aldatzen dira, gunearen arabera (patata edo mahats-bilketa) eta ustiategiaren neurriaren arabera. Edonola ere, ostatuaren arloan atzemandako hutsuneak eta arazoak oso larriak dira, eta, epe laburrean, nekez konponduko dira, horiek ekimen askearen esku utziz gero. Gauzak horrela, erakundeek emandako laguntza eragile bat besterik ez da, prozesuak erraztu eta azkartzeko. Laguntza hori garrantzitsua izango da, batik bat familia-ustiategi txikien kasuan, horiek ez baitute inbertsio-gaitasunik eta oso gutxitan erabiliko baitituzte instalazioak.

11. Aterpetxeak edo gizarte-ekipamenduak sustatu eta suspertu behar dira

Aipatu berri den moduan, ustiategi txiki askotan, oso zaila da, edo, behintzat, ez da batere errentagarria, urteko egun gutxi batzuetarako, lokal berezi bat izatea, sasoiakako langileen ostatu gisa. Halako kasuetan, egokiagoa izan daiteke gizarte-instalazioak sortu edo kudeatzea. Bide horri ekin diote, besteak beste, aterpetxeek (Agurainen eta Biasterin) eta Lezan sortutako lokal berriek. Bide horri dagokionez, Arartekoaren proposamena hauxe da:

- Kasu guztietan sustatu behar da agente esku-hartzaileek (hala nekazariak, nola erabiltzaileek) zuzeneko parte-hartzea izatea, lokal horien kudeaketa eta mantenimenduan.
- Aguraingo aterpetxea erabiltzeko irizpideak berrikusi behar dira, uzta-garaian zehar horren erabilera hobea izan dadin.
- Lezako gizarte-ostatu berria da, eta, horregatik, horren ezarpena eta kudeaketa kontrolatu behar dira, emaitzak behar bezala balioetsi ahal izateko, eta, egoki bada, eredu hori beste toki batzuetara hedatzeko, beharrianak antzekoak izanez gero.
- Sasoiakako langileen ostatu-baldintzak hobetzeko gizarte-ekimenak sustatu eta suspertu behar dira, bereziki, beharrian handiko tokietan eta familia osoa bertaratzen denean, adingabeak barne.

12. Lokalen gaineko kontrola eta ikuskapena argitu eta garatu behar dira

Ostatu-baldintzak arautu, ekimen zehatz batzuei laguntza eman eta erakundeen parte-hartzea sustatzearekin batera, kontrol-mekanismoak ezarri behar dira, egoera onartezinik gerta ez dadin.

Hemen gogoratu behar da gune batzuetan gero eta gehiago atzematen den joera: sasoiakako langileak kontratatzen dira, ez uzta-garaiko egun gutxi batzuetarako bakarrik, baizik eta epealdi luzeetarako. Halako kasuetan, ondorioak oso kaltegarriak dira, sasoiakako langileak bertan bizi direlako eta gune horiek ez dituztelako betetzen bizigarritasun-baldintza gutxienekoak.

Hori kontuan hartuta, komenigarri izan daiteke halako egoerei aurre egitea eta erantzukizunak argitzea. Areago oraindik, erakundeek ofizioz jardun behar dute eta salaketak aztertu behar dituzte, horiek benetan ondorio onuragarriak izan ditzaten eta zigorgabetasuna saihesten dadin.

SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIEI DAGOKIENEZ, HOBKUNTZAK EGITEA ADINGABEAK ESKOLATZEKO ETA HORIEI LAGUNTZA EMATEKO

Askotan, haurtxoak euren familiekin batera joaten dira nekazaritzako kanpainetara. Horregatik, zenbait pauso eman dira, haurtxo horiek eskolatzeko eta horiei laguntza emateko. Txosten honen 4. kapituluaren xehetasunez azaldu dira pauso horiek, bai eta lortutako emaitzak eta erantzunak hobetzeko zailtasunak ere. Lehen esan legez, txosten honek bost gai jorratzen ditu, eta, ziur asko, hauxe da azken kontrol-urteotan gehien garatu dena eta ekimen gehiago bultzatu dituen. Gomendio hauetan, beraz, helburua ez da proposamen berritzaileak egitea. Haatik, helburua da hasitako jardueraren batzuk azpimarratzea, eta horiek hobetzea eta ondorio handiagoak erdiestea.

Gauzak horrela, azken urteotako eskarmentua gogoan izanik, eta hezkuntzako agenteek eurek bildutako ekarriak aintzakotzat harturik, Arartekoak honako proposamen hau egiten du:

13. Adingabeen eskolatzeko-maila handitu behar da, horretarako beharrezkoak diren bide guztiak jorratu

Txostenak xehetasunez azaltzen ditu gunean-gunean lortutako eskolatzeko-mailak. Maila horiek ez dira inoiz heltzen “errodako” adingabeen % 50era. Zenbait kasutan, adingabe horiek noizean behin baino ez dira eskolatar joaten, egun batean edo gutxi batzuetan. Aldi berean, txostenak jasotzen du eskolatzeko egiazko zailtasunak, erresistentziak edota bertaratze-maila desberdinak, adinaren eta bestelako faktoreen arabera.

Eskolatzeko-maila handiagoa izan dadin eta adingabeak eskolatar gehiago joan daitezkeen, honako proposamen hau egiten da:

- Garraio-laguntzak eta eskolako jantoki-laguntzak emateari eutsi behar zaio. Modu berean, gizarte-hezkuntzako programek laguntzak jasotzeko eutsi behar diote.
- Sakon aztertu behar da talde zehatz batzuk zergatik joaten diren gehiago edo gutxiago eskolatar; horretarako, kontuan hartu behar dira faktore desberdinak, kasurako, adina, sexua, kokalekua edo jatorria. Gainera, adingabe horien egiazko eskolatzeko bultzatu behar da, horretarako neurri bereziak hartuz (0-3 urte artekoentzat; 12 urtetik gorakoentzat; neskaentzat; Portugalgo adingabeentzat...).
- Alderdi guztiak sentibilizatu behar dira, guztiak jakin dezaten eskolatzeko beharrezkoa eta nahitaezkoa dela.
- Gunean guneko zentro guztiak zuzeneko parte-hartzea izan behar dute.
- Ahal den neurrian, eta zeharka bada ere, eskolatzeko bultzatu behar da jatorrian. Eta, horrekin batera, eskura dagoen informazioa eman behar zaie agintari eskudunei.

14. Ikastegiaren hezkuntza-erantzuna hobetu behar da

Hezkuntzako sistemak erantzuna eman behar die adingabe horien beharrezko bidez. Erantzun hori hobetzeko, honako proposamen hau egiten da:

- Jatorrizko ikastegiekin, harremanak bultzatu behar dira, bai eta informazioa eta dokumentazioa elkarrekin trukatu ere, baldin eta eskolatzea normalizaturik badago.
- Fitxa edo ziurtagiri pertsonalak prestatu behar dira, hurrengo urteetan ere zentroen arteko kontrola errazteko.
- Irakasleen heziketa berezia ahalbidetu behar da. Irakasleok, halaber, behar besteko aurrerapenez izan behar dira ikastegietan, sasoikako langileak heldu aurretik ere. Gainera, irakasle horiek elkarrekin trukatu behar dituzte esperientziak eta materialak.
- Ikastegietan, proiektu, programa, jarduera eta eskola-talde bereziak antolatu behar dira, adingabeen oinarrizko beharrezan kontuan hartuta (gizarte-ahalezia, trebetasun tekniko-instrumentalak...).
- Eskoletan izandako esku-hartzeak koordinatu behar dira, horien bitartez eskolatik kanpoko gizarte- nahiz hezkuntza-programak garatzen diren neurrian. Oinarrizko helburuak iristeko orduan, elkar sendotzea bilatu behar da.
- Eskolako dinamikaren barruan, integrazioa sustatu behar da (guneak, jarduerak, taldeak), hori egin ahal den guztietan...
- Eztabaidatu behar da ea egoki ote den beste ezaugarri batzuetako irakasleak bertan izatea (portugesak dakitenak edo jatorrizko kulturetakoak direnak...).

15. Gizarte-hezkuntzako programei eutsi behar zaie, eta horiek zabaldu egin behar dira

Azken urteotan, gizarte-hezkuntzako programa bereziak burutu dira. Programa horiek Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailaren diru-laguntza jaso dute, eta elkarte desberdinak arduratu dira haiek kudeatzeaz. Esperientzia hori guztiontzat ona izan da, kasuan kasuko helburuak erdiesteko eta hezkuntzako nahiz gizarteko beste zerbitzu batzuei laguntza emateko. Bide beretik, honako proposamen hau egiten da:

- Programa horiek beste gune eta udalerrri batzuetara hedatu behar dira, beste horietan ere sasoikako langileak bizi direlako.
- Elkarteen eta hezitzaileen erantzukizunak argitu behar dira, beste erakunde eta profesional batzuei begira (gizarte-zerbitzuei begira, ikastegiei begira...).
- Beste erakunde batzuekin koordinazioa erraztu behar da, guztiok batera xede erkideak lortzeko.

GIZARTEA SENTSIBILIZATZEA ETA SASOIKAKO LANGILEAK GIZARTERATZEA

Talde baten baldintzak hemen azaldutakoak direnean, argi dago talde hori gizartetik baztertuta dagoela edo, behintzat, arrisku hori hur-hurrekoa dela. Berrito ere azpimarratu nahi dugu “baldintzak” (lan-baldintzak, ostatu-baldintzak...) direla erabakigarri, ez, ordea, taldearen berezitasunak. “Baldintzek” erraztu edo oztopatzen dute taldea gizarteratzea, eta baldintzen gainean egin behar da lan. Izan ere, aurreneurriak hartu behar dira bazterketa-arriskuak saihesteko eta gizarteratzea bultzatzeko. Eta, horretarako, ezinbestekoa da bizi-baldintzak hobetzea. Bide horretan lagungarri izan daiteke gizartea sentsibilizatzea eta informazioa zabaltzea. Bi bide horiek jadanik erabili izan dira neurri

handiagoan edo txikiagoan, baina orain berriro ere azpimarratu nahi dira. Horregatik, honako proposamen hauek egiten dira:

16. Gizartea sentsibilizatzeko programak eta jarduerak gauzatu behar dira

Azken urteotan, jarduera zehatzak sustatu dira, sasoikako langileen arazoei buruz harrerako biztanleak sentsibilizatzeko. Batzuetan, erakunde edo zerbitzu publikoek burutu dituzte jarduera horiek. Beste batzuetan, aldiz, gunean guneko elkarteek (esate baterako, Cárístasek) bereganatu dute eginkizun hori. Eta, askotan, sentsibilizazio-jarduerak burutu dira kanpaina-datetatik hurbil.

Ekimen horien ondorioak balioestea ez da batere erraza. Beste modu batera esanda, oso zaila da jakitea ekimen horiek zenbaterainoko eragina izan duten, pentsamoldeak alda daitezzen eta sasoikako langileen bizi-baldintzak benetan alda daitezzen. Edozein kasutan ere, errealitatea arakatu eta gero, badirudi komeni dela ekimenoi eustea. Horrekin batera, erraztu egin behar da gunean guneko pertsona edo talde antolatuek ekimen horietan parte-hartze aktiboa izatea (boluntario-taldeek, gurasoen elkarteek...).

Ikuspuntu horretatik, beharrezkoa da udal agintariak inplikazio handiagoa izatea, haiek baitute erantzukizuna hurbileko administrazioaren gainean, eta zuzeneko harremanak baitituzte biztanleriarekin eta horren arazoekin.

17. Sasoikako langileei argibideak eman behar zaizkie, euren eskubideei buruz, euren betebeharrei buruz, bai eta eskura dituzten zerbitzuei buruz ere

Egitan, harrerako biztanleei informazioa eman behar zaie eta sentsibilizatu egin behar dira. Baina ez euri eta eurak bakarrik. Eskubideak gauzatzeko, betebeharrak betetzeko edota gizarte-zerbitzuak erabiltzeko, askotan jakin egin behar da halakoak daudela eta jakin egin behar da, berebat, zer-nolako baldintzak bete behar diren horiek eskuratzeko.

Orokorrean, eta zerbitzu bereziak (adibidez, aterpetxeak) alde batera utzita, argibideak ahoz ematen dira. Ahozko argibide horiek ematen dituzte, besteak beste, gizarte-langileek, esku-hartzeko programak dituzten hezitzaileek eta bulegoetako langileek. Horrek badu abantailarik, zuzeneko harremanak garatzen dituelako. Nolanahi den ere, on izango litzateke lagun horiek eta bestelako gizarte-agenteei idatzizko materialak eta material instituzionalak izatea, horiek oso lagungarri gerta baitaitezke. Material horietan, labur-labur jaso daitezke oinarrizko arazo batzuk, esate baterako, jarraikoak:

- eskura dauden zerbitzuen helbideak eta telefono-zenbakiak (gizarte-zerbitzuak, Ertzaintza, argibideetarako bulegoak...);
- sasoikako langileen eskubideak, horiek arriskuan izan baitaitezke; eta, halaber, arazorik izanez gero, langileok nora jo dezaket;
- seme-alabak eskolara eramateko betebeharra;
- zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko ordutegiak edo zerbitzuok eskuratzeko baldintzak (aterpetxeak, duxtak, ambulatorioa...).

Beharbada, idatzizko argibideak ez dira erabilgarriak izango subjektu jakin batzuentzat. Edozein kasutan ere, beste bide bat da, eta bide horrek, argigarri izateaz gain, erakundeen konpromisoa azalaraz dezake eta informazioaren zabalkuntza susta dezake.

Bide beretik, komenigarri izan daiteke informazio gehiago izatea, atzemandako beharizanei buruz, bai eta sasoikako langileek eurek egindako eskari, kexa edo proposamenei buruz ere. Datu horiek guztiak modu antolatuan bil daitezke, beste sektore batzuen iritziekin egin den bezala.

I. ERANSKINA

Gomendio orokorra, 1997koa, “Denboraldiko langileentzako eta horien familientzako bizilekuen baldintzak” deritzenei buruz

I. DENBORALDIKO LANGILEENTZAKO ETA HORIEN FAMILIEN- TZAKO BIZILEKUEN BALDINTZAK

Azken hiru urteotan, mahatsa edo patata biltzera etortzen diren denboraldiko langileek eta horien familiakoek nolako bizi-baldintzak dituzten aztertzen aritu da Arartekoa Arabako hainbat lekutan. Arazorik larrienak sortarazten dituzten lau arlo hauek hartu ditu batez ere kontuan:

- kontratazio sistemak;
- non bizi diren;
- eskolatzea nolakoa den;
- gizartearekiko integrazio-baztertze maila.

Denboraldiko lanak egitera etortzen diren familietako seme-alaben eskolatzeari dagokionez, 1995ean gure erakundeak hainbat gestio eta zeregin burutu zituen, eta egoerak hobera egin duela ikusi dugu.

Iazko (1996) txostenean ere langile horien eskubideak hobetzea helburu zuten hainbat ekimen instituzional proposatu ziren. Honako hiru arlo hauek hartu ziren oinarritzat:

- 1- Arauak garatzea eta legeak betearaztea.
- 2- Erakundeen eta agente sozialen arteko lankidetzeta.
- 3- Langileei zein eskubide eta zerbitzu dagozkien ezagutaraztea.

Azken urte honetan egindako jarraipenaren bidez (txosten honen 2. kapituluan dago jasota), landutako zenbait arlotan aurrerapenak lortu direla ikusi dugu. Gainera, hasieran aipatutako arloetako bat arreta handiz aztertu dugu: denboraldiko langileak eta horien familiak non bizitzen diren. Hori izango da, hain zuzen, aztergai honen ardatza: bizilekua. Nekazaritzan aritzen direnen artean, egoera anitzak aurki daitezke. Hona hemen lau egoera-mota:

- a) erakundeen aterpeetan ostatu hartzen duten langileak;
- b) horretarako antolatutako eremu edo kanpamentuetan kanpatzen duten familiak;
- c) kontratatu dituzten nekazari edo enpresek egokitutako lokaletan bizi diren langile eta familiak;
- d) nora joan ez dutelako, gaua edonon edo edonola pasatzen duten langile eta familiak.

Hainbat dira, bestalde, gai horretan esku hartzen edo laguntzen duten estamenduak. Hor ditugu:

- lurralde historiko honetako erakundeen ekimenak (adibidez, Arabako Foru Aldundiarenak), hala nola, aterpeak prestatzea;

- herri-agintariek emandako laguntza, adibidez, akanpatzeko guneak baimenduz edo prestatuz;
- kontratatzaileek langileentzako lokalak egokitu eta prestatu egiten dituzte (etxebizitzetan edo ardo-enpresen lokaletan)...

Argi dago bizileku-premiak ez direla berdinak kasu guztietan (langileak bakarrik etortzen badira edo familia osoak datozenean...) eta beraz, ezinezkoa da premia guztiei erantzungo dien konponbide bakarra eskaintzea.

Denentzat balioko duten oinarrizko irizpideak finkatu behar dira. Horrela, irizpide horien arabera bilatuko dira konponbideak eta agente sozial bakoitzari zein erantzukizun dagokion erabakiko da. Denboraldiko langileen eskubideak errespetatu egin behar dira beti, eta horretarako, Zuzenbidearen eremu guztiak hartu behar dira kontuan. Baina zeregin horretan guztian, ezin dugu inoiz ahaztu zein den gure helburu nagusia: talde jakin baten bizileku-baldintzak aztertu eta hobetzea.

* * *

Konstituzioan etxebizitza egokia eta duina izateko eskubidea aitortzen da, eta 1948ko abenduaren 10ean eginiko Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsean ere jasota dago. Eskubide hori garatzeko hainbat bide erabili dira nazioartean:

- Hitzarmenak (Langile Migratzaileen eta horien familien eskubideak babesteko Nazioarteko Hitzarmena, 1950ekoa).
- Itunak (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituna, 1966koa).
- Deklarazioak eta gomendioak (Giza Asentamenduei buruzko Vancouvereko Deklarazioa, 1976koa)
- NBEk etxebizitza egokia izateko eskubideari buruz emandako ebazpenak (hainbat ebazpen: Biltzar Nagusiarenak, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluarenak, Giza Eskubideen Batzordearenak, Giza Asentamenduetarako Batzordearenak, Diskriminazioaren Prebentziorako eta Gutxiengoaren Babeserako Azpibatzailearenak...)

Hitzarmen, itun, deklarazio eta ebazpen batzuk orokorrak dira; beste batzuk, ordea, egoera jakin batzuk hartzen dituzte kontuan edo babes gutxien duten taldeen eskubideak bermatzeaz arduratzen dira. Orain ez gara hasiko horien guztien ezaugarriak adierazten edo esku artean dugun gai honetan nolako eragina izan dezaketen ikusten. Dena den, interesgarria deritzogu honako bi puntu hauek aztertzeari, garrantzi handikoak baitira:

- etxebizitza «egokia» zer den;
- eta gobernuek eta bestelako agenteek eskubide hori nola bermatu behar duten.

Har dezagun, adibidez, NBEn gai honen inguruan azken aldian landu den dokumentuetako bat: Habitatari buruzko Programa (Helburuak eta Hatsapenak, Konpromezuak eta Mundu Osorako Jarduketa Plana), Giza Asentamenduei buruzko Nazio Batuen Konferentziarako Prestakuntza Batzordeak onartua (1996ko apirilaren 12ko A/KONF. 165/L.1).

Habitatari buruzko programan, honela deskribatzen da etxebizitza egokia zer den:

«43. Etxebizitza egokia izatea ez da aterpe hartzeko lekua izatea soilik. Honako osagai hauek ere nahitaezkoak dira: eremu pribatua; behar adina leku; eskuragarritasun fisikoa; behar besteko segurtasuna (egitura egonkor eta iraunkorrak ere barne hartzen direla); iluminazio, berokuntza eta aireztapen egokiak; ura, saneamendua eta hondakinak deusezteko zerbitzuak izango dituen oinarrizko azpiegitura, horiek ingurugiroarekin eta osasunarekin lotura estua baitute; kokagune egokia, lantokia eta oinarrizko zerbitzuak eskura izango dituen; eta horrek guztiak ez du neurritz kanpoko kosturik izan behar. Faktore horiek egokiak diren ala ez neurtzeko, interesdunarekin aztertu behar dira beti, mailaz mailakako garapena ere kontuan hartuta. Egokitasun irizpidea aldatu egiten da herrialde batetik bestera, tokian tokiko faktore kulturalen, sozialen, ekonomikoen, ingurugirokoen... arabera izaten baita.»

Aipatu dugun programan, etxebizitza egokia arian-arian lortu ahal izateko gobernuek zein neurri hartu behar dituzten ere aipatzen da, besteak beste:

«d) Biztanleak nolako bizilekuetan bizi diren eraginkortasunez gainbegiratu eta neurtzea, non bizi ez dutenen eta egokiak ez diren etxebizitzaren kopurua ere zehaztuko dela. Egoera horretan daudenekin hitz egin ondoren, etxebizitza-politika egokiak burutu eta arazo horiei aurre egiteko egitasmo eraginkorrak gauzatuko dira.»

Habitatari buruzko programan «babes gutxien duten taldeei» arreta berezia eskaintzen zaie, eta talde horretakoak dira, hain zuzen, «langile migratzaileak». Honakoa aipatzen da gai horren inguruan:

«72. Babes gutxien duten taldeek ez dute berdintasunezko baldintzetan aritzerik izaten baliabide eta aukerak lortzeko orduan. Norbait joera sozioekonomiko nagusietatik eta erabakiak hartzeko prozesuetatik kanpo eta baztertuta uzten dutenean gertatzen da hori. Talde horien egoera hobetzeko behar-beharrezkoa da hainbat arlotan sarbidea ematea: etxebizitzan, finantzaketan, azpiegituretan, oinarrizko gizarte zerbitzuetan, gizarte babeserako baliabideetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan.»

Aipatu ditugun erabaki edo irizpideak orokorrak dira -asentamenduak edo etxebizitzak orokorrean hartzen dituzte kontuan-, ez baitituzte egoera jakin batzuk aztertzen, hala nola, denboraldiko langileena.

Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE), hainbat gomendio eta hitzarmenen bidez, irizpide jakin batzuk finkatu ditu aipatutako talde horientzat. Hona hemen zenbait adibide:

- Nekazaritzan lan egiten dutenen bizilekuari buruzko 16/1921 gomendioan honako hauek jasotzen dira:
Nazioarteko Lan Erakundeko kide bakoitzak nekazaritzan lan egiten dutenen bizileku-baldintzak arautuko ditu -aurretik egin ez badu bederen-, legegintzaren bidea nahiz bestelakoak erabiliz. Horretarako, kasuan kasuko herrialdeko nekazaritzan eragina duten baldintza klimatologikoak nahiz bestelakoak hartuko ditu kontuan, eta alde aurretik, kontratatzaile eta langile

erakundeekin hitz egingo du, horrelako erakunderik egonez gero bederen. Araudi hori kontratatzaileek langileentzat egokituko dituzten lokal guztietan nahitaez bete beharko da: langile bakanentzako nahiz familia osoentzako lokaletan, kontratatzaileek utzitako etxebizitza eta eraikinetan.

Araudi horrek ondorengo xedapenak hartuko ditu barne:

- a) familiak, langile taldeak zein bakanak hartuko dituzten bizilekuetan berogailuak ezarriko dira, baldintza klimatologikoak direla-eta horrelakorik behar ez denean izan ezik;*
- b) taldeentzako lokaletan langileek ohe bana eta behar beste altzari izango dituzte, eta baita garbitasunerako leku egokia ere; bestalde, lokal desberdinak egokituko dira emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat. Familia osoentzako bizilekuak haurrak kontuan hartuta egokituko dira;*
- c) zalditegiak eta kortak ez dira langileen logelatzat erabiliko.*

Nazioarteko Lan Erakundeko kide bakoitzak araudi horren xedapenak betearazteko behar diren neurriak hartuko ditu.

- 1962ko ekainaren 22an egindako Gizarte Politikari buruzko Hitzarmenak (oinarrizko arauak eta helburuak) honako irizpide hau ezartzen du seigarren artikuluan: *«Lanaren ondorioz, langileak beren etxebizitzetatik kanpo bizi behar dutenean, lan-baldintzetan familien ohiko premiak hartuko dira kontuan.»* Era berean, bizilekua ordainsariaren barruan sartzen denean, agintari eskudunak bizileku egokia emango zaiela bermatuko duten neurri egokiak hartuko ditu.
- Famili erantzukizunak dituzten langileei buruzko 165/1981 gomendioak, denboraldiko langileei dagokienez, honako ezartzen du 21. artikuluan: langile horiek babesteko, gehienetan famili erantzukizunak izaten dituztela, lan-baldintzak behar bezala arautu eta gainbegiratu beharko lirateke. Eta artikulua horren bigarren atalean, honakoa dio gainera: denboraldiko langileen lan baldintzak ahal den neurrian, langile iraukorrenekin parekatu behar direla.

NLEk ere finkatuta dauzka zein diren etxebizitza egokia izateko bete behar diren gutxienezko baldintzak. (Ikusi, adibidez, langileen etxebizitzetarako buruzko ekainaren 7ko 115/1991 gomendioa).

Nazioarteko erakundeek, noski, irizpide eta gomendio orokorrak egiten dituzte, eta ez die egoera jakin edo zehatz batzuei bakarrik erreparatu, horiek aldatu egiten baitira herrialde batetik bestera. Gobernuen zeregina da, hain zuzen, irizpide horiek (orokorrak) tokian tokiko egoerari (partikularrak) egokitzea, eta baita lurralde bakoitzeko administrazio aginpidedunarena ere. Hori dela-eta, helburu bera lortzeko (guri dagokigunez, denboraldiko langileen eta horien familien bizilekua) hainbat bide edo programa gauzatu dira lurralde desberdinetan, bakoitzak bere egoera hartuko baitu kontuan.

Horrela, denboraldiko langileen eta horien familien bizilekuari dagokionez, hainbat ekimen burutu dira gure inguruan. Hona hemen zenbait adibide:

- Dirulaguntzak ematea: batzuetan nekazariek jasotzen dituzte (adibidez, nekazaritza-ustiategiak berritzatzeko laguntzak, *«ustiategi horietan lan egiten dutenen bizi eta lan baldintzak hobetzeko asmoz»*). Horiek otsailaren 9ko

204/1996 Errege-Dekretuaren 5. art.an aurreikusten dira); beste batzuetan, berriz, irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek (adibidez, bizilekuak egokitzeko dirulaguntzak, Gizarte Gaietarako Ministerioak 1994ko azaroaren 4an barne-migrazioak babesteko neurriei buruz emandako Aginduan jasota daudenak).

- Zenbait zerbitzuek baimena lortzeko, izena emateko, egiaztatzeko, ikuskatzeko... gutxienezko zein baldintza material eta funtzional bete behar dituzten finkatzea (adibidez, Andaluziako Juntako Gizarte Arazoetarako Kontseilaritzak, otsailaren 20ko 87/1996 dekretuari eta 1996ko otsailaren 29ko aginduari jarraiki, bide hori hartu du gizarte zerbitzuetarako zentroak arautzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan ere, 1997ko azaroaren 12an emandako agindua betetz, Kultura Sailak bide hori hartu du beste zerbitzu mota batzuk arautzeko, hala nola, haur eta gazte taldeen egonaldiatarako aterpe eta instalazioak)
- Aztergai dugun sektoreko hitzarmen kolektiboetan, kontratatzaileak denboraldiko langileei bizilekua emateko ardurua eta erantzukizuna dituela sartu da, eta bizileku horiek duinak izateko bete beharreko baldintzak ere finkatu dira (adib.: Errioxako eta Jaengo hitzarmenak).
- Udalbatzei langileak eta horien familiakoak babesteko laguntza eman zaie. Hainbat zerbitzu jarri dira martxan, hala nola, denboraldiko langileen seme-alabentzako haurtzaindegiak (adibidez, Andaluziako Juntako Gizarte Gaietarako Kontseilaritzak 1992ko urtarrilaren 10ean emandako agindua).

Adibide horiek guztiak ikusi ondoren, argi geratu da denboraldiko langileen arazoak hainbat konponbide izan ditzakeela: berariazko arau edo hitzarmenak egitea edo horien egoera ere barne hartuko duten arau orokorrakoak ezartzea. Bi bideak dira baliagarriak lortu nahi dugun helburua erdiesteko.

Gaur egun, ez gure Autonomia Erkidegoan, eta ezta Arabako Lurralde Historikoan ere, nekazaritzan ez dago inolako hitzarmen kolektiborik. Baina badira, ordea, arazo hori konpontzeko balio dezaketen legegintza-ekimenak edo arauak. Legebiltzarra hasi da jadanik Nekazaritzaren Garapenari buruzko Legearen aurreproiektua bideratzen. Eta ez bairik gabe, aztergai dugun arazoari eta beste batzuei aurre egiteko aukera ezin hobea da. Horretaz gain, gaur egun indarrean dauden zenbait testu arau-emaile ere oso baliagarriak dira erakundeek ustiategiak «modernizatze» emango diren dirulaguntzak bideratzeko. Honakoak dira, bada, aipatutako testuak: uztailaren 30eko 210/1190 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategietarako laguntzei buruzkoa, eta uztailaren 8ko 168/1997 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan lehentasuna duten nekazaritza-ustiategiak arautzen dituenak. Esatekoa da, azken dekretu horretako zioen adierazpenean aurrerago aipatu dugun ustiategien «modernizazioa» aipatzen dela besteak beste, eta kontzeptu horrek langileen bizi eta lan baldintzen hobekuntza ere hartzen duela barne.

Izan ere, lurralde honetako zenbait enpresa eta nekazarik dirulaguntza publikoak lortu dituzte denboraldiko langileentzako eta horien familientzako bizilekuak egokitzeko. Dena den, Araban bizilekuak zertan diren aztertu ondoren, zenbait puntu argitu beharra dagoela iruditzen zaigu. Hauexek, hain zuzen:

- a) kontratatzaileak (nekazaria nahiz enpresa izan) langileen eta horien familien premien araberako bizilekua emateko erantzukizuna duela;

- b) bizilekuek «duinak» izateko bete behar dituzten gutxieneko baldintza materialak eta funtzionalak zein diren:
- c) administrazioek (udalek, Foru Aldundiak...) baldintza horiek baimendu gainbegiratu eta zaintzeko erantzukizuna dutela,

Hori guztia kontuan hartuta, Arartekoak honakoa gomendatzen du: denboraldiko langileentzako eta horien familientzako egokitutako bizilekuek bete beharreko gutxieneko baldintzak arautzea (materialak, higienikoak eta funtzionalak). Eta araudi hori hartuko da oinarritzat dirulaguntza publikoak emateko, bizilekuak baimendu eta ikukatzeko eta, azken finean, bizileku duinak izango dituztela bermatzeko

II. ERANSKINA

**Gomendio orokorra, 2000koa,
“Sasoikako beharginen alojamenduetako
baldintzak arautzea” deritzonari buruz**

II. SASOIKAKO BEHARGINEN ALOJAMENDUETAKO BALDINTZAK ARAUTZEA

1996tik Arartekok Legebiltzarrari urtero-urtero igortzen dizkion txostenetan islatu du zeintzuk diren Araban mahatsa eta patatak batzen dituzten sasoikakoen eta euren familien egoeraren gaineko kezka eta proposamenak (1996tik 1999ra arteko txostenen 1.kapitulua).Horrela bada,gehienbat lau izan dira jorratu izan diren gaiak:

- kontratazio sistemak;
- alojamenturako baldintzak;
- seme-alaben eskolaratzea;
- gizarte integrazioa eta bazterketa.

Hona hemen bildutako gomendio orokorra lau gai horietariko bati baino ez dagokio: sasoikako beharginen alojamentua emateko instalazioen baldintzak, alegia.

Ez da Arartekok gai honi zuzenean heltzen dion lehenengo aldia. Horrela,1997ko txostenean sasoikakoen eta euren familien alojamentu baldintzak arautzeko beharizanari buruzko gomendio orokorra sartu zuen eta azken urteko txostenean ere (1999) lehentasunezko trataera eman zitzaion.

Edozein modutan ere,proposamenak gorabehera,ez da lortu egoerak ageriko hobekuntzarik izatea eta alojamentuen gaiak konpondu gabeko gaia da, hau da, zalantzen, arazoan eta kezkan aldiro-aldiroko iturria.

2000.urtean barrena, Arabako sasoikako langileen arazoari aurreko egiteko hainbat erakunde sortutako mahaiaren batzarretatik batean (otsailaren 22ko bilera) planteatu zen egokia izango zela Arartekok pertsona hauen eta euren familien alojamentuari buruzko gaia, oraindik ere konpondu gabekoa, berriro ere aztertzea eta mahaikideek erreferentzia gisara erabiltzeko agiri edo proposamenen bat egitea.

Eskari horri erantzunez, Ararteko erakundeak hainbat lan bilera izan zituen gai honen inguruko eskumena duten administrazioetako zenbait arduradunekin (horietariko batzuk erakundeen arteko mahaiaren ez dauden Eusko Jaurlaritzako sailekin) eta, ondoren, arautzeko proposamenak jasotzen zituen txosten bat taxutu zuen; txosten hau Arabako Ongizateko Foru Diputatuari igorri zion, bera hartu behar baita mahai horren arduradun edo bultzatzailetzat, eta bestelako erakundeetara ere bidali zuen.

Hona hemen bildutako gomendio orokorrak mamiz jasotzen ditu txosten horren edukia eta 2000ko maiatzean aurkezturiko proposamenak; alta, horiei, txosten hau idazteko momentuan, ez die oraindik ere erantzun zehatzik eman erakunde eskudunetariko bakar batek ere.

Aurten arte gai honen inguruan Ararteko erakundeak izandako esku-hartzearen bitartez arazoa deskribatu eta aztertu nahi izan da, bai eta proposatu ere, zeintzuk diren egoera hori hobetzeko erakundeek abian jarri beharreko jarduerak, betiere legeriak emandako zereginen arabera eta beste erakunde batzuei dagozkien zehaztapenetan sartu barik. Edozein modutan ere, egindako txostenean zein gomendio honetan aurrerapauso bat gehiago egin eta egoera desblokeatzeko erabilgarritzat jotzen diren hainbat adibide eta proposamen ematen dira.

Gomendia hiru zatitan egituratzen da:

1. Lehenengoa, deskribatzailea; bertan aztertutako errealitatea ez ezik bete beharreko premiak ere islatzen dira (neurri batean aurreko urteetan egindako azterlanen laburpena izan liteke).
2. Beste toki batzuetako hainbat ekimen eta proiekturen berri ematen den bigarren zatia (horiek guztiak erreferentzi modura erabil litezke).
3. Gaiari eskumenaren ikuspuntuaren aldetik oratzen zaion hirugarren zatia; era berean, egoera erregulatzeko lanabes juridikoak ere proposatzen dira (gomendia eta
4. proposamenak).

1. Sasoikako beharginen eta euren familien kokaleku eta alojamenduak Araban. Aintzat hartu beharreko egoerak

Sasoikakoen problematika aztertzean izan ohi den arazoetariko bat da euren errealitatearen gaineko datu orokor eta fidagarririk ez egotea. Badira hainbat gairen inguruko datu partzialak (eskolaturiko adin txikikoen inguruan, informazio bulegoetara jotzen duten edo Agurain zein Biasteriko aterpetxeak erabiltzen dituzten pertsonen inguruan, Gizarte Segurantzako alta hartu duten langileen inguruan...), baina horien bitartez oso nekeza da arloaren arazoei buruzko ikuspuntu orokorra -kuantitatiboa eta kualitatiboa-ateratzea.

Alojamendu eta kokalekuei buruzko datu zehatzei dagokienez, arazoa oso antzekoa da. Kasu jakin batzuetan, bai udal ekimenez bai Gizarte Ongizate Foru Institutuak sustatutako egitasmoen ekimenez, gai honen inguruko hainbat datu jaso eta ezagutu ahal izan dira. Horrela bada, azken kanpainetara mugatuz, esate baterako, erabiltzeko moduko zenbait datu iturri ditugu, nahiz eta lokal edo alojamenduen errolda fidagarririk existitzen ez den. Ziurtasun eta argitasun handiagoa eman nahian, hona hemen bilduko ditugu 1999ko kanpainari dagozkion datuak (horren inguruan memoria guztiak erabili ahal izan dira). 2000. urteko datuei dagokienez, hainbat sartu dira, betiere gomendio hau idazteko momentuan (2000ko abendua) horiek eskuratzeko modua zegoen ala ez kontuan hartuta. Horrenbestez, 1999ko kanpainari buruzko datu iturrietara joz, ondoko hauek guztiak aipatuko ditugu:

- Patata batzeko eremuari dagokionez, "Cáritas" erakundeak 1999an sasoiko eta nekazariekin egindako lanaren inguruan taxuturiko memoriak datu interesgarriak ematen ditu; datu horiek guztiak Arabako Lautada, Arana Haran eta Arabako Mendialdeko 36 herritan egindako 112 inkestari esker eskuratu ahal izan ziren.

- Arabako Errioxako eremuaren kasuan, oinarritzko gizarte zerbitzuen esku-hartzeak eta azken urteotan barrena Eltziegion gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko egitasmo batek ekarri dute, esate baterako, adin txikiko ugari eskolaratzea edo elikadura, osasun, higiegi edo aisialdiko erabilerarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzea ez ezik herri horretara bertaratzen diren sasoikoen eta euren familien egoerari buruzko datu orokorrak biltzea ere. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak diruz lagundutako egitasmo honen garapenarekin arduratzen den Hezilan heziketa taldeak urtero-urtero egindako txostenetan oso datu interesgarriak jasotzen dira etorkizunean hainbat esku-hartze bideratu ahal izateko: familien jatorria, familiaren osaketa, mahats bilketara etortzen emandako urte kopurua, eskolaratze erregistroak... Egitasmo hauek beste udalerrri batzuetara (Lantziego eta Kanpezu 2000. urtean) zabaltzearen ondorioz errealitatea hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.
- Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzak sustaturiko *Arabako Errioxan egindako sasoiko lanari buruzko azterlanak* eremu horretako alojamenduetako eskuragarritasun, okupazio, tipologia eta edukierari zein baldintzei buruzko ikuspuntu zabala ematen du, bai eta gai honen inguruan nekazariak eurek sentitutako zailtasunak ere. Aipatu beharra dago datu horiek guztiak inkesta bitartez jaso ahal izan direla eremu horretako ustiatagietako jabeek egindako elkarriketetan.

Mahatsa biltzeko 1999ko kanpainan, gainera, aipatzen dihardugun gaiari zuzenean eragiten dion zirkunstantzia berria izan zen: aurreko urteetan Eltziegion kanpatzeko egokitu ohi zen gunea kendu izana. Jakina denez, azken bi urteetan aplikatu den erabaki honek familia askoren kokaleku baldintzei eragin die zuzenean; izan ere, aurreko urteetan bertara jotzen eta kanpatzen ohituak egon dira. Ararteko erakundeko langileek *in situ* egiaztatu ahal izan zuten zeintzuk izan ziren makina bat familiari, batez ere ailegatu eta lehendabiziko momentuetan, planteatu zitzaizkion arazoak eta zalantzak.

Kanpatzeko gunea kentzeko erabakia hartu da, beste arrazoi batzuen artean, alde kontratugileek kontrataturiko pertsonen alojamendua emateko erantzukizuna hartzeko irizpideari jarraituz. Erakunde hau ere bat dator irizpide horrekin eta horrelaxe adierazi du uneoro. Arazoa, hala ere, sortzen da kontratugileek erantzukizun hau beren gain hartzen ez dutenean edo pertsonen duintasuna errespetatzen ez duten baldintzak edo eska daitezkeen gutxienekoak betetzen ez dituztenean. Bestalde, aipatu beharra dago gutxieneko horiek ez daudela ezarrita, horiek erregulatzeko arautegia edo zehazteko erabakia falta delako.

Erakunde honen aurreko txostenetan lau egoera mota bereizi dira pertsona hauei alojamendua emateko baldintzei dagokienez:

- a) Erakundeek bultzaturiko aterpetxeetan -eskuarki egun bat edo bitan barrena-hartutako pertsonen dagokiena;
- b) horretarako beren beregi ezarritako gunen edo akanpalekuetan kanpatzen duten familiei dagokiena;
- c) nekazariak edo enpresa kontratugileek egokitutako lokaletan alojamendua hartzen duten pertsona zein familiei dagokiena;
- d) baldintza hoberik ezin topa dezaketelako, gaua ahal duten lekuan eta moduan igarotzen duten famili zein pertsonen dagokiena.

Badira bestelako desberdintasun esanguratsuak eta garrantzi handikoak. Horietariko bat da inguru horretara familiarik gabe lan egitera doazenen eta familia guztia eurekin batera eroaten dutenen artekoa. Jakinaenez, beharizanek oso desberdinak dira kasu batean eta bestean.

Hona bilduko ditugu 1999ko kanpainari batez ere dagozkion hainbat datu, betiere gorago aipatutako lau egoera horietariko bakoitzari buruz. Batzuetan memorietatik ateratako informazioak dira; beste batzuetan Arartekoren langileek 1999ko irailaren 29an eta urriaren 6an kokaleku eta lokaletara egindako bisitetatik ateratako datuak dira. Era berean, men egingo diogu 2000ko urriaren 17 eta 18an egindako bisiten ondorioz aztertu ahal izan dugun egoerari.

a) Aterpetxeak

Behin beharrezko obrak amaitu eta gero, 1998an abian jarri zen Aguraingo aterpetxe iraunkorra, Arabako Foru Aldundiak sustatua eta 31 pertsonarentzako lekua duena. Biasteriko aldi baterako aterpetxeari gagozkiola, aurreko urtean legez, udal igerilekuko lokalak prestatu dira, plaza kopuru zehatz bat kontuan hartuta (48 pertsona) eta funtzionamendurako antzeko irizpideak erabili dira (gehienez ere gau biko egonaldiak, mantenua...).

Bi zerbitzu hauek hartzen dituzten eskariak eta ematen duten zerbitzua nahiko desberdinak dira: Aguraingo zerbitzuaren kasuan, eskaria txikiagoa da (93 gizonezko lau astetan barrena eta 99an gainezka egiteko ezelako problemarik izateke), eta Biasterikoaren kasuan askoz handiagoa (192 gizonezko eta 13 emakumezko, hamaika egunetan barrena 99an). Azken kasu honi dagokionez, aterpetxeak gainezka egin zuen funtzionamenduaren lehendabiziko egunetan eta, ondorioz, pertsonen harrera egiteko lekua behin-behinean handitu behar izan zen 16 plaza gehiago eskainiz. Azken urtean egoera hori intentsitate handiagoarekin gertatu da; horrela, irekita egon den hamar egunetan barrena okupazioa %100ekoa izan da, eta, azkenik, alde zuzenetik ixtea erabaki da kudeaketa arazoak egon direlako.

Argi dago aterpetxeen formulak badiuena hainbat muga eta kontraesan. Era berean, elementu positiboak ere ageri dira: erakunde desberdinen arteko lankidetzak, eremu horretako oinarriko laguntza zerbitzuen eta boluntarioen inplikazioa, kolektiborik ahulenei -berbarako atzerriko etorkinei- eskainitako arreta (1999an Agurainen hartutako 93etarik 84 eta Biasterin hartutako %80 izan dira atzerriko etorkinak), alojamenduaz gainerako bestelako zerbitzuak eskaintzea (arropa, janaria, garbiketa, botika kutxa, informazioa...).

Alta, zerbitzu horietako memoria teknikoetan ageri diren datuak eta balorazioekin bat, azken urte honetara arte adieraz zitekeen aterpetxeen bideak, bere mugak izan arren (bi eguneko gehieneko egonaldia, ordutegiak mugatuak izatea, hainbat egunetan gainezka egitea, gizarte agenteen aldetik inplikazio maila desberdina...) zerbitzu baliagarria ematen ziola oso ahula den pertsona kolektibo bati, hots, mahatsa edo patata biltzera bere kasa edo familiarterako ez diren taldeetan doan kolektiboari, gehienbat atzerriko jatorria duten pertsonen osatua (bereziki Magrebekoak). Azken urtean Biasteriko aterpetxean sorturiko arazoek ekarri beharko dute inguru honetan eskaintzen den zerbitzuaren

balorazioa eta egoera berraztertzea. Berraztertze horretan, besteak beste, kontuan hartu beharko lirateke Biasteriko aterpetxearen behin-behineko egoera eta baldintza materialak eta segurtasunezkoak, bai eta inguru horretara bertaratzen den pertsona kopuru gero eta handiagoa ere, nahiz eta alojamendurako premiak konponduta izan ez.

Zerbitzu hauetako funtzionamenduan badira sasoikakoen beharginei zuzendutako beste toki batzuetako aterpetxeen aldean bereizgarriak diren bi ezaugarri: behin-behineko harrera eskaintzen dute (kontratuak izan ez diren bitartean, ez kontratuaren epearen barruan) eta administrazioa da kostu guztiak ordaintzen dituen (AFA eta ez nekazariak). Bi ezaugarriok elkarrekin dute zerikusia eta berraztertu beharko lirateke, baldin eta aterpetxeak alojamendu iraunkorrerako formulatzat hartzen badira; izan ere, gai horibehin baino gehiagotan planteatu da irtenbide egoki modura eta gainera beste leku batzuetan badago honen inguruko esperientzia handia.

b) Kanpatze guneak

Aipatuenez, azken bi urteetan Eltziegoko ohiko kanpatze gunea kendu da. Eremu hau, gehienbat, estatutako beste leku batzuetatik zein Portugaletik etorritako ijito etniako familiek erabiltzen zuten.

Patata batzeko eremuan, gutxienik, Albainako kanpamenduari eutsi zaio aurreko urteetako antzeko baldintzetan: bi komun, elektrizitate sorgailu bat, edateko ur txorrota eta hainbat zaborrontzi. 1999an udalak komunerako lagatako ur patin bat ezarri zen, nahiz eta azken kanpainan horrelakorik egon ez den. Alta, "etxebizitzak", kasurik gehienetan, aldi baterako txabolatzen har daitezke (hamabost bat gutxi gorabehera), osagai eta material eskasez eginda daude eta ez dituzte segurtasun zein osasun arloko gutxieneko baldintzak betetzen. Orobat, esan beharra dago autobus zahar bat eta hainbat furgoneta alojamendu gisa erabiliak direla. Eremu horretako kanpatze guneei dagokienez, ez dugu zuzeneko daturik, ez baitugu bisitatu.

Eltziegoko kanpatze gunea benetako alternatiba barik kentzearen ondorioz, inguru horretan kanpatze gune berriak sortu dira, txikiagoak eta, kasuen arabera, eskasia baldintza gehiago edo gutxiago dituztenak. Horrela bada, 1999ko urriaren 6an hainbat kokaleku bisitatu ahal izan genituen:

- kanpatzeko lehengo gunearen aurrean, nekazari kontratugileak karabanak eta furgonetak aparkatzeko lagatako eremu batean (5 familia);
- Eltziegoren ere mahastietara abiatzeko eta harrera leku bihurtzeko zabaldutako bide batean (6 familia);
- Baños de Ebroko baskularen ondoan (9 familia);
- nekazarien lonja edo pabilioiaren baten alboko guneetan (Biasterin, Samaniegon, Bañosen, Lapueblan, Eltziego...);
- eraikitze materialak pilatzeko hainbat eremutan (Villabuenan...).

Kanpaldi hauek azken urte honetan ere izan dira eta berriak ere sortu dira; horietariko batzuk nahiko handiak izan dira, berbarako Elvillarren bisitaturiko bat (urriaren 18an, 12 familia handi baino gutxiago ez zituen).

Oro har kanpatze eremuak nahiko familia handiek edota euren artean senideturikoek hartzen dituzte (batzuetan 40 kide baino gehiagokoak). Taldeka

abiatzen dira furgoneta eta kamioietan eta, eskuarki, argi eta ur hartuneren bat eskaini ohi zaie, baina ez kasu guztietan. Gainerako zerbitzuak (komunak, dutxa, sukaldea, ur beroa, lo egiteko lekuak...) euren kontura dira. Eltziegon kanpatutako pertsonak udal igerilekuko dutxa eta bainugelak erabili ahal izan dituzte.

Erakunde honetako langileekin berba egin ahal izan duten ia guztiek uste dute euren egoera txarrera egin duela aurreko urteetakoaren aldean (zerbitzu ezagatik, herriko erdiguneko urruntasunagatik, gunetara sartzeko zailtasunagatik). Baten batek adierazi du egoera nahiko antzekoa dela: *“lehen bezain txarra”*. Era berean, bada batzuetan aintzat hartzen ez den egoera aditzera eman zuenik: nekazari kontratugileek alojamendua eskaini zieten, baina gurago zuten, euren kamioiak eta erdi-atoiak erabilita, taldeko bizimodua egin.

Azken ohar honek ageri-agerian jartzen du behar bezalako alojamendua emateko zer nolako zailtasunak ekartzen dituen horrelako lekuetara, lan egingo dutenez gain, kide guztiak biltzen dituzten familiak bertaratzea. Esperientziak erakusten digu errealitate honi (familian bertaratzearena) urterik urte eusten zaiola, eta, litekeena dela horrela izaten jarraitzea kultura eta merkatu arrazoiak direla eta. Hori ikusita, ez du ematen irtenbiderik egokiena ezikusiarrena egitea denik, horiek guztiak existituko ez balira bezala.

c) Alojamentuak, nekazariak edo enpresa kontratugileak eskainitako-lokaletan

Arartekoren 1997ko urteroko txostenean egoera modu honetara laburbiltzen zen:

“Nekazarien zein enpresa kontratugileen jabetzako lokaletan harrera egiten zaien pertsona eta familiei dagokienez, oso egoera desberdinak ikusi ahal izan dira: eredugarritzat jo diren lokalak (gaitasun handiko enpresa batzuek prestatutakoak) (...), gutxieneko bizi baldintzak betetzen ez dituzten guneak (sarritan familia arteko hainbat ustiategitan lanabesak gordetzeko erabiltzen diren lekuak), bai eta hainbat udalerritako nekazariak alojamendurako lokalak beren beregi konpondu eta berriztatzeko ekimen batzuk ere”. Horrela bada, 1999an bereziki egindako kanpoko bisitaldietan ikusitakoak bide ematen du oinarri-oinarrian arestian esandakoari eutsi ahal izateko.

Urte horretako irailaren 29tik urriaren 6ra bitartean bisitatu ahal izan ziren langileei eta euren familiei alojamendua emateko hainbat udalerritan erabiltzen diren lokalak, esate baterako Arabako lautadakoak, Arabako mendialdekoak eta Arabako Errioxakoak. Alojamentu horien baldintzak apuntatu ziren horretarako berariaz egindako ohar fitxa batean.

Ikusitako oinarritzat hartuta, lokal horietako tipologiarik ohikoena honako deskripzioarekin etor daiteke bat:

- Bizitzeko prestatutako lekuari dagokionez, pabilioia independenteak edota nekazarien etxebizitzari atxikitako guneak izaten dira, sarritan lanabesak edo salgaiak bildu eta gordetzeko erabili eta data horietan sasoiakoen familiei harrera egiteko garbitu edo atontzen direnak.
- Baldintza zein zerbitzuei dagokienez, ohikoena izaten da ura eta argia izatea eta sukaldea zein komuna pabilioian bertan egotea edo leku hurbil batean. Espazioa

banatu ohi da ezkontideen edo familien arabera, lurrian jarritako koltxoiek ematen duten tartea besterik ez dagoela; kasurik onenean mahai edo manpararen bat ere egon daiteke.

Lokal horietan hartutako pertsonen kopurua oso aldakorra da kasuen arabera. Egindako bisitetan era guztietako egoerak ikusi eta aztertu ahal izan dira: 14 familia eta 43 pertsona lonja horietako batean, bai eta 10 pertsonako familia bakarrak okupatutako lokalak ere.

Gai hau behar bezala baloratu ahal izateko, komeni da honakoak, bederen, gogoan izatea: egoerak oso aldakorrek izaten direla (bai beharriaz zein emandako irtenbideei dagokienez), alojamendua emateko baldintza ekonomikoak zeintzuk diren ezagutzeko zailtasunak egoten direla, eta arazo handiak izaten direla enpresak edo nekazariak eskaintutako objektu zein zerbitzuen eta kontratatuek eurek ekarritako ekipamenduaren artean bereizi ahal izateko.

Arabako Errioxan sasoikako lanari buruzko txostenean, 2000ko apirilekoa eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritzak sustatutakoa, normalean izaten diren makina bat egoerari buruzko datu esanguratsuak jasotzen dira, ikuspuntu zehatz bat ere sartuz: kontratua egiten duten nekazariena, hain zuzen ere. 298 nekazariri egindako lagin batetik hartu diren datuek errealitateari gehiago hurbiltzea ahalbidetzen dute, betiere lagin horren baliozkotasuna eta fidagarritasuna erabatekoa ez dela jakin arren. Horrela, aztertutako laginari dagokionez, ondokoa jakin ahal izan dugu, adibidez:

- Zenbatek ematen duten alojamendua (gutxi %64) eta zenbatek ematen ez duten (herena baino gehiago).
- Zein alojamendu mota eskaintzen duten: etxea (%33), lonja (%35), biltegia edo pabilioia (%19)...
- Gutxienez zein baldintza betetzen dituzten alojamendu hauek: edateko, argia, bainugela eta sukaldia (%40); gainera, ur beroa eta oheak (%30)...
- Inguru horretan zenbat plaza egongo diren gutxi gorabehera (193 inkesta positiboetan 1.688 plaza zenbatu dira eta plaza kopurua 4.000-4.500 ingurukoa izango dela pentsatzen da).
- Zeintzuk diren nekazariak sasoikako langileei alojamendua emateko dituen zailtasunak: leku egokirik ez izatea (%27); lokala berritzeko premia, mahats bilketak oso egun gutxi irauten duela eta kostua handia dela kontuan hartuta (%10); elkarbizitza arazoak eta portaeraren gaineko zalantzak (%16)...

Kasu honetan gogoan izan behar da iritzi hauek guztiak nekazariak beraiek eman dituztela eta ezin izan direla kontrastatu beste iturri batzuekin edo errealitatearen zuzeneko azterketarekin.

Aztertutako errealitateak, gutxienez, irtenbide hauek zailtzen dituzten bi elementu objektibo nabarmentzeko aukera ematen digute:

- hainbat ustiatagiren tamaina, ezaugarriak eta gaitasun ekonomikoa, hau da, beharrezko baldintzak bete beharrezko alojamendua jartzeko baliabide gutxi dituztenak;
- instalazio hauek urtero alojamendu modura erabiltzeko denbora tarte laburra (biltzeko kanpainak nahiko laburrak izaten dira).

Jakina denez, Arabako Errioxako ardo enpresa handi baten gaitasun ekonomikoak ez du zerikusirik patata lantzeko hektarea batzuk erabiltzen dituen nekazari arrunt baten baliabideekin. Ikusi ahal izango dugunez, alojamenduaren gaineko irtenbiderik duinenak enpresa gogorrei dagozkie edo bereziki sentsibilizaturiko nekazariei edo egokitzen den azpiegitura dutenei. Hainbat kasutan, azpiegiturak egokitzeko beharrezko obrei ekiterakoan, erakundeen laguntza ekonomikoak izan dituzte.

d) Alojamenturik gabeko pertsonak eta zerbitzurik gabeko kanpatze guneetan dauden familiak

Kanpatze guneen inguruan deskribatu eta ikusitako egoeretariko batzuk ezin hobeto sar daitezke atal honetan. Horri erantsi beharko litzaioke Biasterin zenbaitetan jazotzen den egoera, hau da, aterpetxeak ohe guztiak beteta dituen egun, edo hobeto esanda, gauetan gertatzen dena (arkupetan edo autobus geltokian lo egiten duten pertsonak...).

Egoera mota hauek maizago izaten dira kontraturik ez dagoen kasuetan: beharginak inork kontratatu ez dituen edo kontratu batetik bestera zain egoten diren bitartean. Alabaina, sarritan geratu ere egitean da, langileek kontratua izan arren, kontratugileek alojamenturako erantzukizuna beren gain ez hartzea.

* * *

Deskribatutako egoera gogoan izanik, erakunde honek aurreko aldietan ere azpimarratu gura izan ditu zenbait alderdi. Horrela eta adibide gisa, honako alderdiak nabarmendu ditu: zerbitzuak hobetu ahal izateko, erakunde desberdinen eta gizarte agenteen arteko lankidetzaren beharrezana; are arazo handiagoak sor ditzakeen egoeraren hauskortasuna; harrera egiteko sareek data zehatz hauetan gainezka egiteko duten erraztasuna; ukitutako udalerrietan udal agintaritzen inplikazio maila eta irizpide desberdinak...

Onartu beharra dago eta halaxe esan behar da alderdi hauetariko batzuen gaineko erabakiak hartu direla, bai eta baliabideak jarri eta hobekuntzak lortu ere: informazioa emateko bulegoak irekitzea, sentsibilizazio kanpainetan laguntzea, profesionalen kopurua handitzea, esperientzia berriei oratu eta hasiera ematea... Guztiarekin ere, aurten ukitu nahi dugun kokaleku eta alojamentuen gai zehatz honetan ez da urrats esanguratsurik igarri.

Erakunde honen iritziz, badira bi gai deskribatutako egoeren oinarrian daudenaketa benetako zailtasun bihurtzen direnak, kokaleku eta alojamentuei buruz planteatutako arazoei aurre egin eta irtenbidea eman ahal izateko:

- Kontratugileen betebeharrak (eta horien artean, alojamentuari dagozkionak) zehaztendituen eta lokal horiek bete beharreko gutxieneko baldintzak erregulatzen dituen arautegi edo erabakirik ez egotea;
- banakako baliabideak erabilita, beharrezan batzuk betetzeko zailtasun objektiboak eta nekazarien arteko lankidetzaren edo erantzun erkidea aurrera eramateko ekimenik ez egotea.

Lurralde honetan oraindik ere ez dago gai hauek argitu eta zehatz litzakeen nekazaritzako hitzarmenik. Oraindik ere ez dago lokalen edo laguntza zein ikuskapen baliabideen

inguruan gutxieneko baldintzarik ezarriko duen arautegi zehatzik. Eta elkarren arteko arazoei irtenbidea emateko lankidetzak ekimenei dagokienez, jakin dugunaren arabera, nabarmen daitekeen gauza bakarra honaxekoa izan da: UAGAK azaldutako interesa, GOAG nekazaritza konfederazioaren migrazio arloak, Kataluniaren kasuan (hainbat instalaziotara egindako bisitaldia barne), gai honen inguruan aurrera eraman dituen esperientziak ezagutu eta zabaltzeko edo Lezako Udalaren ekimena etorkizunean erabilera komuneko lokala izateko.

Horrela bada, azken urteetako errealitatea gogoan izan eta batik bat zenbait nekazarik alojamendua emateko dituzten gabeziak nahiz beste batzuek familia oso-osoeri harrera egiteko dituzten zailtasun objektiboak aintzat hartuta, deigarria da nekazari batzuen arteko lankidetzarako ekimenik ez egotea, horrela arazo komunei irtenbidea emateko momentuan. Baliteke, gainera, ekipamendu berririk gabe hainbat egoera konpondu ahal izatea, gaur egun diren, baina zeregin hauetarako aprobetxatu ez diren baliabideak erabilia. Esan nahi baita, baliabide egokiak izan litezke Bernedoko "Arabako Mendialdeko Gazte Alojamendua" edo Lagrango Udalak San Bartolomeko ermitaren aldamenean egin berri duen eraikina zein bertako kanpatze gunea...

Bestalde, Arabako Errioxan gero eta ohikoagoa da pertsona horiek kontratatzea mahatsa bildu zein nekazaritzako bestelako lanak egiteko. Horrek ekarri du egonaldiak luzatzea eta, horregatik, arte garrantzizkoagoa izatea alojamendu baldintza egokiak arautu, kontrolatu eta bermatzeko beharrezana.

Hori guztia dela eta, erakunde honek funtsean berresten ditu alojamenduari buruzko gaia arautzeko beharrezanaren alde 1997an erabilitako argudio berberak; horrek legebiltzarrari izaera orokorreko gomendioa egitera bultzatu zuen *"sasoikako beharginei eta euren familiei zuzendutako alojamenduek bete beharreko gutxieneko baldintzak (materialak, higienikoak eta funtzionalak) arautzeko; izan ere, arautegi hori irizpide gisara erabil daiteke diru-laguntza publikoak esleitzeko, alojamenduak baimendu eta ikuskatzeko, eta, azkenik, alojamenduotako baldintza duinak bermatzeko."*

Hurrengo atalek ildo horri jarraitu nahi diote, hau da, proposamenak zehaztu eta irtenbide batzuk eskainiko dira.

2. Egoera beste autonomia erkidegoetan erregularizatzeko hainbat ekimen

Egoera eta irtenbiderako proposamenak ikuspuntu juridiko eta eskumeneko batetik aztertu baino lehenago (hori gomendio honen 3. atalean egingo da), interesgarria izan liteke, oso modu laburrean bada ere, beste erkidego batzuetan abian jarritako ekimenak; izan ere, horretara, planteaturiko problemak konpontzeko bideak jorra litezke. Jakina denez, ekimen horietariko bakoitzak erantzuten dio ezaugarri zehatzak dituen problematika bati eta gerta liteke hartzen diren irtenbideak baliagarriak edo nahikoak ez izatea bestelako testuinguruetan. Beraz, kontua ez da gure egoerari besterik gabe aplikatu dakiokeen irtenbide eredurik eskaintzea, ezpada beste testuinguru batzuetan baliagarriak izan diren alternatibak planteatzea, horiek, azken batean, argi izpiren bat eman diezaguketelakoan.

Nahiko hurbil dauden eta sasoikako langile kopuru esanguratsua duten guneetara mugatuz, ondorengo ekimenak eta ezaugarriak zehatz ditzakegu alojamenduen erregulazioari dagokionez:

1) Andaluzia:

- Andaluziako Juntak diruz lagundu eta udalek errentatutako alojamendu-aterpetheen sarea sortuz joan dira, bai gutxienez hainbat kanpainetarako bai hainbat gunetan (adibidez:olibaren kanpaina).
- El Egidon sortutako arazoen ondorioz, badirudi enpresa buruek langileen esku uzteko moduko alojamenduen gaiari oratu gura diotela.
- Familiaren beharrianak betetzeko neurriei dagokienez, haurtzaindegi sarea antolatuta dago (barruko migrazioak).
- Gogora ekarri beharra dago, kasu askotan, ez dela sasoian sasoiko lan bat, ezpada urte osoko edo zati handi bateko beharra. Edozein kasutan ere, iraupen handiko kanpainak dira.

2) Katalunia:

COAGk zenbait urtetan barrena aurrera eroan duen esperientzia, funtsean, ezagutzen dugu; UAGAk ere horrekiko interesa azaldu du. Esperientzia horretarako ezaugarri azpimarragarri batzuk honako hauexek dira:

- Etorburuko kontratazioa, alojamenduen zein etxe partikularren sarea eta nekazariari zuzendutako zerbitzuen kudeaketa osoa nahasten ditu (nekazariak COAGri egiten dion ordainketaren bitartez).
- Udal batzuek alojamendu komunitarioak eraikitzea erabaki dute.
- Nekazaritzako hitzarmena dago eta alojamenduek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarrita daude.
- Familiarteko egoerak ez dira oso arruntak eta ez dira alojamenduen kasuan aurreikusten.

3) Errioxa:

- Duela urte batzuetatik hona nekazaritzako hitzarmena dute; horrek alde kontratugilearen betebeharra ezartzen ditu, betiere kontratutako alojamendu baldintzei dagokienez.
- Edozein modutan ere, Bañaresko kanpamenduko egoeraren modukoek kolokan jartzen dute gai horri buruzko hitzarmena betetzen den ala ez.

4) Nafarroa:

- Sasoikako langileen alojamendurako plana dago nekazaritza produktuak biltzeko kanpainak izaten direnean; egitasmo hori Nafarroako Gobernuako Nekazaritza Sailak aurkeztu zion Parlamentuari, Parlamentuaren 1999ko urriaren 27ko bilkurak onetsitako mozio bati erantzuteko asmoz.
- Kontsultatutako erakundeek "behin-behinekotzat" jotzen dute plan hori..
- Etxe partikularren sarea (erabiltzen ez direnak) sortzea du helburu; horiek alokatuko litzaizkioke enplegu emailei, sasoikako langileei alojamendua eman ahal izateko.
- Etxean sistema honetan sartuko direla bultzatzeko, PFEZaren %20ko kenketa proposatzen du, helburu honetarako lokalak erosi edo berritzeko inbertsioa egiten dutenen kasuan.

5) Aragoi:

- Aragoiko Gobernuak hainbat dekretu argitaratu ditu (horietariko azkena 2000ko martxoaren 10ean) “nekazaritza eta abeltzaintzako sasoikako beharginen alojamendurako zuzendutako eraikinak egokitzen laguntzeko”.
- Dekretuaren barruan bi elementu nabarmendu behar dira:
 - * ematen diren diru-laguntzen maila (eraikinak egokitzerakoan egindako inbertsioaren %50eraino);
 - * lokalek bizigarritasunaren aldetik bete beharreko gutxieneko baldintzak zehatz-mehatz adieraztea (dekretuaren eranskina).

6) Extremadura:

- Cáceresko nekazaritzako hitzarmenak beren beregi ezartzen du “*nekazariak langileari eskuratu beharko diola beraren familiarentzat zein harentzat bizigarritasun baldintza duinak dituen etxebizitza bat*”.
- Nekazaritzako Sasoikakoen Bulegoak 2000ko azaroan Jerte haraneko gerizaren sasoikakoen alojamenduei buruz emandako datuak askotarikoak direla esan behar da:
 - * %50eri udalek gizarte erakundeen lankidetzarekin batera martxan jarritako aterpetzetan eta beste motatako zentroetan eman zaie alojamendua.
 - * %30eri bizigarritasun baldintza oso desberdinak dituzten etxeetan, garajetan edo biltegietan eman zaie alojamendu.
 - * %19ri kanpaldietan eman zaie alojamendu, gehienbat Extremadurako Juntak abian jarritako kanpamenduan.

7) Kanpatze guneei dagokienez, kanpinen gaineko arautegia alde batera utzita (Eusko Jaurlaritzaren 41/1981 Dekretua), badira udal ekimenen batzuk, esate baterako Arrasate Udalarena (ez zaio lotzen sasoikakoen lanari, ezpada familia nomada batzuen asentamenduari). Beste herrialde batzuetako hainbat udalerritan abian dagoenaren ildotik doa; izan ere, auto-karabanan bidaiak egiten dituztenei kanpatze gunea uzteko modua da:

- gutxieneko zerbitzuak dituen gune bat ezartzen da (argi hartunea, ura, estolda, zola...);
- horren erabilera arautzea (pertsonek kopurua, egonaldiaren gehieneko denbora tartea...).

3. Sasoikako beharginen alojamendurako zuzendutako instalazioen baldintzak arautzea. Eskumenen eta proposamenen azterketa

Azken zati honetan, gorago aipatutako gai bat aztertzea komeni da: Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde egitura politikoaren barruan nork exijitu eta arautu behar dituen nekazaritza arloko sasoikako beharginentzako instalazioen oinarritzko bizigarritasun baldintzak. Esan nahi baita, erakunde komun eta lurralde historikoen arteko harremanei dagokienez, zehaztu behar da zein den nekazaritza arloarekin eta lurralde bakoitzean bizitzeko eta kokalekua ematera zuzendutako lekuen baldintzekin zerikusia duten gaiak arautzeaz arduratzen den organoa.

Egin zitekeen arren, ez diogu gai honi lan ikuspuntutik helduko; izan ere, lanbaldintzak ezartzea estatuko legegileari dagokio (oinarritzko legeria) edo, hala denean, negoziazio

kolektiboaren gaia da (nekazaritzako hitzarmenak...). Beste alde batetik, adierazi behar da alojamenduen gaiari besterik ez diogula oratuko. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak jasotzen duenaren arabera, autonomia erkidegoak nekazaritza (10.9.)edo etxebizitzaren (10.31.) gaineko eskumenak ditu. Horiek bide ematen dute nekazaritzako langileen aldi baterako alojamendurako zuzendutako egoitzek aurkeztu beharreko bizigarritasunaren gutxieneko baldintzak arautuak izan daitezzen. Lurralde Historikoei buruzko 27/1983 Legeak ez die foru aldundiei eskumen berezirik ematen; hori dela eta, ondoriozta dezakegu gai honen gainean arautzea autonomia erkidegoko erakunde komunak zeregina dela, Eusko Jaurlaritzarena, hain zuzen, betiere arau bidezko xedapenbaten bitartez.

Eskumenen banaketa hau dela eta, Eusko Jaurlaritzari eska lekiok gainerako administrazioetarako (foru aldundiak eta udalak) eta nekazaritza arlorako baliagarriak diren gutxieneko irizpideak ezartzeko, betiere sasoikako langileek alojamendu duinerako duten eskubidea babestu nahian.

Beste arlo batzuetan, esate baterako turistikoan edo gazte politikakoan, badira aldi baterako egoitza erabilera mota hauen gutxieneko zerbitzuei buruzko hainbat parametro ezartzeko erabiltzen diren arauzko lanabes batzuk.

Besteak beste, honako hauexek daude: Euskal Autonomia Erkidegoko Kanpinen Antolamenduari buruzko martxoaren 16ko 41/1981 Dekretua, Ume edo Gazte Taldeen Alojamentu edo Egonaldietarako zuzendutako Aterpetxe zein Instalazioen Antolamenduari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretua, Landa Inguruneko Alojamentu Egoitzak arautzeko maiatzaren 28ko 128/1996 Dekretua.

Nekazaritzako langileek aldi baterako egonaldiak egitera zuzendutako instalazioen problematikari heldzean, aipatu beharreko beste gai bat lurralde eta hirigintza antolamenduari dagokio.

Eragina duten lurralde eta arlokako plangintzen barruan ezarri behar izango litzateke aldi baterako ekoizpenaren eta bilketaren inguruko zereginei lotutako aldi baterako egoitza erabilera kolektiboa, batez ere Arabako Lurralde Historikoaren barruko ardogintzaren eta patataren arloetan.

Illo honi jarraituz, idazten ari diren **Jarduera Ekonomikoen Lurralde eta Arlo Plangintzak, bai eta Nekazaritzako Lurzoruari buruzkoak ere**, agertuko dute zein izango den erabilera mota honek ardogintzako jarduera produktiboekin izango duen beharrezko lotura, betiere sasoikako beharginen beharrezko eta aldi baterako ekarpena.

Beste alde batetik, komenigarria izango litzateke **Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialean** (eskualde honetan Euskadiko ardogintzaren ia arlo osoa dago) eta Arabako Erdialdeko Lurralde Plan Partzialean (patataren ekoizpena bertan dago gehienbat) langileen alojamendurako aldi baterako egoitza erabilera arautzea, nagusiki bilketa zereginaren existentziari lotuz.

Nekazaritzako ustiategiak dituzten udalek aldi baterako egoitza erabilera kolektiboa jaso behar izango lukete oinarrizko antolamendurako lanabesetan, hau da, euren arau subsidiarioetan.

Horrek udalerriehi ahalbideratuko lieke haziz doan edo gutxienez iraungo duen gizarte errealitate bat kontrolatzea; era berean, hirigintza politikako elementuak sar litezke udal lizentzia eta sasoiakoen egoitzara zuzendutako instalazioen existentzia zein mantentzea lotuz; horretarako, bada, Eusko Jaurlaritzako etorkizuneko dekretuak ezarriko dituen gutxieneko baldintzak hartu behar izango dira kontuan.

Eskumenen banaketa diseinu hau erreferentziatzen hartzen baldin badugu, ardogintzako eta patata ekoizpenetako sasoiakoen beharginen alojamenduaren problematikari oratu beharko litzaioke ondoko tresna juridikoak erabiliz:

- 1- Eusko Jaurlaritzaren Dekretua, Nekazaritza Sailak proposaturikoa;** horrek ezarri beharko luke ardogintzako eta patatako ustiatzeko (gutxienez sortu berriek eta gaur egungoak handitzeko proiektuek) sasoiakoei alojamendua emateko instalazioak izateko exijentzia, betiere ustiatzeko bakoitzak ekoizteko dituen beharrezko eta gaitasunaren neurriko proportzioan.

Dekretu honetan ere instalazio hauek bete beharreko gutxieneko baldintzak eta beharrezkoak jasotzeko behar izango lirateke:

- argi naturala eta aireztatze egokia;
- surik hartzen ez duen koltxoia den ohea edo litera eta armairu bat;
- dutxa, konketa eta komeneko zerbitzu higienikoak, hamar pertsonako;
- sukalde eta harraska alikatatua eta janaria prestatzeko gutxieneko ekipamendua;
- jantokirako gunea.

- 2- Arabako Foru Aldundiko Foru Dekretua,** sasoiakoen langileentzako instalazioak egokitzeko deialdiaren gainekoa; horretarako, gorago aipatutako arategi autonomikoak zehazten dituen gutxieneko beharrezkoak bete beharko lirateke.

Dekretu honetan ezarri behar izango litzateke arlo honetan inbertitzeko edozein laguntza, diru laguntza edo zerga onurarako baldintza izango dela Eusko Jaurlaritzaren dekretuak sasoiakoen instalazioei buruz ezarritako zehaztapenak betetzea.

- 3- Lurraldea antolatzeke agiri estrategikoetan** jasotzeko beharko litzateke erabilera hori ezartzeko premia; izan ere, behar-beharrezko elementua da patata ustiatzeko arlo honetako. Hala, ondokoak aipatu nahi ditugu beren beregi: Jarduera Ekonomikoen Arloko Lurralde Plana (Nekazaritzako Lurzoruen Arloko Lurralde Plana), Arabako Errioxako Lurralde Plan Partziala eta Arabako Erdialdeko Lurralde Plan Partziala.

- 4- Ukitutako udalerririk guztietako arau subsidiarioen berrikuspenean** sartu beharko litzateke nekazaritzako ustiatzeko arlo honetako etxebizitzako kolektiboaren erabilera. Era berean, udalerririk hirigintza plangintzari buruzko arau subsidiarioetan instalazio horiek bete beharreko beharrezkoak eta parametroak sartu beharko lirateke; horretarako, horiek bete ezean, udalak esku har lezake hirigintzako diziplinako tresnak erabiliz.

III. ERANSKINA

**Galdeketa, 2001ekoa, Arartekoak Arabako
Mendiko, Lautadako eta Errioxako 31 udali
bidalitakoa**

**SASOIKAKO LANGILEEN OSTATUEI BURUZKO GALDE-SORTA,
ARABAKO ERRIOXA, ARABAKO LAUTADA
ETA MENDIKO UDALENTZAT
(2001eko kanpaina)**

Udala:

- 1- Azken kanpainan, sasoikako zenbatsu langile joan dira herri horretara?:
- 2- Ehunetik zenbat (%) etorri dira, zuen ustez, beren familia-unitatearekin?: %
- 3- Gutxi gorabehera zenbat pertsonari egin zaie harrera, familia-unitateetako kide guztiak barne hartuta?:
- 4- Zuen iritziz, herrian kokatu diren pertsonetatik ehuneko zenbat dira:
 - Bertakoak?: • Ijitoak?:
 - Atzerritarrak?: • Portugesak?:
 - Emakumeak?: • Adin txikikoak?:
- 5- Herriko zenbat nekazarik edo enpresak, gutxi gorabehera, kontratatu dituzte sasoikako langileak?:
- 6- Zenbatsu egun iraun du kanpainak herrian?:
- 7- Gutxi gorabehera zenbat soldata (pertsone bakoitzari/eguneko) eman zaizkie herrian?:
- 8- Zenbatsu lokal utzi zaizkie ostatu hartzeko?:
- 9- Zenbat toki erabili dira, gutxi gorabehera, kokaleku gisa?:
- 10- "Ostatu motei" dagokienez, adieraz ezazue pertsona horiek nola banatu diren (%), gutxi gorabehera:
 - Etxebizitzetan: %
 - Aterpetxeetan: %
 - Lonja, biltegi edo pabilioietan: %
 - Aurrez prestatu diren kanpalekuetan: %
 - Zerbitzurik ez duten kanpalekuetan: %
 - Atari zabalean: %
 -

- 11- Nolako egoeran zeuden erabili diren lonja, biltegi edo pabiloiak, bizigarritasunaren eta segurtasunaren ikuspuntutik?:
- Egoera onean: %
 - Egoera onargarrian: %
 - Ezin onartuzko egoeran: %
 -
- 12- Herri horretan kokatu diren edo ostatu hartu duten pertsonetatik, ehuneko zenbatak izan dituzte, zuen ustez, honako zerbitzuok:
- Argindarra: %
 - Ura: %
 - Ur beroa: %
 - Komunak: %
 - Dutzak: %
 - Sukaldea: %
 -
- 13- Udal horren iritziz, norik konpondu behar du, azken batean, pertsona horiei ostatu eman beharrak sortutako arazoa?:
- sasoikako langileek berek
 - nekazari edo enpresa kontratatzaileek
 - administrazioek. Honako hauek, hain zuzen:
 -
- 14- Udal horrek zein iritzi du, oro har, pertsona horien kokaleku edo ostatuuen egoeraz?:
- ez dago horrelako arazorik, edo dagoeneko konponduta dago
 - harazo larria da eta administrazioak esku hartu behar du
 - arazo bat da, baina ez dagokio udalari hori konpontzea
 -
- 15- Udalak zein ekintza hasi ditu edo hasiko ditu, gai honi dagokionez?:
-
-
-
-
-
- 16- Nolakoa iruditzen zaizue zuen herriko ostatu-kokalekuen egoeraz duzuen informazioa?:
- ona eta fidagarria
 - nahikoa
 - ez da nahikoa, ez fidagarria
- 17- Galde-sorta honetan egindako galdera zehatzak alde batera utzita, edo galdera horien gainean, adieraz al dezakezue gai hau aztertzeko beste datu, iritzi edo proposamen interesgarriren bat?:
-
-

IV. ERANSKINA

**Patata biltzeko zonako udalek Arartekoaren
galdeketari emandako erantzunak**

PATATA BILTZEKO ZONA	Alegria-Dulantzi	Arraia-Maeztu	Arrazua-Ubarrundia	Asparrena	Barrundia
1- Azken kanpainako sasoikako langileen kopurua	23		50		17
2- Familian iritsitako sasoikako langileen proportzioa (%)	familia 1		% 80		% 50
3- Etorritako pertsonen guztizko kopurua	24		0		20
4- taldeen %:					
- Estatukoak	—		—		% 60
- atzerrikoak	% 100		—		% 40
- emakumeak	—		—		—
- ijitoak	—		% 100		—
- portugaldarrak	% 100		—		—
- umeak	—		—		—
5- Kontratua egiten dutenen kopurua (nekazariak edo enpresak)	1		7		—
6- Kanpainaren egun kopurua	16		20		28
7- Udalerriko soldata kopurua (pertsona/eguneko)	—		—		—
8- Bizilekurako lagatako lokal kopurua	—		0		3
9- Ezarkuntzarako erabilitako leku kopurua	1		0		3
10- Banaketa:					
- etxebizitzetan	% 100		—		—
- aterpetxeetan	—		—		—
- lonjetan, biltegietan, pabilioietan	—		—		% 80
- gaituriko kanpaldi zonak	—		—		—
- zerbitzurik gabeko kanpaldi zonak	—		—		% 20
- izarpean	—		—		—
-	—		—		—
11- Bizilekuen baldintzen balorazioa:					
- onak	% 100		—		% 20
- onargarriak	—		—		—
- onartezinak	—		—		% 80
12- Zerbitzu erabilgarriak:					
- argi elektrikoa	% 100		—		—
- ur korrontea	% 100		—		—
- ur beroa	—		—		—
- komunak	—		—		—
- dutxak	% 100		—		—
- sukaldea	?		—		—
13- Hauek konpondu beharreko arazoak:					
- sasoikako langileek	—		—		—
- kontratua egiten dutenek	X		X		—
- administrazioak (zein)	—		X		—
-	—		—		(12)
14- Balorazio orokorra:					
- ez dago arazorik edo konponduta dago	—		—		—
- administrazioak konpondu beharreko arazoa	X		—		—
- udalerrian eraginik ez duen arazoa	—		—		—
-	—		—		—
15- Udalak gauzatutako edo gauzatu beharreko ekimenak	(13)		—		(14)
16- Informazio erabilgarriaren balorazioa:					
- ona eta fidagarria	X		—		—
- nahikoa	—		—		X
- ez da nahikoa eta fidagarria	—		X		—
17- Beste datu, balorazio eta proposamen batzuk	—		—		—

(Iturria: Udalerriek Arartekoaren galdeketari emandako erantzunak – 2001)

- (1) Aguraineko udalak eskaintako datuak Taldeari buruzkoak dira, eta ez udalerriri buruzkoak. (?)
- (2) Kontratzen dituzten auzokoek etxebizitza bizigarriak eskaintzen dizkiete, lanaldiak dirauen artean.
- (3) Furgonetan.
- (4) Ez dago daturik: %12.
- (5) Furgoneta: 2%.
- (6) etxebizitzetan %50 onargarriak.
- (7) biltegien %100 onartezinak.
- (8) Ezin izan dugu sartu: %46.
- (9) Ez dakizkigu pertsonen %42ari buruzko datuak.

Bernedo	Kanpezu	Elburgo	Iruña de Oca	Iruiza-Gauna	Lagrán	Peñacerrada -Urizaharra	Agurain (1)	San Millán	Arana harana	Zalduondo (2)
43	17	7		61	18	14	190	50	10	
% 100	% 100	—		% 80	% 100	% 100	% 12	% 9	—	
75	24	7		61	28	18	221	55	16	
—	—	—		% 17	—	—	% 25	% 11	—	
—	—	% 100		% 70	—	—	% 75	% 65	—	
—	—	—		—	—	—	—	—	—	
—	X	—		—	—	% 50	—	—	—	
% 100	X	—		% 13	X	% 50	% 31.5	% 24	% 100	
% 50	—	—		% 30	X	—	% 16	% 9	% 50	
5	2	1		6	3	3	17	5	4	
30	15	15		28	20	20	15	13	15	
—	—	—		—	—	—	—	—	—	
—	—	—		—	2	2	19	5	—	
6	2	1		7	2	1	15	3	2	
% 18	—	—		—	% 50	1	% 13	—	—	
% 46	1	% 100		—	% 50	—	% 67	% 98	% 100	
—	1	—		—	—	—	% 8	—	—	
% 36	—	—		—	—	2	—	—	—	
—	—	—		(3)	—	—	(4)	(5)	—	
—	—	—		% 14	—	—	% 12	—	—	
(6)	% 50	—		—	% 50	% 100	—	% 50	% 50	
(7)	% 50	% 100		% 86	% 50	—	% 42 (8)	% 50	% 50	
—	% 50	?		% 14	% 50	% 100	% 24	% 80	% 50	
—	% 50	?		% 14	% 50	% 100	% 38	% 100	% 50	
—	% 50	?		—	% 50	% 100	% 28	% 55	% 50	
—	% 50	BAI		% 14	% 50	% 50	% 24	% 55	% 50	
—	% 50	BAI		% 14	% 50	% 50	% 24	% 55	—	
—	—	BAI		% 14	% 50	% 50	% 42 (9)	% 80	% 50	
—	—	—		—	—	—	—	—	—	
X (10)	X	—		X	X	X	X	X (11)	X	
—	—	X		—	—	—	—	—	—	
X	—	X		X	—	X	X	X	—	
—	X	—		—	X	X	—	—	X	
—	—	—		—	—	—	(15)	(16)	—	
X	—	—		—	X	X	X	—	—	
—	X	—		X	—	—	—	X	X	
—	—	—		—	—	—	—	(17)	—	

(10) Aldundia: aterpetxeak.

(11) Aldundiak, Eusko Jauraritza.

(12) Langileen eta nekazarien arteko kontratu baldintzen arabera.

(13) Oinarrizko gizarte zerbitzuen bidezko jarraipena, udalerriko kasu guztietan.

(14) Ez dago ezer aurreikusita, udalerrian sasoiakako langile kopuru handia dagoelako.

(15) Sasoiakako langileekin egindako lana, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez, eta zonako Prebentzio Teknikak.

(16) Ez da ezer egin, ez baitago gaiari buruzko informaziorik. Udalak udal politikiroldetik duxak laga ditu.

(17) Erakundeek (aldundiak, Eusko Jauraritza) ikerketa fidagarriagoak egin beharko lituzkete, gaia ikertzeko eta soluzioak aurkitzeko. Ekimenak erakunde guztiek hartu behar dituzte, eta ez administrazio honek bakarrik, txikia izatean ez baitu baliabide nahikorik.

V. ERANSKINA

**Mahatsa biltzeko zonako udalek Arartekoaren
galdeketari emandako erantzunak**

MAHATSA BILTZEKO ZONA	Baños de Ebro	Elciego	Elvillar	Kripan	Labastida
1- Azken kanpainako sasoikako langileen kopurua	700	—	250		—
2- Familian iritsitako sasoikako langileen proportzioa (%)	% 2	—	% 35		—
3- Etorritako pertsonen guztizko kopurua	750	—	% 60?		—
4- taldeen %:					
- estatukoak	% 5	—	%10		—
- atzerrikoak	% 95	—	% 90		—
- emakumeak	% 10	—	% 25		—
- ijitoak	% 10	—	% 10		—
- portugaldarrak	% 95	—	% 75		—
- umeak	% 2	—	% 15		—
5- Kontratua egiten dutenen kopurua (nekazariak edo enpresak)	30	—	70		—
6- Kanpainaren egun kopurua	15	—	10-12		30
7- Udalerriko soldata kopurua (pertsona/eguneko)	500	—	1.000		—
8- Bizilekurako lagatako lokal kopurua	28	—	12		—
9- Ezarkuntzarako erabilitako leku kopurua	28	—	3		—
10- Banaketa:					
- etxebizitzetan	—	—	—		—
- aterpetxeetan	—	—	—		—
- lonjetan, biltegietan, pabilioietan	% 99	—	% 60		—
- gaituriko kanpaldi zonak	% 1	—	—		—
- zerbitzurik gabeko kanpaldi zonak	% 1	—	% 40		—
- izarpean	—	—	—		—
-	—	—	—		—
11- Bizilekuen baldintzen balorazioa:					
- onak	% 80	—	% 20		—
- onargarriak	% 20	—	% 70		—
- onartezinak	—	—	% 10		—
12- Zerbitzu erabilgarriak:					
- argi elektrikoa	% 100	—	% 60		—
- ur korrontea	% 100	—	% 80		—
- ur beroa	% 100	—	% 40		—
- komunak	% 100	—	% 40		—
- dutxak	% 100	—	% 40		—
- sukaldea	% 100	—	% 30		—
13- Hauek konpondu beharreko arazoak:					
- sasoikako langileek	—	—	—		—
- kontratua egiten dutenek	X	X	X		X
- administrazioak (zein)	—	—	X		—
-	—	—	—		—
14- Balorazio orokorra:					
- ez dago arazorik edo konponduta dago	—	X	—		—
- administrazioak konpondu beharreko arazoa	—	—	X		—
- udalerrian eraginik ez duen arazoa	X	—	—		—
-	(4)	—	—		(5)
15- Udalak gauzatutako edo gauzatu beharreko ekimenak	—	—	(8)		—
16- Informazio erabilgarriaren balorazioa:					
- ona eta fidagarria	—	—	—		—
- nahikoa	X	X	—		X
- ez da nahikoa eta fidagarria	—	—	—		—
17- Beste datu, balorazio eta proposamen batzuk	—	(14)	—		—

(Iturria: Udalerriek Arartekoaren galdeketeri emandako erantzunak – 2001)

(1) Guztira.

(2) Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak, lokalak gaitzeko laguntzak emanez.

(3) Bata nahiz bestea, bakoitzaren aukeren arabera.

(4) Arazoa dela dirudi, baina beste udalerrri batzuetan lan egin eta geurean finkaturik daudenean.

(5) Arazoa dela diote, eta uste dute nekazariak gaiaz jabeaz behar direla, zerbitzua euren eskatzen baitute.

(6) Arazo dela diote; aurrean ondo dago, baina beste urte batzuetan ez.

(7) Talde guztietan eragina duen arazoa da.

(8) Dutzak eta udal zerbitzuak erabiltzeko baimena ematen zaie.

(9) Umeen laguntza antolatzen du ikastolan.

(10) UAGAren lankidetzan jatorrian kontratatutako sasoikako langileen bizilekuaren eraikuntza, eta hori datorren urtean egingo litzateke.

Laguardia	Lanciego	Lapuebla de Labarca	Leza	Moreda de Álava	Navaridas	Oion	Samaniego	Villabuena de Álava	Yécora
	200		60	30	250	—		200	100-150
	% 50		% 90	% 1	% 50	—		% 5	% 50
	120		40	40	125	—		200	150
	—		% 40	% 25	% 10	—		—	\$ 60
	% 20		% 60	% 50	% 90	—		—	40
	% 20		% 20	% 2	% 15	—		—	% 30
	% 20		% 30	% 12	% 20	—		% 5	% 50
	% 25		% 60	% 12	% 80	—		% 95	% 20
	% 15		% 10	—	% 5	—		—	% 15
	30		20	6	(1)	—		50	30
	15		15-20	30	21	60		20	10
	2.250		650	—	250	—		200	1.500
	20		10	3	12	—		15	15
	1		3	—	2	2		—	2
	% 50		—	—	% 30	—		% 60	% 20
	% 50		% 70	% 100	% 40	→		% 40	% 70
	—		—	—	% 10	→		—	% 10
	—		% 30	—	% 20	—		—	—
	—		—	—	—	—		—	—
	50%		% 20	—	—	—		% 100	% 30
	50%		% 70	% 100	% 80	—		—	% 60
	—		% 10	—	% 20	—		—	% 10
	% 100		% 70	% 100	% 100	—		% 100	% 80
	% 100		% 70	% 100	% 100	—		% 100	% 100
	% 70		% 70	% 75	% 100	—		% 100	% 50
	% 70		% 70	% 100	% 100	—		% 100	% 50
	% 50		% 70	% 75	% 100	—		% 100	% 50
	% 50		% 50	% 100	% 100	—		% 100	% 50
	—		—	—	X	—		—	—
	X		X	X	X	X		X	X
	—		(2)	—	X	—		—	—
	—		—	—	(3)	—		—	—
	—		—	—	—	—		X	—
	X		X	—	X	X		—	—
	—		—	—	—	—		—	—
	—		—	(6)	—	—		—	(7)
	(9)		(10)	(11)	(12)	(13)		—	—
	—		—	—	—	—		—	—
	—		X	X	X	X		X	X
	—		—	—	—	—		—	—
	—		(15)	—	(16)	(17)		—	—

(11) Arazoa

(12) Auzokoez kontrolik gabeko ezarkuntzen eraginez egindako kexei dagokienez, udalak halako ezarkuntzak ekiditeko ahalegina egin du beti, eta, ezin izan duenean, ezarkuntzako lekuak garbitu egin behar izan ditu.

(13) Ordenantza egitea, testua bidali da.

(14) Gure ustez, jatorrian egindako kontratazioa derrigortu behar da, oraingo arazorik gehienak saihestu ahal izateko.

(15) Arazo horri dagokionez, berori neurri handian larritzen dutenak mafiak eta bitartekariak dira; horiek sasoiakako langileak ekartzen dituzte, lan edo bizileku baldintzen ardurarik izan gabe; gainera, langile horien lanaz baliatzen dira, eta, sarritan, nekazariari ez diote aukerarik ematen sasoiakako langileak kontratatzeko.

(16) Ebazpenerako gaitasuna duen erakundea egon behar da, kontrolik gabeko ezarkuntzetarako, udalerririk ez baitu gorretarako gaitasunik.

(17) Behin-behinean onetsitako ordenantzaren kopia bidali da, baita oinarritzko gizarte zerbitzuek idatzitako oharra ere. k daudenean, gizarte laguntzaileekin hitz egin eta arazo horiek konpontzeko ahalegina egiten da.

VI. ERANSKINA
Bizilekuen baldintzei buruzko
datuak biltzeko orria

DATUAK BILTZEKO ORRIA. SASOIKAKO LANGILEAK 99 / "BIZILEKUEN" FITXA

Behaketa eguna: _____ Udalerria: _____ Erreferentziako lekua: _____

- Bizileku mota (kanpaldia/lagatako lonja/...): _____

- Lekuaren jabea (kontratua egin duen nekazaria/ezezaguna/udalerria/...: _____

- Pertsona kopurua: Famili harremana: _____

- Jatorria (herria, probintzia): _____

- Ume kop.: 3-6 urte: _____ 6-12 urte: _____ 12-16 urte: _____

- Eskolatzea: _____

- Ibilgailu kop.: Mota: _____

- Bertan igarotako egun kop.: _____

- Egongo diren egun kop.: _____

- Nondik iritsi diren (aurreko lekua): _____

- Amaitu ondoren nora doazen: _____

- Zenbat urtetan etorri diren: _____

• LEKUAREN BALDINTZAK (euren esku jarritakoak):

- Argi hartunea: _____ - Sukald.: _____

- Ur hartunea: _____ - Ur beroa: _____

- Komunak: _____ - Koltxoiak: _____

- Dutxa: _____ - Mah.: _____

- Ur beroa: _____ - Aulk.: _____

- Zabor edukiontzia: _____ - Bero iturria: _____

- Lokaztu ezin den zorua: _____ - _____

- G. gorabeherako azalera: _____ - m²: _____

- _____ - _____

Azalpena: _____

• HAUEKIKO HARREMANAK (BAI/EZ):

- Nekazaria (kontr. zuzena): _____ - Gizarte zerbitz.: _____

- Bitartekariak: _____ - Osasun zerbitz.: _____

- Informazio bulegoa: _____ - Eskolak: _____

- Udaletxea: _____ - Ertzaintza: _____

- Best.: _____ - Boluntar.: _____

• Oharrak/eskabideak/proposamenak...: _____
